

SINDIKO



# 2002-2003 MEMORIA

## VITORIA-GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEA

Vitoria-Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoa  
San Prudentzio 29/Foru kalea 16, 1. Solairua, 20. Bulegoa  
Telefonoa: 945 16 26 90/Fax: 945 16 26 93  
email:sindikoa@vitoria-gasteiz.org  
[www.vitoria-gasteiz.org/sindikoa](http://www.vitoria-gasteiz.org/sindikoa)

## *AURKIBIDEA*

|  |                 |
|--|-----------------|
| <b>1. 2002-2003 MEMORIAREN HITZAURREA.....</b>   | <b>14. orr.</b> |
| <b>2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN LABURPENA:.....</b>  | <b>17. orr.</b> |
| 2.1 SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN BULEGOAREN AURKEZPENA.....   | 17. orr         |
| 2.2 ORIENTAZIO ETA AHOLKULARITZA JARDUERA.....   | 21. orr.        |
| 2.3 SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN EBAZPENAK SAILEN ARABERA (Gomendioak, Ezesprenak, Baztertzeak, Deribazioak, Orientazioak eta Beste Batzuk):..... | 27. orr.        |
| <b>2.3.1 HIRIGINTZA-SAILA.....</b>   | <b>27. orr.</b> |
| <b>2.3.1.1 Bide Publikoaren Zerbitzua</b>  |                 |
| <b>2.3.1.1.1 GOMENDIOAK</b>  |                 |
| • Bizikletentzako aparkaleku bat jartzeko eskaera (Erreg. zk: 04-02)   |                 |
| • Gaur egungo autobus-geltokiaren egoera txarra (Erreg. zk.: 42-02; 97-02; 99-02)  |                 |
| <b>2.3.1.1.2 EZESPENAK</b>   |                 |
| • Auzo-komunitate bati pasabide bat ematea (Erreg. zk.: 100-02; 101-02)  |                 |
| • Txirula eta Txalaparta kaleen arteko zonaldeko lorategiak zaintzea (Erreg. zk.: 104-02)  |                 |
| <b>2.3.1.1.3 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEAK</b>   |                 |
| • Oztopo arkitektonikoei buruzko kexa (Erreg. zk.: 66-02)  |                 |
| • Autobus Geltokia kudeatzeko baldintza-orriaren aldaketa (Erreg. zk.: 12-02)  |                 |
| • Aiztogile kalearen zoladuraren hondatzea (Erreg. zk.: 17-02)   |                 |
| • Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 47-02)  |                 |
| <b>2.3.1.1.4 ORIENTAZIOAK</b>  |                 |

Enpresa eraikitzaile baten prezio tasatuko etxebizitza bati uko egiteko eskaria, hari dagokion aurrerakina ordaindu ondoren (Erreg. zk.: 127-02)

- Jabeen Komunitate bateko hustubideak berritzeko premia (Erreg. zk.: 158-03;159-03;160-03)

#### **2.3.1.1.5 BESTE BATZUK**

- Bide Publikoko argimutilak (Erreg. zk.: 65-02)
- Ibilgailuen zirkulazioa dela-eta egoera txarrean dagoen oinezkoentzako kaleko zoladura (Erreg. zk.: 51-02)

### **2.3.1.2 Eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Zerbitzua**

#### **2.3.1.2.1 GOMENDIOAK**

- Lokal batean ura sartu izana Jabeen Komunitate batek estoldak itxi dituelako (Erreg. zk.: 92-02)
- Jabeen Komunitate batean erauzgailuak oker jartzea (150-03 zk.)

#### **2.3.1.2.2 EZESPENAK**

- Bizigarritasun-lizentzia ez duten etxebizitzak, hasierako banaketako akats bat dela-eta lurrik ez dagoelako (Erreg. zk.: 16-02)
- Ibaiondoko lurren sustapenerako Babes Ofizialeko pisu bat esleitzeko ezetza (Erreg. zk.: 85-02; 86-02)
- Komunitatearen teilatuko instalazio irrati-elektrikoekin izandako arazoak (Erreg. zk.: 88-02)
- Garaje-plaza baten emakida, hura uzten duen enpresa eraikitzaileak erabiltzeko eskubidea osorik kobratzea exijitzen duela (Erreg. zk.: 35-02)
- Lehen Udalarena izandako eta orain partikular batena den pisua, eta galdera ea obrak nork ordaindu behar dituen (Erreg. zk.: 33-02)

#### **2.3.1.2.3 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEAK**

- Jabeen Komunitatea eragozten duen bizilagun baten patio bateko teilapea (Erreg. zk.: 61-02)
- Ondasun Erkidegoa bizigarritasun-baimena ez jasotzeagatik (Erreg. zk.: 64-02)

#### **2.3.1.2.4 BITARTEKOTZAK**

- Udalak Vitoria-Gasteizen egoitza duen enpresa bati sarbidea gabetu dio bizikleta-errei bat egiteko (Erreg. zk.: 67-02)
- Etxebizitza bat utzaraztea itsatsitako eraikin baten eraistea dela-eta (Erreg. zk.: 154-03)

#### **2.3.1.2.5 ORIENTAZIOAK**

- Ibaiondoko etxebizitzaren gehienezko prezioei buruzko informazioa (Erreg. zk.: 103-02)

#### **2.3.1.2.6 BESTE BATZUK**

- Lokal batetik datozen keak etxebizitza batean sartzea (Erreg. zk.: 50-02))
- Ertzaintza Etxeko banda elektrikoek eragindako osasun-arazoak (Erreg. zk.: 93-02)

### **2.3.1.3 Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzua**

#### **2.3.1.3.1 GOMENDIOAK**

- Irisgarritasun-arazoak Vitoria-Gasteizko hainbat zonaldean, Juan Aiala plazako aparkalekuan zehazki (Erreg. zk.: 45-02)

#### **2.3.1.3.2 EZESPENAK**

- Egungo oztopo arkitektonikoak kendu beharra zaindu, kontrolatu eta sustatzea, Santo Domingo Plazaren zaharberitze posiblea dela-eta (Erreg. zk.: 20-02)
- Jungituko administrazio-batzarreko zenbait finka hiri-lur bezala birkalifikatzea (Erreg. zk.: 91-02)

#### **2.3.1.3.3 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEAK**

- Gasteizko saltoki-gune baten hirigintza-hitzarmena (Erreg. zk.: 68-02)
- Aparkaleku-proposamena Nafarroako Errege-erreginen kalean (Erreg. zk.: 44-02)

#### **2.3.1.3.4 BESTE BATZUK**

- Uztako fruituak biltzerik ez izatea Vitoria-Gasteizko Udalak lurak desjabetu dituelako (Erreg. zk.:73-02)

### **2.3.1.4 Hilerrien zerbitzua**

#### **2.3.1.4.1 GOMENDIOAK**

- El Salvador hilerriko 164 zk.ko horma-hobien lur-zatiaren urbanizazioaren egoera txarra (Erreg. zk.: 74-02)

## **2.3.2 OGASUN-SAILA.....56. orr.**

### **2.3.2.1 Ondare Erantzukizunaren Atala**

#### **2.3.2.1.1 GOMENDIOAK**

- Hornitegi bati eragindako kalteak, hura dagoen hiribidea itxi dutelako (Erreg. zk.: 113-02)

#### **2.3.2.1.2 EZESPENAK**

- Udalak Espainia Plazan instalaturiko karpa bateko olana batek betaurreko batzuk hautsi izana (Erreg. zk.: 75-02)
- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 102-02)
- Bide publikoko zuhaitzetatik jausitako hostoek eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 40-02)
- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 124-02)

Zaborrik eragiten ez duten lonjengatik zaborren zergak ordaintzeak eragindako nahigabea (Erreg. zk.: 36-02)

#### **2.3.2.1.3 ORIENTAZIOAK**

- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 78-02)
- Egoera txarrean zegoen zaborren seinaleztapen-barrak haren autoari emandako kolpe bat konpontzeko gastuak ordaintzeko eskaera (Erreg. zk.: 149-03)
- Lokal pribatu batean azalduko arrailak Udalak bide publikoan eginiko obren ondoren (Erreg. zk.: 43-02)
- Judizmendiko Aparkalekuaren plazen giltzen entregan izandako atzerapena (Erreg. zk.: 151-03; 155-03; 162-03; 174-03; 179-03; 180-03)

#### **2.3.2.2 Diruzaintza/Zerga-bilketarako Zerbitzua**

##### **2.3.2.2.1 GOMENDIOAK**

- Okerreko premiamendu-jakinazpena, ez baitzuen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainketari buruzko alde aurreko jakinarazpenik jaso (Erreg. zk.: 52-02)
- Jakinarazi beharreko pertsonaren familiarreko bati oker eginiko tasa-ordainketaren jakinarazpena (Erreg. zk.: 111-02)
- Zonalde debekatuan ibilgailu bat aparkatzeagatik isuna, baina zonaldea ez zegoen seinaleztatua zigorra jarri ziotenean (Erreg. zk.: 117-02)

##### **2.3.2.2.2 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEA**

- Isunak ez ordaintzeari buruzko bahitura-jakinazpen bat bitan kobratzea (Erreg. zk.: 18-02)

#### **2.3.2.3 Zerga Kudeaketarako Zerbitzua**

##### **2.3.2.3.1 GOMENDIOAK**

- Bide Publikoa okupatzea dela-eta tasa kobratzeko sistema okerra (Erreg. zk.: 137-02)

### **2.3.3 INGURUMEN-SAILA.....70. orr.**

#### **2.3.3.1 Ingurumen Kudeaketarako Zerbitzua**

#### **2.3.3.2 Ingurumen Zerbitzua-Kontrol Jarduerak**

##### **2.3.3.2.1 GOGORARAZPENA**

- Zarata gehiegi izanagatik lehendik ere salatutako lokala, gaur egun alokatzeko dagoena (Erreg. zk.: 129-02)

##### **2.3.3.2.2 EZESPENAK**

Haren etxeko etxabeetan dagoen taberna bateko Jabeen Komunitate bateko bizilagunei eragindako usainak (Erreg. zk.: 60-02)

##### **2.3.3.2.3 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEAK**

- Ostalaritza-lokalek gaueko orduetan eragindako zaratak (Erreg. zk.: 57-02)

##### **2.3.3.2.4 ORIENTAZIOAK**

- Gasteizko plaza batean monopatinekin eragindako zaratak (Erreg. zk.: 84-02)

##### **2.3.3.2.5 BITARTEKOTZAK**

- Jarduera-lizentzia egokia ez duen lantegiak zarata ozen eta gogaikarriak eragiten dizkie bizilagunei (Erreg. zk.: 136-02)

#### **2.3.3.3 Cespa**

##### **2.3.3.3.1 GOMENDIOAK**

- Kontserbazio-egoera txarra eta zikinkeria aisia-zonalde batean, AMAYA Udal Zentroaren alboan (Erreg. zk.: 109-02)
- Zuhaitzen inguruko belar-moztea ez da behar bezalako (Erreg. zk.: 19-02)
- Zuhaitz-mozketa posiblea auto-aparkaleku bat egiteko (Erreg. zk.: 63-02)
- Lokal bat normalean urez betetzen da CESPAn langileek kalea ureztatu ondoren (Erreg. zk.: 108-02)

#### **2.3.3.4 Parke eta lorategien zerbitzua**

### **2.3.4 UDALTZAINGOA.....81. orr.**

#### **2.3.4.1 GOMENDIOAK**

- Kanean aske dabilzan txakurrei buruzko problematika, eta baita ere gorotzak ez biltzeari buruzkoa (Erreg. zk.: 32-02; 39-02; 69-02; 167-03)

Ibilgailu batek izandako kolpea, udal-garabiak hura jaso ondoren (Erreg. zk.: 81-02)

- Bilurrak erabiltzeari buruzko azalpen zehatzak eta bereziak (Erreg. zk.: 53-02)
- Gauzez ibilgailu eta ziklomotorrekin lasterketak egitea (Erreg. zk.: 118-02)
- Bizilagunei eragozpenak eragiten dizkien etxebizitza batetik datozen zaratak (Erreg. zk.: 130-02)
- Prostituzioaren jarduera sistematikoak eragindako eragozpenak Betoñoko zonaldean (Erreg. zk.: 22-02)

#### **2.3.4.2 EZESPENAK**

- Ibilgailuaren zamalanak oinezkoentzako zonaldean egiteko zailtasuna (Erreg. zk.: 90-02)
- Nahigabea Alaba Jeneralaren kaleko mutiloiak direla-eta (Erreg. zk.: 95-02; 98-02)
- Gasteizko kaleak gehiegi peatonalizatu izana, eta horren ondorioz ibilgailuentzako aparkaleku gutxiago daude (Erreg. zk.: 79-02)

#### **2.3.4.2 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEA**

- Prostituzioaren jarduna eraikin batean, zaratak eta bizilagunei segurtasunik eza eraginez (Erreg. zk.: 58-02)

#### **2.3.4.3 BITARTEKOTZAK**

- Arazoak Udaltzaingoaren jarduketarekin, zamalanen ordutegiari dagokionez (Erreg. zk.: 55-02)

#### **2.3.4.4 ORIENTAZIOAK**

- Isuna bide publikoan pixa egiteagatik (Erreg. zk.: 172-03)

•

### **2.3.5 GIZARTEGINTZA SAILA.....92. orr.**

#### **2.3.5.1 Komunitate Jarduerarako Zerbitzua**

##### **2.3.5.1.1 GOMENDIOAK**

- Bizilagunei eragozpenak eragiten dizkieten etxebizitza batetik datozen zaratak (Erreg. zk.: 130-02) –(azalpena Udaltzaingoaren Saila-Gomendioak atalean)
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei informazioa eskatzea (Erreg. zk.: 141-02)

##### **2.3.5.1.2 EZESPENAK**

- Etxebizitzatik botatzea eta larrialdiko pisua eskatzea Gizartegintza Sailari, eta honen ukapena (Erreg. zk.: 01-02)
- Larrialdiko pisu bat eskatzea, bizi zeneko alokatzeko etxebizitzatik botatzeko jakinarazpena jaso ondoren (Erreg. zk.: 07-02)

### **2.3.5.1.3 DERIBAZIOAK**

- Oinarrizko errenta eta AES etetea Gizarteratze-hitzarmena ez betetzeagatik (Erreg. zk.: 126-02)

### **2.3.5.1.4 ORIENTAZIOAK**

- Egoera psikiko larrian dagoen pertsona batek auzoan eragindako zaratak (Erreg. zk.: 105-02)

- 

### **2.3.5.2 Haurtzaro eta senitarte zerbitzua**

- Adingabeko bat abandonatzeko arriskua eta gizartegintzako eskaria (Erreg. zk.: 49-02)

### **2.3.5.3 Gizarteratze-zerbitzua**

#### **2.3.5.3 EZESPENA**

- Sindikoak Udalaren aurrean bitartekotza-lana egiteko eskaria Vitoria-Gasteizko presoen problematikari dagokionez (Erreg. zk.: 23-02)

## **2.3.6 ETXEBIZITZARAKO ETA HIRI-BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA.....99. orr.**

### **2.3.6.1 GOMENDIOAK**

- Etxebizitza-promesa, Alde Zaharrean dagoen etxebizitza bat eraistearen ondorioz (Erreg. zk.: 96-02)
- Bizilagunei arazoak eragin dizkien bizilagun batek eginiko obrak (Erreg. zk.:56-02)
- Erabilera publikoko tutuaz baliatzea partikular bati gasa jartzeko (Erreg. zk.: 165-03)

### **2.3.6.2 EZESPENAK**

- Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako eragintegiarekin sinaturiko salmenta-kontratua baliorik gabe uztea (Erreg. zk.: 13-02)

### **2.3.6.3 ORIENTAZIOAK**

- Etxebizitza zaharberritzeko premia, izan duen narriadura dela-eta (erreg.zk.: 166-03)

## **2.3.7 MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA.....106. orr.**



#### **2.3.7.1 EZESPENAK**

- Ibilgailuaren zamalanak oinezkoentzako zonaldean egiteko zailtasuna (Erreg. zk.: 90-02)
- Nahigabea Alaba Jeneralaren kaleko mutiloiak direla-eta (Erreg. zk.: 95-02; 98-02 azalpena Udaltzaingoa-Ezespenak atalean)
- Gasteizko kaleak gehiegi peatonalizatu izana, eta horren ondorioz ibilgailuentzako aparkaleku gutxiago daude (Erreg. zk.: 79-02 azalpena Udaltzaingoa-Ezespenak atalean)

#### **2.3.8 OSASUN ETA KONTSUMO ZERBITZUA-DEMSAC.....111. orr.**

##### **2.3.8.1 GOMENDIOAK**

- Udalaren jarduketa subsidiarioa auzo-patio bat garbitzeko eta utzarazteko arazoa dela-eta (Erreg. zk.: 24-02)
- Animalien babesa zirku-ikuskizunetan (Erreg. zk.: 112-02)
- Gasteizko kaleetako ikuskizun ibiltarrietan animaliak erabiltzeko debekua (Erreg. zk.: 112-02)

##### **2.3.8.2 EZESPENAK**

- Animalien babesa (Erreg. zk.: 112-02)
- Higiene-egoera txarra Jabeen Komunitate baten alboan dagoen lur-zati batean (Erreg. zk.: 82-02)
- Bizilagun baten desadostasuna Kontsumitzailearen Bulegoaren erantzuna dela-eta (Erreg. zk.: 89-02)

##### **2.3.8.3 DERIBAZIOAK**

- Salaketa bizilagunek eragindako zaratak direla-eta (Erreg. zk.: 143-03)

##### **2.3.8.4 ORIENTAZIOAK**

- Animalien babesa zirku-ikuskizunak (Erreg. zk.: 112-02)

##### **2.3.8.5 BITARTEKOTZAK**

- Garaje-plaza bat urez betetzen da hondakin-uren filtrazioak direla-eta (Erreg. zk.: 131-02)

#### **2.3.9 AMVISA.....120. orr.**

##### **2.3.9.1 EZESPENAK**

*Kanalizazio-obren ondorioz ur-kontagailua lekualdatzea, eta horrek ur-kontsumo handiagoa eragin du (Erreg. zk.: 25-02; 26-02; 48-02)*

- Lokal bateko sotoa urez betetzea, ur fekalen ondorioz (Erreg. zk.: 83-02)

**2.3.10 FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA.....122. orr.**

**2.3.10.1 Hautaketa Zerbitzua**

**2.3.10.1.1 EZESPENAK**

- LEPeke proba batzuetan antzinasun-egunak baloratzea (Erreg. zk.: 38-02)

**2.3.10.1.2 BAZTERTZEA/EZ-ONARTZEA**

- Vitoria-Gasteizko Udalaren 2000-2001 LEParen Kontrol Ofizialentzako azterketak (Erreg. zk.: 14-02)
- Funtzionarioen lan-kontua (Erreg. zk.: 62-02)
- 

**2.3.11 KIROL-SAILA.....124 orr.**

**2.3.11.1 Kirol Zerbitzua**

**2.3.11.1.1 EZESPENAK**

- Vitoria-Gasteizko Udalak Betoño kirolgunea doan uztea Deportivo Alavés futbol-klubari (Erreg. zk.: 15-02)
- Udal-zerbitzu publikoen kontratazio bat esleitzeko lehiaketa publikotik kanpo geratu da oinarrietan ezarritako irizpideak ez betetzeagatik (Erreg. zk.: 80-02)

**2.3.11.2 Kirol-ekintzen programazio eta antolakuntza zerbitzua**

**2.3.11.2.1 GOMENDIOAK**

- Tratu-berdintasuna gizon eta emakumeentzako San Silvestre Herri Lasterketan (Erreg. zk.: 106-02)
- 

**2.3.12 KULTURA-SAILA.....129. orr.**

**2.3.12.1 Udal Artxiboa**

**2.3.12.1.1 GOMENDIOAK**

- Hiriko herritar batek minbiziari buruz idatziriko liburu baten sustapena (Erreg. zk.: 31-02)

**2.3.12.2 Kultur jarduerak**

**2.3.12.2.1 GOMENDIOAK**

Udal-areto bat ukatzea, udal-administrazioak lehendik baimendu ondoren (Erreg. zk.: 147-03)

**2.3.12.3 Biltzar eta turismo zerbitzua**

**2.3.12.3.1 GOMENDIOAK**

- Akats tipografikoa Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren seinaleetan (Erreg. zk.:145-03) –(azalpena Lehendakaritza Saila-Euskara Zerbitzua-Gomendioak atalean)
- 

**2.3.13 LEHENDAKARITZA-SAILA.....132. orr.**

- 2.3.13.1 Gizarte Etxeen Zerbitzua**
  - 2.3.13.1.1 EZESPENAK**
    - Udal-aretoak uzteko araudia eta dagozkien prezioak (Erreg. zk.: 156-03)
  - 2.3.13.2 Euskara Zerbitzua**
    - Akats tipografikoa Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren seinaleetan (erre.-zk.: 145-03)
  - 2.3.13.3 Berdintasunerako zerbitzua**
    - 2.3.13.3.1 GOMENDIOAK**
      - Berdintasun-tratua gizon eta emakumeentzako San Silvestre Herri Lasterketan (Erreg. zk.: 106-02) -(azalpena Kirol Saila-kultur ekintzak programatu eta kontrolatzeko zerbitzua-Gomendioak)
- 2.3.14 21. ZABALGUNEA.....135. orr.**
  - 2.3.14.1 BITARTEKOTZAK**
    - Lurra desjabetzea behar den baimenik gabe (Erreg. zk.: 70-02)
- 2.3.15 TEKNOLOGIA BERRIEN SAILA.....136. orr.**
  - 2.3.15.1 GOMENDIOAK**
    - Foro bat sortzea herritarrek bertan aktiboki parte hartzeko espazio gisa (Erreg. zk.: 94-02)
- 2.3.16 LEGE-ZERBITZUAK.....136. orr.**
  - 2.3.16.1 DERIBAZIOAK**
    - Zoladuraren egoera txarra dela-eta kalean erortzea (Erreg. zk.: 124-02) –(ikus azalpena Ogasun Saila-Ondare Erantzukizuneko Atala-Ezespena atalean)
    - **2.3.16.2 BESTE BATZUK**Jabetza pribatuko lursail bateko bide publikoaren zati bat uztea beste jabe bati (Erreg. zk.: 87-02)
    -
- 2.3.17 TUVISA.....137. orr.**
  - 2.3.17.1 EZESPENAK**
    - Txagorritxuko 13 linea berriko autobus-geltoki berri baten eskaria (Erreg. zk.: 59-02)
    -
- 2.3.18 BESTE BATZUK: EZ DAGO DAGOKION ZERBITZURIK.....138. orr.**
  - 2.3.18.1 DERIBAZIOAK**
    - Espetxe-politika berriz aztertzea ETako presoei dagokienez (Erreg. zk.: 09-02)

- Salaketa TBko iragarki bateko publizitate sexista dela-eta (Erreg. zk.: 77-02)
- Jabeen komunitate bateko auzokoen erantzukizun ekonomikoari buruz, komunitateko kide batek ez baititu ordaindu nahi konponketa komunak (Erreg. zk.: 08-02)
- Auzo-konponketak Jabeen Komunitate batean eta auzo-arazoak kide batek ordaintzen ez duelako (Erreg. zk.: 27-02)

#### **2.3.18.2 BAZTERTZEAK/EZ-ONARTZEAK**

- Gure hiriko banketxe batek langile bat lanetik bota izana (Erreg. zk.: 02-02)
- Arazoak Jabeen Komunitateko presidentearekin (Erreg. zk.: 21-02)
- Motorraren piezak lapurtu izana (Erreg. zk.: 34-02)
- Kalteak Jabeen Komunitateko eraikin baten fatxadan (Erreg. zk.: 46-02)

#### **2.3.18.3 BITARTEKOTZAK**

- Bere etxebizitzan eragindako kaltean Jabeen Komunitateari eginiko erreklamazioa (Erreg. zk.: 06-02)
- Bizilagunen artean eragindako zaratengatiko eragozpenak direla-eta bitartekotza-eskaera (Erreg. zk.: 76-02)
- Arropa zabaltzeko lekua aldatu izanagatik irekitako hirigintza-defentsako espedientea (Erreg. zk.: 29-02)
- Erabateko ezintasuna duen auzokoak ez du Jabeen Komunitateko Presidente-kargua hartu nahi (Erreg. zk.: 37-02)

Etxebizitza batean prostituzio-leku bat instalatzeak arazoak sortzen dizkio Jabeen Komunitateari (Erreg. zk.: 169-03)

#### **2.4 ERABAKITZEKE**

**DAUDEN**

**EBAZPENAK.....146. orr**

#### **2.5**

**3. AZTERLAN ESTADISTIKOAK.....163. orr.**

**4. AZTERTZEKO DAUDEN GAIK.....174. orr.**

### **5. ERANSKINAK (II. Tomoan)**

#### **5.1 Gomendioak**

#### **5.2 Ezespenak**

#### **5.3 Eginiko galdera-sortak**

##### **5.3.1 Udaltzaingoa**

##### **5.3.2 Suhiltzaileak**

#### **5.4 Dibulgazio-artikuluak**

#### **5.5 Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoari buruzko prentsa-txostena**

#### **5.6 Ebaluatzeko galdera-sorta**

## **1. 2002-2003 MEMORIAREN HITZAURREA**

Gasteizko Udalak 2002ko otsailaren 15ean Javier Otaola Bajeneta (Bilbo, 1956) izendatu zuen Herritarren Defendatzaile edo Sindiko, eta irudi berria dugu hori euskal hiriburuetan.

Irudi hau herritarrek udal-zerbitzuekin dituzten harremanetan orientatu eta informatzeko sortu zen, eta Vitoria-Gasteizko herritarrek zerbitzuei buruz dituzten kezak atenditzeko, informazioa emateko eta Udalarekin dituzten harremanetan bitartekotza-lanak egiteko. Udalkudeaketaren menpeko zerbitzuen kalitate-organoa izatea du helburu, eta administrazio-praktika egokiak ahalbidetzea, 2000ko Hiriko Giza Eskubideen Gutunaren ildotik, tokian tokiko boterea alde batera utzita giza eskubideak zainduz.

Bitartekariaren irudia (Ombusman) zaharra da: XIX. mendeko hasieran eman zituen lehenengo urratsak iparraldeko herrialdeetan, eta beste antolamendu juridikoetara zabaldu zen. 1981ean Herriaren Defendatzailearen Erakundea sortu zen estatu-mailan, eta 1985ean Arartekoa gure erkidego-mailan.

1998an, Vitoria-Gasteizko Udalak **Bartzelonako Konpromisoa** sinatu zuenean, bultzatu zen giza eskubideen deklarazio handiak herritarren eguneroko bizitzara hurbiltzea. Manifestu honen ondorioz **Hirian Giza Eskubideak Zaintzeko Europako Gutuna** etorri zen, 2000. urtean sinaturikoa; bertan, Europako 41 hirik konpromisoa hartu zuten alerta-mekanismoak sortzeko giza eskubideen alde, eta bereziki Defentsa Zibila besteak beste.

1999ko Arartekoaren txostena Sindikoa sortzearen alde zegoen, biak ere irudi osagarriak baitira, eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzen dute, gomendatze eta bitartekotzako jardueraren bidez. Vitoria-Gasteizko Udala Euskal Autonomia Erkidegoan erakunde hori sortzen lehena izan bada ere, beste hainbat aurrekarik bi karguen arteko koordinazio egokia egiaztatzen dute. Katalunian hamar urte daramatzate harmonian elkarrekin bizitzen, eta hogeita bost udaletzek sartu dute euren organigraman Herritarren Defendatzailearen irudia.

Herritarren Defendatzaileak 2002ko apirilaren 19ko ezohiko udalbatzarrean hartu zuen bere kargua, eta udalbatzaren hiru bostenak daude haren alde.

2002-2003 memoria honetan Vitoria-Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erakundeak hasierako hilabeteetan eginiko jarduketak azalduko ditugu, 2002ko maiatzetik aurtengo otsaileko azken eguna arte.

2002-2003 memoria bost zatitan egituratuta dago.

**Lehen atala**, Memoriaren egituraren azalpen-sarrera txikia baino ez da.

**Bigarren atala**; bertan Vitoria-Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak denboraldi horretan eginiko jarduera argitzen da, hiru zatitan bereizita: (1) Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren aurkezpena, (2) agintaldi bat osatzen duten orientazio eta aholkularitza jardueren azalpena eta (3) Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Ebazpenak izan dituzten jardueren azalpena, Sailen arabera ordenatuta. Azken zati hau izango da Memoriaren alde nagusia, emaitzarik esanguratsuen baina Defentsak jarduten duen kalitate demokratikoaren kontrolaren ikuspuntutik.

**Hirugarren atala**, eta bertan Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan eginiko kexa eta kontsultei buruz eginiko azterlan estatistikoa aztertzen da.

**Laugarren atala, Eranskinak** biltzen ditu, eta bertan barne hartzen dira jasotako kexei buruz udaleko sail eta zerbitzuek eta erabiltzaileek eginiko gomendio eta ezespenak.

Atal honetan Udaltzainei eta Suhiltzaileei eginiko galdera-sorten emaitzak ere aurkezten dira, Bulegoan egiten ari diren azterlanean.

Eranskin gisa, prentsa-txosten bat bertan bilduta dago Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren hedadura-mailari dagokionez, bai eta Herritarren Defendatzaileak berak eginiko dibulgazio-artikuluak ere. Azkenik, atal honetan azalduko da Bulegoaren erabiltzaileari nola planteatu zaien galdera-sorta bat, Vitoria-Gasteizko herritarrek ebalua dezaten Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen ekintza bera ere. Dena den, lehen Memoria horretan ezin ditugu oraindik emaitzak aurkeztu, ez baita nahikoa denbora igaro informazio nahikoa bildu ahal izateko.

Azkenik, **bosgarren atalean**, azalpen bat egingo dugu datozen ekitaldietan Bulego honetan jorratu nahi diren aztertzeke dauden gaii buruz.

Dokumentu honetan azaltzen dugun beteriko zeregina Vitoria-Gasteizko Udalak bere zerbitzu publikoen kalitatea mantendu eta hobetzeko eta Vitoria-Gasteizko herritarrei arreta eskaintzeko baliagarri izango delakoan,

Eskerrik asko.

## **2. VITORIA-GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA**

### **2.1 SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN BULEGOAREN AURKEZPENA**

Lehen hilabete hauetan, hainbat jarduketa egin dira Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erakundea sortu zenetik haren aurkezpenari dagokionez, Vitoria-Gasteizko herritarrek haren berri izan dezaten, gauza berria dela kontuan izanda.

Herritarren Defendatzailearen lana 2002ko apirilaren 19an hasi zen, Javier Otaola Bajenetak bere kargua hartu zuenean Vitoria-Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzaile lanetan.

Erakundea abian jarri zen lehenengo hilabetean Sindiko edo Herritarren Defendatzaile izendatu berriari agindutako zereginak 010 udal-zerbitzuko instalazioetan bete zituzten, nahikoa leku baitago bertan horretarako.

Baina, azkenik, 2002ko ekainean jarri zen Sindiko edo Herritarren Defendatzailea gaur egungo Bulegoan, Opera Eraikinean, eta bertan dauka beste bi pertsonak osaturiko taldea: laguntzaile bat, gizarte-laguntzako zerbitzuei dagokienez eta Udaletxearen egituren ezagutzari dagokionez esperientzi handikoa, eta administrari laguntzaile bat, erabiltzaileak artatzeko gaitasunarekin, eta baita ere euskaraz aurkezturiko idazkiak eta eskaerak, eta horrek Eusko Legebiltzarraren Hizkuntz Normalizaziorako Legean aurreikusitako gutxieneko estandarrak bermatzen ditu. Zuhurtasun-printzipioari jarraiki, eta nahiz eta udal-aurrekontuan taldeari laugarren pertsona bat gaineratzea aurreikusita zegoen, Sindikoaren irudia sortu eta sei hilabete geroago ikusi zen beharrezkoa zela goi-mailako teknikari bat gaineratzea, Bulegoaren lan propioetan laguntzeko.



Erakundea herritarrei hurbiltzeko, hainbat informazio-hitzaldi egin dira (“Giza Eskubideak Hirian eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailea” izenburuarekin) Vitoria-Gasteizko Gizarte Etxe guztietan, herritarrak euren ingurune hurbilenera gerturatzeko, Erakundea berria dela kontuan hartuta.

Horretarako, prozesu honetan hainbat bilkura izan ditugu Udaletxeko Sailekin: Hezkuntza Saila, Kultura, Kirola, Gizartegintza, Lehendakaritza, Udaltzaingoa, Suhiltzaileak, Hirigintza, Ingurumena, Teknologia Berriak...eta dagozkien menpeko zerbitzuekin.

Bilkurak egin dituzte baita ere zenbait Udal Erakunde Autonomorekin; Hiri Berrikuntzarako Eragintegia, 21 Zabalgunea, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, 2010 Plan Estrategikoa, Amvisa, Cespa..... Lankidetzat estua izan dute Ingurugiro Gaietarako Ikastegiarekin –IGI-, eta elkarlanean aritu da Plan Estrategikoaren arlo batekin, Herritarren Bizikidetzat atalari dagokionez, lan-mahaietan, foroetan eta hitzaldien bidez.

Erakundea herritarrei aurkezten zitzaien bitartean, hainbat herritar eta udal-zerbitzuen erabiltzaile bertaratu dira Bulegora kexak aurkeztuz, Udal Administrazioak emandako zerbitzuarekin haserre, eta informazioa eskatuz administrazioarekin berarekin loturiko hainbat gairi buruz.

Erakunde hau ezarri zenetik, hainbat laguntza egin dira, **295** guztira; horietatik **101 telefono-deiak**, **182 Bulegoan bertan eginiko laguntzak**, eta beste **12 mezu elektronikoko**, mota desberdineko galderak eginez, bakoitzak bere kasu zehatzari buruz galdetuz edo hainbat arazo jakinaraziz, bertan nola jardun behar duten adierazi baitzaie. Azken finean, KONTSULTA gisa definitzen dugu.

Eginiko laguntza guztietatik, hau da, **295, 70 kontsulta atenditu dituzte**, eta horietakoren bat kexa bihurtu da. Telefonoz jasotzen dituzte, eta Bulegora bertaratzen dira. Aleren bat posta elektronikoz edo ohiko postaz ere jaso dituzte.

Ondokoak dira Bulego honek egindako kontsulta-adibideak; jabeen komunitate bateko auzokoa kexatu egin da bere etxeko etxabeetan dagoen okindegi batek eragindako zaratak direla-eta. Udalarari adierazten zaio idatzizko kexa bat aurkez dezala Ingurumen Sailean, beste adibide bat; herritar batek adierazi du salaketa-pilaketa duela auzokoekin moldatzen ez delako. Salaketen justifikazio bat eskatzen du, obra gerarazi baitiote. Demac-Bitartekotzat Zerbitzura bideratu dute, eta aholkatu diote Hirigintza Sailari idazki bat zuzentzea, justifikazio bat eskatuz

Era berean, eginiko laguntzen guztirakotik, 2003ko otsailaren 28a arte, egun horretan eman baita amaitutzat 2002-2003 Memoria hau, **181 espediente**<sup>1</sup> ireki dira, herritarrek izenpeturiko dagozkien eskaerekin.

Harremanak izan ditugu Vitoria-Gasteizko hainbat talderekin, hiriko herritarrengana hurbiltzeko beste modu bat bilatuz; horien artean auzokoen elkarteak, merkatarien elkarteak, kirol-federazioak, minusbaliatuen elkarteak eta abar daude.

Era berean, bilerak egin dituzte zenbait alderdirekin, esate baterako FAVA, AMBA eta abar.

Hainbat jardunalditara ere bertaratu gara, zenbait erakunde, elkarte edo taldek osaturiko Biltzarretara, Vitoria-Gasteizen edo bestelako hirietan eginikoak, esate baterako Donostian eta Bartzelonan, hiri horietara bertaratu baikara Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren ikuspegia adierazteko.

Herritarrekin harremanak izateko jarduketa-ildo horri jarraiki, Udalak ezarritako herritarrek parte hartzeko tresnen zati izan gara, hau da, Parte-hartze Kontseilua-Berdintasun Kontseilua, Herritarren Parte-hartze Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua....

Bulegoak hainbat topaketa ere izan ditu Suhiltzaileen Kidegoko eta Udaltzaingoko udal-funtzionarioekin haien instalazioetan, eta bertan Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak bere lan egiteko modua aurkeztu du, eta profesionalen hainbat iradokizun jaso dituzte udal-administrazioaren kalitate hobea lortzeko, euren zerbitzuei dagokienez.

Topaketa hauetatik profesionalen zenbait ondorio atera ditugu, galdera-sorta baten bidez, zehazki Suak Itzaltzeko Zerbitzuari eta Udaltzaingoari eginikoa zerbitzu beraren kalitateari buruz (ikus erantsitako eranskinak).

Udaltzaingoko profesionalak eginiko lana hurbilgotik ezagutzeko Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak patruila-lanak egin ditu gaueko orduetan.

Udaltzaingoko profesional batzuekin, euren jarduketetan aurre egin beharreko zailtasunak hurbilgotik ezagutzeko.

Komunikabideen bitartez ere zabaldu dugu gure bulegoa, estaldura handia eman baitiote gure abian jartze eta ondorengo garapenari eskatu diguten eta eskatu diegun guztirako (El Correo, El Periódico de Álava, El País, Deia, El Mundo, Egunkaria, TVE, Álava 7, Canal Gasteiz, Radio Vitoria, Cadena-Ser, Radio Intereconomía, Onda Cero eta abar, besteak beste).

---

<sup>1</sup> **Oharra:** Espedienteaz ari garenean, behar bezala beteriko kexak hartzen ditugu kontuan.

Era berean, Udal Kazeta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen jarduketan berri ematen ari da, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 19. artikuluan ezarrita dagoenez.

Ondokoetara bertaratu gara: "Hiri Jasangarriari buruzko Jardunaldiak", Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako politika lokalei buruzko Jardunaldiak", "Giza Eskubideak Zaintzeko Europako Gutunaren Garapenari buruzko Eztatxida-foroa", "Euskararen normalizazioari buruzko Jardunaldiak", "Giza Balioei buruzko Jardunaldiak", "OMICS-en I. Biltzar Nazionala"...

Bertaratu garen Jardunaldien artean, azpimarratu behar da Javier Otaola Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hizlari bezala parte hartu duela Giza Balioei buruzko Jardunaldietan (Herri Kulturako Zentroek antolaturikoak), eta baita ere gizon eta emakumeen arteko Berdintasunerako tokian tokiko Politikei buruzko Jardunaldietan ere (Vitoria-Gasteizko Udalak antolaturikoak). Era berean, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak komunikazio bat egin zuen "Herritarren Bizikidetzari" buruzko Plan Estrategikorako.

Prozesu honetan martxan jarri dugu herritarrek parte hartzeko foro bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoaren web-orrian, herritarrek bide berri bat izan dezaten Erakunde horretara jotzeko eta euren zalantzak eta kezak aurkezteko edo Vitoria-Gasteizi dagokion udal-administrazioari buruzko edozein gai eztabaidatzeko.

Bulego honetan garaturiko jarduketa guztiek herritarren banakako edo taldeko kontsultak edo kezak atenditzea dute helburu, euren legezko eskubide eta interesak ukitzen dituztenak Vitoria-Gasteizko Udalaren jarduketa-esparruari dagokionez, eta baita ere gomendioak, iradokizunak eta oroigarriak egitea Vitoria-Gasteizko Udalaren edozein zerbitzuri eta erakunde eta enpresa publikori, herritarren interes eta eskubideei dagokienez; adostasun eta adiskidetze formulak proposatzea partikularren eta udal-administrazioaren artean horrela dagokionean; kasu jakinetan ofiziozko gomendioak ematea eta txosten bereziak Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzarak hori eskatuta; eta baita ere bitartekotza-lanak betetzea alderdien artean, betiere hori nahi badute.

## 2.2 **INFORMAZIO, ORIENTAZIO ETA AHOLKULARITZA JARDUERA**

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari esleituriko eskumenen artean herritarrei aholku ematea dago, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 18. artikuluan ezarrita dagoenez:

**18. art.:** *Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen egitekoa herritarrekin aholkularitza, bitartekotza, informazio eta esku-hartze zerbitzu bat prestatzea da Vitoria-Gasteizko Udalarekin, bere Udaleko Sozietate Anonimoekin, Udal Erakunde Autonomoekin, patronatuekin, fundazioekin eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako eiteekin.*

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoa ezarri zenean azpimarratzekoa da herritarrei eginiko aholkularitza-lanaren garrantzia.

Aholkularitza-lanean barne harturiko jarduketan artean erreklamazio-idazkiak egitea zehaztu da Udaleko Erregistroan aurkezteko, lehendik ez baita kexa aurkeztu Udaletxean; badira nabarmendu beharreko zenbait kasu, udal-aparkaleku bateko garaje-plazak uzteko atzerapena, esaterako, edo hustubideak berritu beharra Jabeen Komunitate batean.

Herritarrei aholkatzeko beste bide bat erabiltzaileek Vitoria-Gasteizko hirian hainbat gairi buruz eskaturiko informazioa da, ondokoa, esate baterako: babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzak eskuratzeko baldintzei buruzko informazioa, isun bidegabeetan deskargu-pleguak nola egin eta abar...

Azkenik, kontsultak hartzen ditugu aholkatzeko modu bezala, **70** guztira. Erakundea ezarri zenetik, telefono-dei ugari jaso dugu, Bulegora bertaratzeak, eta baita ere, neurri txikiagoan, mezu elektronikoak galdera desberdinak eginez. Ondoko hau definitzen dugu KONTSULTA bezala.

*“ Zerbaiti buruz idatzita edo hitzez eskatzen den edo ematen den iritzia edo irizpena”.*

Ondoren, bulegoan eginiko kontsulteren zerrenda erakutsiko dugu.

### **Aholkularitza kontsultak egiteko**

1.- Atariaren konponketa ordaindu nahi ez duen Komunitate bateko auzokoa.

**2.-** Jabeen komunitate bateko bizilaguna kexu da bere etxeko etxabeetan dagoen okindegi batek eragiten dituen zaratak direla-eta

Udaletxera bidali dugu idatzizko kexa bat aurkez dezan Ingurumen Sailean.

**3.-** Bizilagun batek adierazten digunez eztabaida izan du gaiaren arduradunekin kexa bati buruz, lursail bat hasieran zegoen bezala uzteko, jabeak udal-administrazioari eginiko emakidaren ondoren. Lursaila ez zuten behar bezala utzi.

Udalaren Erregistroko bidean jarri dugu kexa formala egin dezan Ingurumen Sailean.

**4.-** Jabeen Komunitate bateko lehen solairuko bizilagun batek jakinarazi digunez, estalgarri batek ez dio arropa zabaltzen uzten.

Udaletxera bidali dugu kexa formala aurkez dezan Ingurumen Sailean.

**5.-** Jabeen komunitate bateko bizilagun bat kexu da jatetxe txinatar bateko usainen ondorioz, eta jatetxeko tximinia teilaturaino altxatzea eskatu du.

Udaletxera bidali dugu kexa formala egin dezan Ingurumen Sailean.

**6.-** Herritar bat kexu da Forondako Atariko obrak bukatuta egon arren pasabidea zabaldu ez dutelako. Udaletxera bidali dugu salaketa aurkez dezan Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuan.

**7.-** Jabeen Komunitate bateko bizilagunak bere nahigabea adierazi du bere atariko administratzaileak pertsona bat ataria garbitzeko eta beste bat kontuak eramateko jarri duelako. Salatzailea ez dago ados eta gure bulegoetara etorri da orientazioa jasotzera.

**8.-** Bizilagun batek informazioa eskatu du antenak jartzeko eraikinetako fatxadetan.

DEMSAC-era bidali dugu, eta Erregistroan antenen ordenantzaren informazio-eskaria egitea ere eskatu diogu.

**9.-** Herritar batek kexa bat egin du, petrolio-enpresen ikastaro bati buruz komunikabideetan azaldutako iragarki faltsu bat dela-eta.

DEMSAC-era bidali dugu.

**10.-** Herritar batek kexa bat aurkeztu du, bere bizilagunak txapa bat jarri duela adieraziz, terrazatik duen ikuspegia kenduz. Jabetzaren Ganbara ere esku hartzen ari dela esan digu.

DEMSAC-era bidali dugu.

**11.-** Bizilagun batek bere nahigabea adierazi du bere bizilagunekin ez moldatzeagatik izaten ari den salaketa-pilaketa dela-eta. Salaketen justifikazioa eskatzen du, egiten ari zen obrak gerarazi baitizkiote.

DEMSAC Bitartekotza Zerbitzura bideratu dugu, eta hartarako dagoen Zerbitzua Hirigintza Saila - Eraikuntzen Erregimen Juridikoa da.

**12.-** Administrazioaren funtzionario batek Udaleko gizarte-langileren 2 lanpostu aldatzea eskatu du.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera, funtzionarioen lan-arazoak ez dira zerbitzu honen eskumena. Funtzio Publikoaren Sailera igorri dugu.

**13.-** Vitoria-Gasteizko herritar batek bere nahigabea jakinarazi digu Fermin Lasue kalean dagoen zikinkeria dela-eta, ez baitituzte zaborrak ateratzeko orduak errespetatzen.

Udalaren Erregistrora bidali dugu kexa formala aurkez dezan Bide Publikoaren Sailean.

**14.-** Jabeen Komunitate batek bizilagun baten ke-erazgailu batek eragindako kalteak jakinarazi dizkio erakunde honi, koipe-orban gisa agertzen direnak.

Eraikuntzen Zerbitzuari zuzendutako gutun bat idazteko lagunduko zaie, eta bertan egingo dute kexa formala Hirigintza Sailean.

**15.-** Herritar batek bere atsekabea adierazi du kaleen jatorrizko izena errespetatzen ez delako, Zabalganako zonalde berriaren kasuan gertatzen ari den bezala.

Kultura Sailaren telefono-zenbakia eman diogu, eta bertan emango diote kaleen izena.

**16.-** Herritar batek salatu egin du motorrak eta bizikletak espaloietan sartzen direla eta oinezkoak oztopatzen dituztela.

**17.-** Emakume batek galdetzen digu jabeen komunitate bateko patioan dauden zuhaitzak moztu daitezkeen; haren baimenik gabe landatu zituzten eta orain molestatu egiten dute, gutxi ikusten baita, txoriak daude, zikinkeria...

Udaletxera bidali dugu idatzizko eskari bat egin dezan, baina Jabeen Komunitate guztiaren adostasunarekin.

**18.-** Ibilgailu baten gidariak jakinarazi digu gehiegizko abiaduragatiko isuna jarri diotela. Guregan jo du isuna ken diezaioten.

Kexa egin zenean, deskargu-orriaren balorazioaren zain zegoen.

**19.-** Bizilagun batek erakunde honetara jo du errenta sozialeko udal-jabetzako alokatzeko pisu bat eskatuz haren egoera ekonomikoa dela-eta.

Idazki bat eman diogu Hiri Berrikuntzarako Eragintegian aurkez dezan, bertan bere egoera eta alokatzeko etxebizitza baten eskaria azalduz.

**20.-** Kultura Sailean erakusten duen talde batek modu lotsagarrian erabili du Batasuna Udal Taldea izena, "Iniciativa Ideiak Aurrera" elkarteak deituriko prentsaurrekoa debekatuz, udal-aretoa ukatu baitiote Villasuson.

Vitoria-Gasteizko Udaleko organoen arteko gai politikoa dela uste dugu.

Ondoren, kontsulta hau kexa bezala formulatu zuen talde eskatzaileak (**Ikus 147-03 Erreg.-zk.ko kexa:** "*Udal-areto bat ukatzea aurretik udal-administrazioak baimendu ondoren*")

**21.-** Talde batek eraikineko bizilagun baten ke-erazgailu batek eragindako koipe-orbanak salatu ditu.

Laguntza eskaini zaie gutun bat idazteko Hirigintza Sailean aurkez dezaten.

Ondoren kontsulta hau kexa bezala formulatu zuen talde eskatzaileak (**Ikus 150-03 Erreg.-zk. kexa:** "*Ke-erazgailuak oker jartzea Jabeen Komunitatean*")

**22.-** Osakidetzaren erabiltzaile batek gure Bulegora jo du arazo mediko bat salatuz.

Arartekora bideratu dugu, hori ez baitago Sindikatura honen eskumenetan barne hartuta, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua arabera.

**23.-** Vitoria-Gasteizko herritar bat kexu da kaleen jatorrizko izena errespetatzen ez delako, Zabalganako zonalde berriaren kasuan gertatzen ari den bezala.

Kultura Sailaren telefono-zenbakia eman diogu, eta bertan zehatz-mehatz informatu ahal izango dute kaleen izenen erabakiei buruz.

Ondoren, kexu den herritar batek formalizatu du kontsulta hori. (**Ikus 145-03 Erreg.-zk.ko kexa:** "*Jatorrizko izenak Vitoria-Gasteizko kaleetan idatziriko errotilu eta idazkUNETAN*")

**24.-** Bizilagun batek bere nahigabea adierazi du bere bizilagunekin ez moldatzeagatik izaten ari den salaketa-pilaketa dela-eta. Salaketen justifikazioa eskatzen du, egiten ari zen obrak gerarazi baitizkiote.

Demsac-Bitartekotza Zerbitzura bideratu dugu, eta era berean, orientatu dugu Hirigintza sailari idazki bat egin diezaion, justifikazio bat eskatuz.

**25.-** Bizilagun batek bere nahigabea adierazi du JEZek eskatzen dion zergen ikuskapenagatik, berari ez dagokion modulu batean, baita %50eko errekarua ere.

Ikuskapen Zerbitzuko Bulegoan aurkeztu beharreko idazki bat egiten lagundu diogu 15 eguneko epean alegazioak egiteko, epe hori baitu dagokiona azaltzeko.

**26.-** Herritar batek bulegora jo du salatzeko Udalak Biasteri kalean (atzealdea, karrerapeak) sartu eta zuntz optikoa jartzeko; sarbidea Jabeen Komunitateko karrerapean dago.

**27.-** Autobusen erabiltzaile batek Zaramagatik Txagorritxurako ibilbidearen zuzeneko linea eskatzen du.

Instantzia betetzen lagundu diogu Vitoria-Gasteizko Udaleko erregistroan entrega dezan.

**28.-** Vitoria-Gasteizko bizilagun batek bere etxebizitzako paretetako eskaiolan arrailak agertu izana salatu du gure bulegoan, hura bizi den kaletan Udaletxeak eginiko obren ondorioz.

Idazki bat idazteko bideratu dugu Vitoria-Gasteizko Udaleko Erregistroan aurkez dezan, Ogasun Sailean aurkezteko.

**29.-** Talde batek gure bulegora jo du arau orokorrean bilduta dagoen aurreabisuko denboraldiari buruz, ur-pasoa 12 orduko aurreabisu laburrekin itxi baitzuten, eta horren ondorioz establezimendua itxi behar izan zuen.

Gure erantzuna zera izan da, aurkeztu dizkigun datuen arabera, ezinbestekoa izan zela, sistema orokorra interes partikularren gainetik baitago.

**30.-** Herritar batek adierazi digunez, arazoak ditu mugikorrarekin. Lau konponketa egin ondoren, dirua itzul diezaioten eskatu du.

Demsac-era bideratu dugu, eta jakinarazi digunez Arbitraje Batzordeak zer erabakiko duen zain dago, eta konponbidea hari beste aparatua bat ematea edo dirua itzultzea izan liteke.

**31.-** Eraikin bateko bizilagun batek galdetu du ea zergatik ordaindu behar duen lehen solairuko bizilagun batek eraikinean igogailua jartzea.

Hitzordua eman diogu kexa idatziz egin dezan, eta ez da hitzordura azaldu, ezta erantzunik eman ere.

**32.-** Herritar batek gure bulegora jo du gainbalio-zerga nahitaez zergatik ordaindu behar duen galdetuz, etxebizitzan horretan bizi izan baita 1973az geroztik, nahiz eta besteren arrazoiengatik, garai hartan eginiko transmisioa ez zuten eskritura publikora jaso 2002. urtera arte.



Ekarritako dokumentazioaren arabera, erabiltzaileari gainbalio hori ordaintzeko obligazioa duela erantzun diogu, gaur egun arte ez baita erregistroa gauzatu.

Horrela, arestian adierazitako kontsulta-zerrenda honekin aurkezten dugu Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegotik egin ahal izan den aholkularitza eta laguntza lana.

Herritarrak orientatzeko eginiko lana azpimarratu behar da, planteatzen ari diren arazoak bideratzeko; helburuak lehenesten saiatu gara arazoa konpondu eta murrizteko, zenbaitetan oso sutsuki salatzen baitituzte.

## **2.3 SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN EBAZPENAK SAILEN ARABERA (Gomendioak, Ezezpenak, Baztertzeak, Deribazioak, Orientazioak, Beste batzuk)**

### **2.3.1 HIRIGINTZA-SAILA**

#### **2.3.1.1 BIDE PUBLIKOAREN ZERBITZUA**

##### **2.3.1.1. Gomendioak**

- Bizikletentzako aparkaleku bat jartzeko eskaera (Erreg. zk: 04-02.)

##### *Erreklamazioa*

Hizkuntza-akademia bateko irakasle batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du hark lan-jarduera betetzen duen zonaldean (Adriano VI.a kalea) bizikletentzako aparkaleku berezi bat jartzea eskatuz, kalea zabaltzeko egin dituzten lanen aurretik horrelako bat baitzegoen, eta orain kendu egin dute.

Ikastegi gehiago dituen zonaldea da, eta horrenbestez, bada ikasle-talde garrantzitsu bat garraio bide gisa bizikleta erabiltzeko ohitura duena.

##### *Azterketa*

Behin kasua aztertu ondoren eta kale horretan bizikletentzako aparkaleku bat jartzeko nahikoa leku dagoela ikusita, eta arazoa erraz konpon daitekeela eta kostu baxua duela, dagokion udal-zerbitzuari (Bide Publikoa) kontsultatu diogu gai honi buruz.

##### *Eraitza*

**HITZEZ AHOLKATU DIOGU** Hirigintza Sailari, zehazki Bide Publikoaren zerbitzuari, bizikletentzako aparkaleku bat jartzea eskaturiko zonaldean.

Denbora gutxian, Bide Publikoaren Zerbitzuak adierazitako bizikletentzako aparkalekua jarri du. **GOMENDIOA ONARTU DU.**

- Gaur egungo autobus-geltokiaren egoera txarra  
(Erreg. zk.: 42-02, 97-02, 99-02.)

#### *Erreklamazioa*

Gaur egungo autobus-geltokiko hainbat erabiltzaile eta langile Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora hurbildu dira, zenbait kexa planteatuz autobus-geltokiaren egoera kaskarrari buruz.

Haien kexetan biltzen dituzte eskaeren arrazoiak; zikinkeria, terminalera iristeko zailtasuna –ez dute plataforma baxurik mugikortasun murrizteko pertsonentzako, ate astunek zaildu egiten diete sarbidea mugikortasun murrizteko pertsoneri-, espaziorik eza, ez dago kontsignarik, altzariak desegokiak dira, ez dago monitorerik autobusen iritsiera eta irteera orduei buruz informatzeko.

#### *Azterketa*

Eskatzaileek ekarritako dokumentazioa jaso dugu; horien artean zenbait talde parlamentarioren mozioak eta emendakinak, eta baita ere egunero geltokian gutxi gorabehera egiten diren sarrera/irteerak, adierazitako geltokiko langileen iritzia barne.

Jasoriko ekarpen guztiarekin autobus-geltokiaren azterlan bat egin dugu.

Herrandarren kalean dagoen Autobus Geltokia 1993an sortu zuten *behin-behingo*z, hiriarri zerbitzu emateko Geltoki Intermodala martxan jarri artean. Dena den, behin-behinekotasun hori luzatu egin da denboran eta dirudienez beste lau urtez luzatuko da gutxienez.

Geltokiak emandako zerbitzuen gaur egungo egoera kaskarra da zerbitzuaren kalitaterako garrantzitsuak diren zenbait alderdiri dagokionez, erabiltzaileen eta bertako langileen kexen arabera.

Geltokian lan egiten duten linea eta konpainia ugariak direla-eta, irteeren eta iritsieren, ordutegiaren eta jomugaren informazioa sakabanatuta agertzen da leihatiletan eta faltan hartzen da sistema monitorizatu eta bateratu bat, erabiltzaileari informazio argia eta bete-betea emateko.

Informazioa sakabanatua egotearen ondorioz informazioa ez dute bi hizkuntza koofizialetan ematen, **azaroaren 24ko euskararen erabileraren normalizaziorako 10/1982 oinarritzko legearen** 11. artikuluan eskatutakoaren arabera.

Sindikaturan planteaturiko kexak fakturazio eta kontsigna zerbitzuen informatizazioa ere eskatzen du, eta baita ere espazioa handitu eta materiala berritzea jarduera horiek garatzeko.

Erreferentziazko kexak Mugikortasun Murriztua duten pertsonentzako sarbideak hobetzeko premia jakinarazi dio Sindikaturari.

Sindikaturak eginiko begizko ikuskapenaren ondorioz ikus daitekeenez, Geltokiak dituen sartzeko sei ateetatik BAKARRA baino ez dago oztopo arkitektonikorik gabe, baina sarbide horretako atea astunak dira eta kanporantz baino ez dira zabaltzen, eta hori zailtasun nabarmena da mugikortasun murriztua duten pertsonentzako (gurpil-aulkia, makuluak, fardelak edo haurkotxeak dituzten pertsonak...).

Hasiera batean, zeharkako kudeaketako kasu batean zerbitzu publikoa emateko baldintzak kontratu bidez egiten dira, eta bertako klausula orokor eta partikularretan ezartzen dira zerbitzuak emateko baldintzak, eta baldintza horiek legalki osatzen dira emakida-Erregimenean aurreikusitakoarekin Tokian tokiko Entitateen Zerbitzu Erregelamenduaren 133. artikuluan eta hurrengoetan (1955/VI/17 Dekretua eta Kontratuen Legeko 156. artikuluan eta hurrengoetan (2/2000 Legegintzako ED, ekainaren 16koa).

Emakida honen markoan, Udalak betiere ondoko ahalmena du: “interes publikoak aholkatzen dituen aldaketak agintzea, eta, besteak beste, prestazioen KALITATE, kantitate, denbora edo lekuan izan litezkeen aldaketak, eta baita publikoaren kargurako tarifak aldatzea ere (Zerbitzu Publikoaren kudeaketa eraendu behar duten Klausula administratibo eta tekniko partikularren Orriaren 21. Klausula).

Oinarri hau guztia dela-eta, aurkezturiko kexaren **ALDEKO GOMENDIO PARTZIALA** egin dugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiak ematen dituen ahalmenen arabera.

### *Ebazpena*

Aurreko kontsiderazioak kontuan hartuta, erakunde honek, bere ahalmenen jardunean, Vitoria-Gasteizko Udalar **GOMENDATU DIO** Autobus Geltokiaren zerbitzua emateko baldintzen zehaztapenari dagokionez,

informazio-panel monitorizatu eta bateratua jartzea garraio-lineetan, eta baita ordutegiarena ere, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ko-ofizialetan. Era berean, galtzada-arraseko sarbidea hobetzea, trakzioko ate zurren ordez zelula fotoelektrikoaren bidez eragin daitezkeen alboko ateak ezarriz, mugikortasun murriztua duten pertsonen Geltokirako sarrera eta irteera errazteko.

**GOMENDIOA PARTZIALKI ONARTU DUTE** Memoria hau itxi dugunerako, Informazio Panelak jartzea aurreikusi baitute.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Gaur egungo autobus-geltokiaren egoera txarra)

#### **72.3.1.1.2 Ezezpenak**

- Auzo-komunitate bati pasabide bat ematea (Erreg. zk.: 100-02, 101-02)

##### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hiriko eraikin bateko auzo-komunitate batek Vitoria-Gasteizko Udalari eskatu dio egoera txarrean dagoen haren jabetzako garajeen pasabide bat konpontzearen kostua.

##### *Azterketa*

Kasua zehatz aztertu ondoren, eta kontuan izanda 2002ko uztailaren 8ko Ebazpena, ezin uler daiteke udal-zerbitzu batek esku hartzea, pasabide bat mantentzeari buruzko eskubidea eta betebeharrak lizentziaren ondoriozkoak baitira (pasabideen ordenantzaren.23 a.- c.- d.- artikulua) eta lizentziaren titularrei dagokie, kasu honetan, eraikineko bizilagunei.

Horretaz gain, pasabidearen eraikitzailearekiko obren harrera ez zuen Udalak egin, eta ez dago jasota pasabidearen kalteek udal-jarduketarik eragin behar dutenik.

##### *Ebazpena*

Arestian adierazitakoa dela-eta, kasua **EZETSI EGIN DUGU**, Udalak ez baitu zuzeneko inplikaziorik.

**(Ikus Eranskina, Ezezpenak:** Auzo-komunitate bati pasabide bat ematea)

- Txirula eta Txalaparta kaleen arteko zonaldeko lorategiak zaintzea (erreg. Zk.: 104-02)

#### *Erreklamazioa*

Auzo-komunitate batek haserrea adierazi du Vitoria-Gasteizko hiriko Txirula eta Txalaparta kaleko zonaldearen lorategiak izaten ari diren utzikeria eta hondatzea dela-eta. Lorategi horien jabea Udala denez, Udalari eskatzen diote haien garbiketa eta zaintzaren arduradun izatea.

#### *Azterketa*

Gure bulegoan izandako elkarrizketaren arabera, eta erreklamazioa, Jabeen Komunitatea dagoen orubearen erregistro-kokalekuaren azterlan eta interpretazioa eta eskatzaileek ekarritako dokumentazioa ikusita, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen erakundeak adierazten du lorategiek, hau da, soto-oinak, "orube guztia okupatzen duela", eta horrek esan nahi du sotoaren gaineko azalera finkaren jabetzarena dela eta hortaz, jabetza pribatua dela, nahiz eta erabilera publikokoa izan hirigintza-ustiapeneko arrazoiak direla-eta; hori horrela izanik zuzenbideari egokitzen zaio Eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Zerbitzuak planteaturiko mantentze eta zaintzeko eskakizuna. Hortaz, Jabeen Komunitatea bera da orubea mantentzeko arduradun, eta ez Udala, eskatzaileek eskatzen duten bezala.

#### *Ebazpena*

Aurretik adierazitakoaren arabera, eskaria **EZETSI EGIN DUGU** Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 29. artikulua arabera.

**(Ikus Eranskina, Ezespak: Txirula eta Txalaparta kaleen arteko zonaldeko lorategiak zaintzea)**

### **2.3.1.1.3 Baztertzea/Ez-onartzeak**

- Oztopo arkitektonikoei buruzko kexa (Erreg. zk.: 66-02)

#### *Erreklamazioa*

Email bat bidez jasotako kexa da, oztopo arkitektonikoei buruzko azalpen nahiko inkoherentea.

### *Ebazpena*

Kexari irteera eman eta eskatzaileari hura aztertu ahal izateko nola igorri behar duen jakinarazi ondoren eta kexa sinatu eta identifikatu ez dutela kontuan izanda, kexa **BAZTERTU DUGU**, eta kasua itxi dugu iraungipena dela-eta.

- Autobus Geltokia kudeatzeko baldintza-orriaren aldaketa  
(Erreg. zk.: 12-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko autobus-geltokiaren langile taldeko ordezkari bat Sindikaturaren bulegoetara etorri da Ogasun Batzordeko kide izan nahi dutela eskatuz, euren soldatak udal-enplegatuen soldatekiko berdintzeko klausula barne hartu ahal izateko Autobus Geltokia kudeatzeko Baldintza Orriaren aldaketa bat proposatzeko.

### *Azterketa*

Eskatzaileak galdetu du zein ahalmen zehatz dituen Udal Administrazioak Autobus Geltokiarekiko. Gai horri dagokionez, erantzun dugu Kontrata Sistema Zerbitzu Publikoen zeharkako kudeaketa-sistema dela, eta haren bidez Administrazioak enpresa publiko bati agintzen dio berez Administrazioari dagokion zerbitzu publiko bat ematea, bien arteko baldintza-orri bat ezarrita. Administrazioaren ahalmenak Baldintza Orriaren ezarritako baldintzak betetzera mugatuta daude, eta baldintzak ez badira betetzen, Kontrata salatzena.

Kontsulta ere egin dugu langileek lan-kategoria eskatuz eskaera bat formalizatuko balute Udalaren eta adierazitako enpresaren artean kontratu berri bat sinatzeak zein ondorio izan ditzakeen jakiteko. Gai honi dagokionez, adierazi dugu, lan-jurisdikzioaren auzi bat planteatzeak ez duela berez ondorioz kudeaketa-kontratua berritzeko aukerari dagokionez.

### *Ebazpena*

Hori guztia dela-eta, nahiz eta eskatzaileak planteaturiko gaiak konpondu ditugun, adierazi diogu Sindikatura honek ez duela eskumenik Enpresaren eta langileen arteko lan-arloko gai batean esku hartzeko. Beste kontu bat litzateke Sindikaturak gomendio bat egitea herritarrei zerbitzua emateko baldintzei dagokienez.

Horrela, eskaria **BAZTERTU DUGU**, ez baitago Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Eskumenetan bilduta, 26 d) artikulua adierazten duenaren arabera.

- Aiztogile kalearen zoladuraren hondatzea (Erreg. zk.: 17-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko bizilagun bat Aiztogile kaleak zenbait puntutan duen zoladuraz kexatu da, telefono-deiaren bidez.

#### *Azterketa*

Eskatzaileak eginiko kexaren ondoren, kexa modu formalean egin dezan eskatu diogu kexa bera aztertu ahal izateko. Bide publikoko zoladura hondatu deneko kasu argia dirudi, eta beharrezkoa litzateke kalteak konpontzea.

#### *Ebazpena*

Kexa egin duenari hondaturiko puntu jakinen azterlana hasi ahal izateko horiei buruzko informazio zehatza igortzeko jakinarazi, eta zentzuko tarte bat informazio horren zain egon ondoren, kasua **ITXI DUGU** iraugipena dela-eta, eta **BAZTERTUTZAT** jo dugu, kexa ez baitute sinatuta aurkeztu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian ezartzen denez.

- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk: 47-02)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek erorketa bat izan du bide publikoan zoladuraren egoera kaskarra dela-eta.

#### *Ebazpena*

Informazio eta erregistro bulegoetara **bideratu dugu** eskariari buruzko lehen instantzia bat emateko. Kasua **itxi** dugu iraugipena dela-eta, eskatzailea ez baita bulegora itzuli.

### **2.3.1.1.4 Orientazioak**

- Enpresa eraikitzaile baten prezio tasatuko etxebizitza bati uko egiteko eskaria, hari dagokion aurrerakina ordaindu ondoren (Erreg. zk.: 127-02)



### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo eta kontsulta bat egin du Ibaiondoko pisu tasatuen erreserbari dagokionez. Eskatzaileak adierazi digu pisuen enpresa eraikitzaile baten bulegora jo zuela, Udalak tasaturiko pisuak eraikitzeaz arduratzen dena, eta diru-kopuru bat aurreratu zuela egokitu zitzaion pisurako eta beretzako erreserbatuta zuela, enpresa eraikitzaileak eskatu zion bezala.

Pisua eraiki eta entregatzeko bi urte itxaron ondoren, enpresa eraikitzaileak etxebizitza horri uko egiteko adierazi zion, enpresa eraikitzaileak eskaini zitzakeen baino pisu gehiago erreserbatu baitzituzten.

### *Azterketa*

Interesatuarekin elkarrizketa bat izan ondoren, enpresa eraikitzailearen jarduketari buruzko txosten bat egitera orientatu dugu, etxebizitzaren salmentaren jarduketa irregularrari dagokionez. Salaketa hori Hirigintza Zinegotzigoan aurkezteko eskatu diogu, Udalaren erregistroa dela medio, baita eraginpeko enpresan ere.

Eskatzaileak adierazi digu enpresa eraikitzaileak bilera baterako deitu ziola, eta hortaz enpresaren erantzuna jaso arte itxarotea erabaki zuen idazkia igorri aurretik. Interesatuaren eta enpresa eraikitzailearen arteko elkarrizketa egin eta inolako erantzunik jaso gabe 15 egun pasa ondoren, eskatzaileak salaketa jarri zuen Erregistroaren bidez Udaletxean.

Salaketa aurkeztu eta aldi berean, enpresa eraikitzailea harremanetan jarri da eskatzailearekin antza emango zaizkion etxebizitzaren prezioak eta baldintzak eskuratzeko. Azalpen berean, enpresa eraikitzaileak etxebizitzaren prezioek portzentaje bat gora egin dutela adierazi dio, eta azaldu zionez, "Espazio Komunak" direla-eta omen, pisuaren erreserba egitean ez baitziren kontuan hartu.

Eskatzailea gure bulegoetara itzuli da eta adierazi digu enpresa eraikitzaileak jada badakiela salaketa jarri duela, eta kentzeko aholkatu diola, bestela etxebizitza ukatuko baitio. Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak salaketa kentzea iradoki dio interesatuari, enpresak eman baitio jada pisua, eta baldintzei dagokienez, enpresa eraikitzaileak arrazoiak azaldu beharko ditu, araudia betetzen ez badu, salatu egingo baitute. Era berean, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak esan dio lagunduko duela enpresa eraikitzaileak azalpena ematen dionerako.

Zenbait egun geroago, interesatuak kasua konpondu dela adierazi digu, abokatu batek parte hartzea eskatu ondoren.

### *Ebazpena*

Eskatzailea **ORIENTATU DUGU** salaketa-aukerari edo kasu berriz bideratzeko aukerari buruz, eta laguntzaile-lanak egitea eskaini genion enpresa eraikitzaileak eman behar izan zion azalpenerako. **KASUA ITXI DUGU**, konponduta baitago.

- Jabeen Komunitate bateko hustubideak berritzeko premia  
(Erreg. zk.: 158-03;159-03;160-03)

### *Erreklamazioa*

Jabeen Komunitate bateko bizilagunen talde bat gure Bulegoan bertaratu da laguntza eskatzeko, Bide Publikoaren Zerbitzuak Komunitatearen hustubideak berritzea eskatu baitie.

Berraztertze errekurtsoa jartzeko idazki bat egiteko laguntza eskatu dute.

### *Azterketa*

Elkarrizketa izan dugu kexaren eskatzaileekin, eta bertan adierazi digutenez Jabeen Komunitateak Jabeen Komunitateko Salaketari buruzko Ebazpena jaso zuen, bide publikoan egindako etxeetarako saneamenduko hiru hartune-kutxatxo zirela-eta.

Ebazpen horren aurretik, ez zuten erreferentziatzeko salaketa horren berri izan, eta Berraztertze Errekurtsoa egin nahi dute hori dela-eta.

### *Ebazpena*

Idazkia prestatzea **babestu** dugu eskatzaileari berraztertze errekurtsoa jartzeko eta **KASUA ITXI DUGU**.

#### **2.3.1.1.5 Beste batzuk**

- Bide publikoko argimutilak (Erreg. zk.: 65-02)

### *Erreklamazioa*

Kexa jabeen komunitateko bizilagun batek jarri du, komunitateko eraikin bereko tabernak eragiten dituen gehiegizko eragozpenak direla-eta, argimutilak jartzen baititu bide publikoan, orain arte lizentziarik gabe. Administrazioak lizentzia eman behar ote den aztertzea eskatu du.

### *Ebazpena*

Erasandako pertsonarekin harremanetan jarri ondoren, **kasua itxi dugu hark hori eskatuta**, beste alderdiaren errepresalien beldur baitu. (ikus kasu irekietan-erreg.-zk: 122-02).

- Ibilgailuen zirkulazioa dela-eta egoera txarrean dagoen oinezkoentzako kaleko zoladura (Erreg. zk.: 51-02)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko bizilagun bat kexu da bizi deneko kalea egoera txarrean dagoelako, sarritan ibilgailuak eta kamioiak pasatzen baitira bertatik zamalanetarako, nahiz eta zonaldea oinezkoentzako den soilik.

### *Azterketa*

Bizilagunak kexa aurkeztu zuen bere garaian Udalaren Erregistroan, eta Udalak aldeko erantzuna eman zion, eta kale horretan berandu gabe konponketak egingo zituztela jakinarazi zioten.

Kexa Sindikatura honetan aurkeztu zutenean administrazioak ez zuen inolako jarduketarik egin, nahiz eta erabiltzaileari hori esan zitzaion. Denbora-tarte baten ondoren, bizilagunak esan digu ez duela nahi kexarekin aurrera jarraitu, kalean zolatz-obra egiten ari baitira.

### *Ebazpena*

**KASUA ITXI DUGU**, erabiltzaileak berak atzera bota duelako kexa, Udalak behar bezala esku hartu baitu.

## **2.3.1.2 Eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Zerbitzua**

### **2.3.1.2.1 Gomendioak**

- Lokal batean ura sartu izana Jabeen Komunitate batek estoldak itxi dituelako (Erreg. zk.: 92-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko auzo bateko lagun bat kexu da hainbat auzokok estoldak itxi dituztelako, eta horren ondorioz ura sartzen zaio patioan, bere jabetzako patioan. Udal-administrazioari estolda horiek garbi mantentzeko eskatu dio.

### *Azterketa*

Sindikaturak gertakarien lekua ikusi du eta kexa aurkeztu denean zegoen egoera egiaztatu du.

Erakunde honek eginiko azterlanak arazo honi buruz 2000. urtean Eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Zerbitzuaren Buruak emandako ebazpena hartzen du kontuan, eta bertan finkako bizilagunei obrak burutzea eskatzen zaie, jabetza pribatutik datozen ur fekalen isurketak baitaude, kalezuloatik doan hodi biltzaile pribatua ordezkatzeko hain zuzen, lekuak osasungarritasun eta higiene hobea izan dezan.

Informazio-eskaria egin genion Erregimen Juridikoaren Zerbitzuari, eta Txosten bat igorri digute; bertan adierazten denez, hodi biltzailean konponketa bat egin zuten atzemandako lekuan arazoa konpontzeko eta baita ere bertako hustubidea konpontzeko, hodi berria instalatuz, erregistro-putzu berriekin muturretan, eta guztia ere lur komunean. Hodi biltzaile hutsak direla eta bizilagunen salaketa bakar bat ere jaso ez dutela adierazi digute.

Udal Arkitektoak eginiko txostenak egiaztatzen duenez EZ dute aldatu etxebizitzaren patio-zonaldeko hondakin-uren hodi biltzailea, hodi biltzailearen muturretako batean konponketa zehatz bat besterik ez dute egin.

Bide Ingeniari – Bide Publikoaren Zerbitzuaren Buruak bere garaian informatu zuenaren arabera, hodi biltzailea oso zaharra da eta ERABAT BERRITU behar da, eta eraikitako zonaldeetatik kanpo ere atera behar da arazo gehiago saihesteko.

Administrazioak EZIN ditu bere egintza propioak ahaztu, ez eta bere ahalmenak bazter utzi ere, eta Zinegotzi Ordezkariaren Dekretuak propio adierazten du honakoa: "agindutakoa betetzen ez bada, espediente zigortzaileari hasiera emango zaio, obren burutzapen subsidiarioaren kalterik gabe".

Gai bereziki kontuzkoa da bizilagunen bizi-kalitateari eta interes orokorrari dagokienez, Udalak OSASUNGARRITASUN PUBLIKOA zaindu behar baitu eta gai horretan ezin da onartu botere publikoen utzikeria.

Bestalde, Udal Dekretuak behartzen dituenak ez daude Auzo Komunitate batean bilduta, nahiz eta orain ordezkatu beharreko kanalizazio-obra taldean egin zuten.

### *Ebazpena*

Arestian adierazitakoa dela-eta, **GOMENDIO** bat egin dugu, eta bertan 2000ko azaroaren 23ko Dekretuan aurreikusitakoaren arabera ekitea eskatzen dugu, eta erasandako lekuko bizilagunen aurkako ESPEDIENTE ZIGORTZAILEARI hasiera ematea, betiere euren horretan jarraitu eta adierazitako hodi biltzailea erabat berritzeari uko egin badiote, eta hala badagokio adierazitako obraren *Burutzapen Subsidiarioari* ekitea.

Oraingoz **GOMENDIOA EZ DUTE osorik ONARTU**, eraginpeko Zerbitzuaren ustez harturiko soluzioa tartekoa eta bideragarria baitzen. Baina jarraipenari eutsiko zaio, harturiko soluzioak arazoak eragiten baititu orain ere; neurriak hartu beharko dira, eta hodi biltzailea erabat berritu.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Lokal batean ura sartu izana Jabeen Komunitate batek estoldak itxi dituelako)

- Jabeen Komunitate batean erauzgailuak oker jartzea  
(Erreg. zk.: 150-03)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko zenbait bizilagunek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen esku-hartzea eskatu zuten zenbait izapide egin ondoren Jabeen Komunitate bereko bizilagunen gaizki instalaturiko erauzgailuetatik datozen keen arazoak konpontzeko.

### *Azterketa*

Sindikatura honek laguntza eskaini die eskatzaileei eraginpeko Sailean salaketa-idazki bat aurkezteko, Eraikuntzen Zerbitzuan hain zuzen. Idazki horretan salatzen dutenez, ke-erauzgailuak jarri dituzte dagokion obra-lizentziarik gabe eta horren ondorioz, erauzgailu partikularrek etxebizitzaren aireztapen-sistema orokorrarekin duten konexioak ke-pilaketa eragiten du, ez baita aproposa irteera egokirako.

Udaletxeari igorritako salaketari dagokionez zenbait hilabete itxaron ondoren eta erantzunik jaso ez zutela ikusita, Bulegora bertaratu dira berriz ere eta kexa formalizatu dute.

Sindikatura honek, aurretik igorritako salaketa ikusita, bertan dagokien lizentzia ez duten ke-erazgailuak daudela adierazten baita, **GOMENDIOA** egin dio Hirigintza Sailari, Eraikuntzen Zerbitzuari hain zuzen, erazgailu horiek kentzeko eskatuz.

#### *Ebazpena*

**ALDEKO GOMENDIOA** eman dugu, bizilagunek jarritako salaketa burutzeko eskatuz, bertan gaizki jarritako erazgailuak kentzeko eskatu baitzuten.

Gomendioa egin eta aldi berean, bizilagunek adierazi digute udal-teknikaria bertaratu dela lekua ikuskatzera.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Jabeen Komunitate batean erazgailuak oker jartzea)

#### **2.3.1.2.2 EZESPENAK**

- Bizigarritasun-lizentzia ez duten etxebizitzak, hasierako banaketako akats bat dela-eta lurrik ez dagoelako (Erreg. zk.: 16-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek adierazi duenez arazoak ditu etxebizitzaren azken lizentzia lortzeko, dirudienez eskriturak ez baitatoz bat errealitatearekin, eta hortaz Vitoria-Gasteizko Udalari eskatu dio Lehen Okupazioko Lizentzia eman diezaion, hau da 2002-3-9 dekretua betearaztea.

#### *Azterketa*

Lurrik eza eragindako hasierako banaketako akats bat da, bizigarritasun-lizentziarik gabeko etxebizitzari dagokienez, eta Udalari Lizentzia hori ematea eskatu zaio.

#### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DUGU**, Udalak behar bezala jokatu baitu lizentziaren kudeaketari dagokionez. Arazoa kontratistaren jarduketaren ondorio da eta jabeen arteko adostasunarekin soilik konpon daiteke.

(**Ikus Eranskina, Ezesprenak:** Bizigarritasun-lizentzia ez duten etxebizitzak, hasierako banaketako akats bat dela-eta lurrik ez dagoelako)

- IBAIONDOKO lurren sustapenerako Babes Ofizialeko pisu bat esleitzeko ezetza (Erreg. zk.: 85-02, 86-02)

#### *Erreklamazioa*

Zenbait herritarrek euren desadostasuna adierazi zioten Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari IBAIONDO Hirigintza Jarduketako Programaren enpresa eraikitzaile zein esleipendunak emandako erantzunarekin, bertan etxebizitza bat erostea ukatzen baitzaie beste herritarren mesedetan, eta horiek eskatzaileen eskubide berak dituzte.

#### *Azterketa*

Hirigintza Sailari kontsultak egin ondoren esleitzeko baldintza-orriari dagokionez, "*Hirigintza Jarduketako Programaren*" Oinarrien arabera eta *Vitoria-Gasteizko hiri-antolamendurako plan orokorraren "Ibaiondo" 8B Sektorearen esparruari dagokion ez programaturiko Lurzoru Urbanizagarriaz* ari garela, enpresa sustatzaile edo eraikitzaileek askatasun osoa dute programak biltzen dituen etxebizitzaren salmenta adosteko. Oinarri horietan ez da ezein esku-hartze administratibo ezartzen, ez eta lehentasun-ordenarik errespetatzeko obligazioa edo beste eraikinen titularra ez izatea egiaztatu beharra.

Ezarritako eta behar bezala zigortutako obligazio bakarra eraikuntzen salmentari dagokionez, Baldintza Orriaren IV. Oinarrian deskribaturikoa da, ***Eraikuntzen salmentaren gehienezko prezioak*** idazpuruan. Prezio horiek ez betetzeak ondokoa eragin dezake: tasaturiko prezioen gaintik kobraturiko diru-kopuruaren 10 aldiz adinako zigorra

Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduak Udala baimentzen du enpresa esleipendunen kontabilitate-liburuak ikuskatzera okerreko kobrantzak izan direla egiaztatzeko. Dena den, planteaturiko kexa ez da egituratzen tasaturiko prezioen gehiegikeriagatiko lizentzia gisa.

Argi dago, gure iritziz 1996ko Deialdiaren Oinarrien aurreikuspenak (IBAIONDO Programaren Baldintza Orria) oso urriak izan direla IBAIONDOKo Hirigintzako Jarduketa Programan aurreikusten direnak bezalako hain garrantzitsuak diren transmisio-multzoaren gardentasuna bermatzeko.

Hutsune hau konpondu egin da uneko eta geroko programei dagokienez, esate baterako "*Zabalgana*" Sektoreko R.C. 2.10 Bizilekutarako Lur-zatiaren Prezio Tasatuko Etxebizitzaren Sustatzaileei Besterentzeko Deialdian programaturiko etxebizitzak eskuratzeko mekanismo zorrotzagoak ezarri dira.

### *Ebazpena*

IBAIONDO HJPren salmenta-baldintzen erregulazio eskasa egiaztatuta ere, enpresa eraikitzaile edo sustatzaileei obligazio berriak ezartzen dizkien jarduketak ezin zaizkie ezarri, haren arabera esleitu zen Programaren Deialdiaren Oinarrietan aurreikusita ez bazeuden. Hori dela-eta, kexan formulaturiko eskaerak **ATZERA BOTA** ditugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 29. artikulua arabera.

**(Ikus Eranskina, Ezespak: IBAIONDOko lurren sustapenerako Babes Ofizialeko pisu bat esleitzeko ezetza)**

- Komunitatearen teilatuko instalazio irrati-elektrikoekin izandako arazoak  
(Erreg. zk.: 88-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hiriko herritar batek kexa bat aurkeztu du Sindikatura honetan, hura bizi den Jabeen Komunitateko teiltuan instalazio irrati-elektrikoak baitaude.

Eskatzaileak adierazi duenez, bere kexaren arrazoi nagusia Komunitate horretako instalazio irrati-elektriko horretan Vitoria-Gasteizko Udalak esku-hartzea da, instalazio horrek izan ditzakeen ondorio posibleak direla-eta.

### *Azterketa*

Eskatzaileak elkarrizketa izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta laguntza eskatu du udal-administrazioan aurkeztu beharreko idazki bat idazteko. Eskatzaileari aholkuak eman ondoren, idazkia Telekomunikazioen Sailera igorri zuela esan digu, eta ondoren instalazio horien neurketak egin zituzten. Neurketa egiteko unean, teknikariek Hirigintza Sailari baimena eskatzea beharrezkoa dela esan zioten bizilagunari, eraikinaren fatxadatik pasatzen diren antenen kableak ezkutatu nahi badira. Teknikariek beraiek eman diote eskatzaileari helbidea eta nora jo adierazi diote instalazio irrati-elektrikoaren onuradun den irrati-amateurraren lizentzia-edukitzeari buruzko ikerketa bat egiteko.

Aldi berean, bilera bat izan dugu eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Ataleko Arkitekto batekin, eta hark adierazi digunez, gai honi buruzko araudia 2002ko ekainaz geroztik dago indarrean, eta hortaz Telekomunikazio Antena orokorretan barne hartuta dago, hau da, badago horri buruzko Ordenantza. Era berean, esan digunez, antenak lau urtetik gora badaramatza instalatuta (eta kasu honetan horrela da), automatikoki erregulatzen da, eta zegokionean obra-



lizentzia eskatu beharko zuten, baina obra txikitzat joko zutenez, inolako eragozpenik gabe esleituko zioten. Bestelako arazoa da Komunitateko bizilagunen artean dagoena, baina hori ez da udal-eskumenekoa.

### *Ebazpena*

Behin dagokion espedientea aztertu ondoren, eta dagozkion elkarrizketak eta bilkurak eginda, administrazioak eginiko kudeaketak behar bezalakoak izan direla ondorioztatzen da, eta horrenbestez, kexa **EZETSI EGIN DUGU**.

**(Ikus Eranskina, Ezespak:** Komunitatearen teilatuko instalazio irrati-elektrokoekin izandako arazoak)

- Garaje-plaza baten emakida, hura uzten duen enpresa eraikitzaileak erabiltzeko eskubidea osorik kobratzea exijitzen duela (Erreg. zk.: 35-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen erakundera jo zuen kexa bat aurkezteko; herritar horrek garaje-plaza baten emakida lortu du, eta erabiltzeko eskubidea osorik kobratzea eskatzen diote garaje-plaza ikusi aurretik edo bestela, osorik ordaintzen ez badu, hitzarturiko prezioa garestitzen duten finantzaketa-baldintzak emango dizkiote.

Kontratua sinatu behar duen enpresa Vitoria-Gasteizko udalak baimenduta dago.

### *Azterketa*

Planteaturiko kexari dagokionez, bertan aparkatzeko lekua hari entregatu aurretik emakida osoa ordaintzea eskatzen baitzaio, interesatuak berak adierazi duenez, Judizmendiko Aparkalekuaren Baldintza Orria aztertu dugu, Kontratu Emakidari buruzkoa (32. klausula), eta bertan ondokoa dio: *“Udalak kontratu-eredua emango dio emakidadunari .....Emakidadunak plaza horregatik kobratu beharreko prezioa kontratua gauzatzeko egunean haren eskaintzaren arabera dagokiona izango da, gehi adierazitako kontratuan azaltzen den prezioarekiko plaza berriaren prezioaren igoeraren arteko aldea, obra horiek amaitzeko finkaturiko egunean...”*

Enpresa kontratugileak aurkezturiko Kontratuaren eredua Udalak onetsi zuen emakida erregulatzen duen Erregimenaren zati gisa. Bestalde, prezioaren ordainketa ez du legeak nahitaez ezartzen (Kode Zibilaren 1.500 art.), kontratu bakoitzak finkatzen duenaren esku dago. Hori guztia dela-eta, enpresa kontratugilearen jarduketa zuzenbideari egokitzen zaiola ondorioztatzen

dugu. Egia da eskakizun hori ez dela ohikoa merkataritza-arloan, baina legeak ez du saihesten eta emakidaren Erregimenaren zati da.

Sindikatura honek aparkaleku berrien Baldintza-orria eskatu dio Ogasun Sailari, aldaketarik izan ote den baloratzeko.

#### *Ebazpena*

Kexa **ATZERA BOTA DUGU**, administrazioak ez baitu oker jokatu, eta kasu honetan garaje-plazen esleipena gauzatzeko kontrataturiko enpresak ere ez du oker jokatu.

**(Ikus Eranskina, Ezespenak:** Garaje-plaza baten emakida, hura uzten duen enpresa eraikitzaileak erabiltzeko eskubidea osorik kobratzea exijitzen duela)

- Lehen Udalarena izandako eta orain partikular batena den pisua, eta galdera ea obrak nork ordaindu behar dituen (Erreg. zk: 33-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek kontsulta egin du bere eraikinean egiten ari diren obrak ordaindu behar dituen galdetuz, etxebizitza udalarena zenean adostu baitzituzten obra horiek.

#### *Ebazpena*

Jabetza Horizontalaren Legearen 11.4. artikulua arabera, gaur egungo jabeak ordaindu behar ditu obra horiek. Hortaz, eskaera **ATZERA BOTA** dugu eta eskaturiko gaiari buruzko **informazioa eman** diogu eskatzaileri.

### **2.3.1.2.3 Baztertzea/Ez-onartzeak**

- Jabeen Komunitatea eragozten duen bizilagun baten patio bateko teilapea (Erreg. zk.: 61-02)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat kexatu egin da Jabeen Komunitate bereko beste bizilagun batek denbora dezente dela teilape bat jarrita daukalako eta ez diolako uzten arropa zabaltzen, teilapearen eta goiko pisuaren artean tarte gutxi baitago. Teilapea bere leihotik zentimetro gutxira dagoela kontuan hartuta, katuak sar litezke bere pisuan.

### *Ebazpena*

Eskatzailearen kexa formalik jaso ez dugunez, kasua **itxi dugu** iraungitzea dela medio, eta **BAZTERTZETZAT** jo dugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua araberara.

- Ondasun Erkidegoa bizigarritasun-baimena ez jasotzeagatik (Erreg. zk.: 64-02)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko bertako herritar batek kexa aurkeztu du Sindikatura honetan Bizigarritasun Lizentziarik jaso ez duelako.

### *Ebazpena*

Gaiari buruzko inolako dokumentaziorik jaso ez dugunez, eskatzailea Bulegoarekin harremanetan noiz jarriko zain egon eta sinaturiko kexarik ez baitu aurkeztu, **kasua itxi dugu iraungitzea dela medio**, eta kexa BAZTERTUTZAT jo dugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua araberara.

### **2.3.1.2.4 Bitartekotzak**

- Udalak Vitoria-Gasteizen egoitza duen enpresa bati sarbidea gabetu dio bizikleta-errei bat egiteko (Erreg. zk.: 67-02)

### *Erreklamazioa*

Helbide fiskala Vitoria-Gasteizko hirian duen enpresa batek aurkeztu du kexa, eta kexaren arrazoia Udalak Vitoria-Gasteizen egoitza duen enpresa bati sarbidea gabetu izana da, alboan bizikleta-errei bat egingo baitute. Lehendik ere berraztertzeako errekurtsua aurkeztu zuen Udaletxean enpresak.

### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko udalak ebazpen bat eman zuen, eta bertan "Beteñoko FEVE Zaharreko Espazio Librea" lurak bere ekimenez berreskuratzeko espedienteari hasiera eman eta izapidetzea erabaki zen.

Berreskuratze-espeditente honen ondorioz, bide publiko horretan bizikleta-errei bat egitea aurreikusita dago, eta lur-sailaren planeamenduan aurreikusitako zuhaitzen eta farolen antolaera kontuan izanda, ez dute tokirik utzi alboko pabilioiaren sarbiderako.

Azken batean, FEVEko trenbideek garai batean okupaturiko lur-zerrenda bizikleta-errei bihurtzeak erabilerako bateragarritasun-arazoa planteatzen du: alde batetik, dauden aukeren artetik aurreikusitako erabilera eta pabilioirako sarbidea uztartzen dituen alternatiba bat hartu nahi da, Udalak berak onartu baitzion alderdi horri eskubide hori eraikuntza-lizentzia eman zuenean.

Alderdi eskatzaileak berak proposamen bat aurkeztu dio Udalari bizikleta-erreiaren gainean barandez hornituriko bizikleta-errei goratu bat egiteko, arazo hori konpontzea ahalbidetuko bailuke, zoru-arraseko zerrenda horren erabilera historikoa bizikleta-errei goratu gisa izango zuen erabilera berriarekin uztartuz, eta proposamen horri haren kostua bere gain hartzeko ordaina gaineratu dio, bere bitartekotza-eskaintzaren oinarri gisa.

Enpresak lur publikoaren zerrenda horretarako zuen erabilera historikoaren ondorioz enpresari eraikin edo pabilioi bat eraikitzeko lizentzia eman zioten. Lizentzian bertan, baldintza partikular gisa, erabilera publikoko espazio hori nabe industrial batetik besterako pasagunerako erabiltzea baimendu zen.

Printzipioz, pabilioien artean ibiltzeko jabetza publikoko lurra erabiltzeko eskubidea ez da indargabetzen bizikleta-errei bat egin behar dutelako, erabilera hori eta pabilioien arteko pasagunea bateragarriak baitira.

Bitartekotza hartara aplikatu nahi den arazo horrek Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 88. artikuluan aurreikusitako Hitzarmenetako eragingo luke: Udalak bizikleta-errei burutzeko proiektu bat dauka aurreikusita, eta horrek zonalde bateko erabilera anormala eragingo luke, enpresari zor zaion trafiko industrial eta jendeari zor zaion bizikleten aisia eta kirol trafikoa batera gertatuko bailirateke.

Ondokoa da eskatzaileak eginiko proposamena akordio batera iristeko: zonalde horretan zubi bat egitea, bere kargura, bizikleta-errei enpresak erabilitako pasaera-zonaldearen gainetik joateko moduan, eta horrela garraio-makinak eta bizikleta-erreiaren erabiltzaileak elkarren artean gurutzatzea saihestuko zen, eta hori bestela ezinezkoa litzateke.

Eraginpekoekin eta Hirigintza zuzendariarekin hainbat bilkura egin ondoren, eta horietan guk eskatuta dokumentazioa ekarri zigutela kasua azter genezan, Sindikatura honek edozein bilkurarako bitartekotza-lanak egitea proposatu du proposamenaren baldintzak bertan zehazteko.

### *Ebazpena*

Adierazitako kudeaketen ondoren eta dagozkion izapideak eginda, Sindikatura honek **BITARTEKOTZA**-lanak egitea eskaini du edozein bilkura edo elkarterako, eraginpeko alderdien arteko akordio bat ezartzeko.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Udalak Vitoria-Gasteizen egoitza duen enpresa bati sarbidea gabetu dio bizikleta-errei bat egiteko)

- Etxebizitza bat utzaraztea itsatsitako eraikin baten eraistea dela-eta (Erreg. zk.: 154-03)

### *Erreklamazioa*

Herritar bat bulego honetara bertaratu da bere etxebizitza utzarazi diotelako itsatsitako eraikin baten eraistea dela-eta. Vitoria-Gasteizko Udalak utzaraztearen unean beste etxebizitza batean ostatu emango ziela jakinarazi zien.

Herritarrak hainbat idazki egin ditu euren bizilekura noiz itzuliko diren galdetuz, eta baita ere bere etxebizitza zein egoeratan dagoen Alde Zaharreko BEPB Plan Orokorrari dagokionez.

### *Azterketa*

Kexa ikusita, eta eraginpekoarekin elkarrizketa bat izan ondoren, hark gaiari buruzko dokumentazioa ekarri digula, Hirigintza Plan Orokorra eskatu diogu Hirigintza Zinegotziari.

Era berean, elkarrizketa bat izan dugu Eraikuntzen Erregimen Juridikoaren Zerbitzuburuarekin, eta hark esan digunez, bizilagunei erantzun diete, alokatzeko pisu bat eskuratu baitiete Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren kargura.

Eraginpeko bizilagunekin harremanetan jarri ondoren, pisua onartu dutela egia dela esan digute, baina zein baldintzatan prestatuko den zehaztu behar da. Ondoren, bilkura bat izan dugu Eraikuntzen Zerbitzuburuarekin, eta eraginpekoei ahal duten guztia ahalbidetuko dietela adierazi digu.

Handik egun gutxira, bilkura izan dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko Teknikariarekin, eta har esan digunez, sukaldea eskatzaileak ezarritako baldintzetan ari ziren hornitzen.

### *Ebazpena*

**BITARTEKOTZA**-lana egin dugu Eraikuntzen Erregimen Juridikoko eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko zerbitzuek eraginpeko bizilagunei ordezeko etxebizitza duin bat eman diezaieten euren etxebizitza uztarazteagatik.

Bitartekotza **ONARTU** dute, eta eraginpeko bizilagunak alokatzeko etxebizitza bat eskuratu du Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren kargura.

#### **2.3.3.2.5 ORIENTAZIOAK**

- Ibaiondoko etxebizitzaren gehieneko prezioei buruzko informazioa  
(Erreg. zk.: 103-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek informazioa eskatu du IBAIONDORi buruz, hirigintzako jarduketa-programari dagozkion etxebizitzaren prezioei dagokienez.

### *Ebazpena*

Eskatzaile batek informazioa eskatu du Sindikatura honetan. **Azalpenak eta orientazioak eman dizkiogu** IBAIONDOKo etxebizitzaren esleipenak erregulatu dituen Baldintza Orriari dagokionez, eta kasua **itxiztat** eman dugu, informazio-eskari soila dela uste baitugu.

#### **2.3.1.2.6 Beste batzuk**

- Lokal batetik datozen keak etxebizitza batean sartzea (Erreg. zk: 50-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak esku hartzea eskatu du, bere etxebizitzaren etxabeetan dagoen taberna baten funtzionamenduaren ondoriozko usain eta keak eragiten dituzten eragozpenak direla-eta.

### *Azterketa*

Interesatuak berak eman digun informazioan oinarrituta, Udalaren Ingurumen Sailari eginiko hainbat kexa aurkeztu dira, eta ez dago horien erantzunik. Sindikatura honek txosten-

eskaria egin dio eraginpeko Sailari, eta bertan adierazi digutenez, usainak igotzen dira salaturiko lokaletik salatzailearen pisura arte, eta horrek eragozpenak eragiten ditu, eta era berean salatutakoari lokaleko erauzketa-sisteman egokitzat jotzen zituen neurri zuzentzaileak ezartzeko eskakizuna egin ziotela egiaztatu dugu.

### *Ebazpena*

Kasua **itxitzat** eman dugu, usainen arazoa desagertu egin baita oraingoz.

- Ertzaintza Etxeko banda elektrikoek eragindako osasun-arazoak (Erreg. zk.: 93-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek kexa bat aurkeztu du Ertzaintza Etxearen banda elektrikoen ondorioz dituen osasun arazoak direla-eta. Salatzaileak dioenez, jarrita duen taupada-markagailuari aldaketak eragiten dizkiote, Ertzaintza Etxeko antenetatik datozen uhin elektromagnetikoak direla-eta.

### *Azterketa*

Kasua lehendik salatu dute Arartekoaren aurrean, salatzaileak berak jakinarazi digunez. Lehenik, Txosten Teknikoa eskatu diogu Ingurumen Sailari eraginpeko pertsonaren bizilekuaren dagozkion neurketekin, eskatzaileak jasan duen ustezko kutsadura elektromagnetikoaren jatorria eta nondik norakoa zehazteko.

Ingurumen Saileko teknikariek neurketak egin dituzte eraginpeko herritarraren bizilekuan, Herritarren Defendatzailearen Bulegoko pertsonala bertan zegoela.

Behin neurketak egin ondoren, Ingurumen Sailak eginiko txostena helarazi digute, uhin elektromagnetikoen neurketen emaitzari eta eraginpekoaren ustezko eragin-mailari buruz. Emaitzak mugak baxuak direla adierazten du.

Neurketen emaitzei buruzko informazioa eman diogu bizilagunari, eta osasunerako kaltegarri diren mugen azpitik daudenez, eskatzailea bere medikuari kontsulta egiteko bideratu dugu muga horiek bera erasaten ote duten azter dezan, Eusko Jaurlaritzari (Herrizaingo Saila) zuzendutako idazkiren bat egin ahal izateko, dagozkion neurriak har ditzan.

Eskatzailearen taupada-markagailuak dituen gorabeherak ez dituzte, antza, Ertzaintza Etxeko Eraikinaren instalazio finkoek –hau da, antenek- eragiten, baizik eta Ertzaintza Etxean erabiltzen dituzten frekuentzia-ekorgailuek. Horren arrazoia ondokoa da: neurketaren egunean

normalean instalatuta zeuden antenak aurreko egunean kendu zituzten, eta Ertzaintzaren lur orotako ibilgailu bat ere ez zegoen normalean egoten den lekuan.

Bigarren ohar hau dela-eta, informazioa eskatu diegu Udaltzaingoari eta Suhiltzaileei, ekorgailu horiek euren komunikazio-bitartekoetan eraginik ote duten jakiteko.

Su Itzaltze Zerbitzuburuak bere erantzunean esan digunez, eurek ere arazoak izaten dituzte frekuentzia-inhibidoreen eraginez, esku-hartze puntaletan zein erabilera normalean. Gauza bera erantzun digu Udaltzaingoaren Komisarioburuak, frogatuta baitago agintariak babesteko frekuentzia-ekorgailuek interferentziak eragiten dituztela euren irrati-sarean, eta bereziki oztopatzen dituzte Walkie mugikorrek in eginiko komunikazioak.

#### *Ebazpena*

Bizilagunak atzera egin du, berak hori eskatuta, ez baitio soluziobiderik aurkitzen planteatzen duen arazoari. Hortaz, kasua **itxi** dugu beste agindurik ezean, **BITARTEKOTZA**-lana bete ondoren bitartekotza-eskariari dagokionez.

### **2.3.1.3 Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzua**

#### **2.3.1.3.1 Gomendioak**

- Irisgarritasun-arazoak Vitoria-Gasteizko hainbat zonaldeetan, Juan Aiala plazako aparkalekuan zehazki. (Erreg. zk.: 45-02)

#### *Erreklamazioa*

Minusbaliotasuna duen pertsona bat kexatu egin da Gasteizko hainbat zonaldeetan dauden irisgarritasun-arazoak direla-eta, Juan Aiala aparkalekuan zehazki.

#### *Azterketa*

Kasua aztertu ondoren, bilkura bat egin dugu hirigintza-sailarekin, eta bertan irisgarritasun-arazoak jorratu ditugu, eta zehazki aparkaleku honi buruz, eta argi dago ez dagoela egoki prestatuta, dituen zailtasun arkitektonikoak kontuan hartuta. Bilkura horretan adierazi digutenez, aparkaleku hori Irisgarritasun Legea indarrean sartu aurretik egin zuten, eta, hortaz, ez zegoen horri buruzko ezer aurreikusita.



### *Ebazpena*

Juan Aiala plazako aparkalekuaren irisgarritasun-baldintzei dagokienez **IRADOKI** dugu irisgarritasun-arazoak planteatzen dituzten elementuak ez direla aldatu, besteak beste, 556/89 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa, eraikinetako irisgarritasunari buruzko gutxieneko neurriei buruzkoa (89/05/23 BOE), baino lehen egin zutelako, baita irisgarritasunari buruzko dagokion udal-ordenantza baino lehen ere. Bestalde, udal-gobernuko sail eskudunak adierazi digunez, aparkalekua hartara egokitzea programatu dute, aurrekontu-aukerak mugatuta bada ere, eta hori jakinarazi diogu kontsultaren eskatzaileari.

### **2.3.1.3.2 Ezespenak**

- Egungo oztopo arkitektonikoak kendu beharra zaindu, kontrolatu eta sustatzea, Santo Domingo Plazaren zaharberritze posiblea dela-eta (Erreg. zk.: 20-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek Vitoria-Gasteizko udalaren Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari iritzia eskatu dio Santo Domingo Plazan dauden oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz, Koroatzearen kalearen eta Arriagako Atearen elkargunean.

### *Azterketa*

Eskaria ikusi ondoren, Hirigintza Sailarekin jarri gara harremanetan, hura baita eraginpeko saila, eta hitzezko komunikazio baten bidez jakinarazi digutenez, Santo Domingo Plazaren birmoldatzea aurreikusita dute, eta kontuan izan dute irisgarritasunaren gaia.

### *Ebazpena*

Kexa izapidetarako onartu dugu, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 29. artikulua araberan, eta haren edukia aztertu ondoren, kexa **ATZERA BOTA DUGU**, Administrazioak behar bezala jokatu baitu.

**(Ikus Eranskina, Ezespenak:** Arazoak instalazio irrati-elektrokoekin Komunitatearen teiltuan)

- Jungituko administrazio-batzarreko zenbait finka hiri-lur bezala birkalifikatzea (Erreg. zk.: 91-02)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek iritzia eskatu digu Vitoria-Gasteizko Udalak eginiko jarduketari buruz, Jungituko administrazio-batzarreko zenbait finka hiri-lur bezala birkalifikatzeari dagokionez.

### *Azterketa*

Eskatzailearekin izandako elkarrizketaren ondoren, kexa honen eskatzailearen jabetzako bi finkei buruzko txostena eskatu diogu Amvisa-ri.

Amvisak igorri digun txostenean adierazten denez, kexaren eskatzailea ez dago titular bezala jasota enpresa horrekiko ezein kontratutan. Erabiltzaileari horren berri eman ondoren, finken jabetzarekin loturiko dokumentazioa aurkeztu du, eta bertan bera azaltzen da haien jabe gisa.

Sindikatura honek eskatzailearen eta Jungituko Administrazio Batzarraren arteko bitartekotza-lana egitea proposatu du, Eraginpeko Zerbitzuak, kasu honetan Amvisak, zuzen jokatu baitu, eta arazoa partikularren artekoa da.

### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DUGU** eta Administrazio Batzarraren eta bizilagunaren arteko **BITARTEKOTZA-PROPOSAMEN** bat egin dugu konponbide batera iristeko.

#### **2.3.1.3.3 Baztertzea/Ez-onartzeak**

- Gasteizko saltoki-gune baten hirigintza-hitzarmena (Erreg. zk.: 68-02)

### *Erreklamazioa*

Kexa egin duen enpresak saltoki-gune berri bat egiteko udalaren lurretan lehiaketa publiko bat egitea eskatu du.

### *Azterketa*

Behin kasua aztertu ondoren, bulego honek ezin du eskaturikoa onartu SHDAren.26 e) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**26 e art.)** *Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak kexak errefusatu ahal izango ditu Epaitegietan edo Justizia Auzitegietan dauden gaiak badira.*

### *Ebazpena*

Kexa **BAZTERTU DUGU**, gai hau Auzitegietan baitago, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen 26. artikulua araberaz.

- Aparkaleku-proposamena Nafarroako Errege-erreginen kalean (Erreg. zk.: 44-02)

### *Erreklamazioa*

Kontsulta-egileak Vitoria-Gasteizko hiriko Nafarroako Errege-erreginen kalean aparkaleku bat egitea proposatu du.

### *Ebazpena*

Kasua **ITXI DUGU**, eskari ez-formala, sinatu gabea, egin baitu Sindikatura honetan, eta **BAZTERTZETZAT** jo dugu.

#### **2.3.1.3.4 Beste batzuk**

- Uztako fruituak biltzerik ez izatea Vitoria-Gasteizko Udalak lurak desjabetu dituelako (Erreg. zk.:73-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko patata-ereile batek babesgabe ikusi du bere burua, Udalak zenbait lur desjabetu baititu, eta horren ondorioz ezin izango baititu bere uztako fruituak bildu.

### *Azterketa*

Argi dago kasuak Hirigintza Sailari ohartaraztea eskatzen duela, herritarrak bere uztaren fruituak jasotzeko duen eskubidea izan dezan. Baina herritarrak berak jakinarazi digu obrak burutu aurretik fruitua biltzen utziko diotela.

### *Erreklamazioa*

Kasua **ITXI DUGU interesatuak hori eskatuta**, administrazio eskudunak, kasu honetan Hirigintza Sailak, Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzuak zehazki, eskatzaileak eginiko eskaria onartu baitu.

### **2.3.1.4 Hilerrien Zerbitzua**

#### **2.3.1.4.1 Gomendioak**

- El Salvador hilerriko 164 zk.ko horma-hobien lur-zatiaren urbanizazioaren egoera txarra (Erreg. zk-: 74-02)

#### *Erreklamazioa*

Eskatzaileak erreklamazioa aurkeztu du El Salvador Hilerriko 164 zk.ko horma-hobien lur-zatiaren urbanizazioaren kontserbazio eta mantentze-egoera txarra dela-eta. Zonaldeko lurzorua hilabeteak dira oraindik urbanizazio-fasean dagoela, eta aldi berean sastraka ere hazi da, eta horrek abandonu eta zaindu gabeko itxura tamalgarria ematen die bertan lurperaturikoen familiarreko eta lagunei.

#### *Azterketak*

Batera entregaturiko argazki-dokumentuen azterketa soilak nabarmen adierazten duenez, argi dago hilerriko adierazitako zonaldea mantentze-egoera txarrean dagoela. Eskatzaileak eskubide osoz alegatu zergaduna dela, hilerriaren dagozkion mantentze-tasak ordaintzen baititu, bere familiarrekoaren gorpuzkinak ahal den hobekien zain ditzaten, eta horren orde, hilabeteetan ikusi behar du lekua abandonatuta eta zaindu gabe dagoela. Hilerriak udal-kudeaketako lekuak dira, eta ez dira soilik osasungarritasun-kontuak direla-eta zaintzen, gu guztion pertsona maitatuen oroimena eta maitasuna ere gordetzen da bertan, autoestimubalioak eta sentimenduak ere daude tartean, eta zorrotz eta tentuz tratatu behar dira.

#### *Ebazpena*

Hori dela-eta, Udaleko dagozkien zerbitzuei **GOMENDATZEN DIEGU** aurrekontu-aukerak ahalbidetzen duten neurrian El Salvador Hilerriko adierazitako zonaldea behar bezala urbanizatu dezatela, eta dena den, inguruan hazitako sastraka guztia berehala garbitu eta kendu dezatela, lekuaren ohorea hondatzen baitu.

Sail eskudunak **GOMENDIOA ONARTU DU**, eta adierazi digutenez, zoladura hobetu dute, horma-hobien kalearen urbanizazioan zehazki, eta bestalde, erreklamazioaren xede den lur-zatia ere garbitu dute.

## 2.3.2 OGASUN-SAILA

### 2.3.2.1 Ondare Erantzukizunaren Atala

#### 2.3.2.1.1 Gomendioak

- Hornitegi bati eragindako kalteak, hura dagoen hiribidea itxi dutelako (Erreg. zk.: 113-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hiriko herritar batek kexa bat aurkeztu du Bulego honetan, eta bertan adierazi duenez, kalteak eragin dizkiote Hornitegi bati, hura dagoen hiribidea itxi dutelako. Zonaldea obrak burutzen ari direlako itxi dute.

Eskatzaileak lehendik ere aurkeztu dio Udalari ondare-erantzukizunagatiko administrazio-erreklamazio bat, baina oraindik ez dio erantzun.

#### *Azterketa*

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42.1 artikuluan izaera orokorrarekin ezarritakoaren arabera, nahitaez erantzun behar dio espresuki administrazioak administrazio-erreklamazioari Ondare Erantzukizunaren Atalaren bidez, 2001eko apirilaren 23an sorturiko atala.

Bestalde, ebazteko legez ezarritako epea 6 hilabetekoa da (Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42.2 artikulua).

Epea ez betetzeak diziplina-erantzukizuna eskatzea eragin dezake, eta administrazioaren isiltasuna egoteak ez du Administrazioa salbuesten erabakitzeke betebeharretik.

**GOMENDIOA** egin diogu Ogasun Sailari, eraginpeko Zerbitzuari bizilagunaren eskariari erantzun behar diola gogoraraziz, kalte-ordain ekonomikoko eskaria egin eta ez baitiote erantzun.

### *Ebazpena*

Arestian adierazitakoaren arabera, **GOMENDIO** bat egin dugu, eta bertan jasota dagoenez, nahitaez ebatzi behar da eskatzaileak 2001eko apirilaren 23an eginiko Ondare Erantzukizuneko Erreklamazioa, eta 2001eko uztailaren 8an kendu zuen, erantzunik izan gabe.

**EZ DUTE GOMENDIOA ONARTU**, Saitetik igorri duten erantzunak dioenez, interesatuak eginiko Ondare Erantzukizuneko Erreklamazioa Espresuki Ezesten duen Ebazpena egin zela jotzen baitute.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak**: Erantzunik ez ematea Ondare Erantzukizuneko Erreklamazio bat dela-eta)

#### **2.3.2.1.2 Ezezpenak**

- Udalak Espainia Plazan instalaturiko karpa bateko olana batek betaurreko batzuk hautsi izana (Erreg. zk.: 75-02)

### *Erreklamazioa*

Eskatzaileak bere betaurrekoen haustura kobratzea eskatu du, Udalak Espainia Plazan instalaturiko karpa bateko olana baten mugimenduaren eraginez hautsi baitziren.

### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko Udalaren ondare-erantzukizunari buruzko erreferentziazko espedientea ikusi ondoren, eskatzaileak hori eskatuta, eta bertan, alde batetik, kalte efektibo bat egotea eskatzen dela, ekonomikoki ebaluagarria eta indibidualizatua eta kaltetuari nahitaez juridikoki ez dagokiona, eta, bestetik, kalte hori jardunean ari den Administrazioari egotz dakiokela, administrazioaren funtzionamenduaren ondorio baita, ez dugu loturarik ikusten udal-administrazioaren eta eragindako ondorioen artean.

### *Ebazpena*

- Eginiko erreklamazioa **EZETSI EGIN DUGU**, ez baitugu kausalitate-erlaziorik ikusten udal-zerbitzu publikoen eta alegaturiko kalteen artean.Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 102-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek gure bulegora jo du udal-administrazioaren kalte-ordaina eskatuz, zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean izan duen eroriko bat dela-eta.

### *Azterketa*

Sindikatura hau harremanetan jarri da Ogasun Sailarekin, Ondare Erantzukizunaren Atalarekin zehazki, eta eskatzailearen eraginpeko Zerbitzuarekiko bitartekotza-lana egitea proposatu diogu eskatzaileari.

Sailetik adierazi digutenez, ez dute gure iradokizuna onartu, bai baitago kasurako ebazpen tinko bat.

### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DUGU**, alderdietako batek, kasu honetan Udalak, ez baitu nahi bitartekotza-lanik egitea.

- Bide publikoko zuhaitzetatik jausitako hostoek eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 40-02)

### *Erreklamazioa*

Arabako hiriburuko herritar batek kexa bat aurkeztu du bulego honetan jausitako eta bildu gabeko zuhaitz-hosto batzuekin labaintzeagatik izandako erorikoaren ondorioz. Kalte-ordaina eskatu dio Vitoria-Gasteizko udalbatzari bajaran egin behar izan zituen egunengatik eta izan zuzen oin-hausturagatik.

### *Azterketa*

Erreklamazio-egileak eman dizkigun informazioak ikusita eta kasua zehatz aztertu ondoren, badakigu aurkeztu diguten gaia konpontzeko prozesu aurreratuan dagoela, hau da, konpondu dutela administrazio-bidetik Sinadura Egintza baten bidez eta horren aurka ezin da Administrazioarekiko Auzi Errekurtsorik ere jarri.

Bestalde, kasuaren ebazpenak ezin du egitezko baloraziorik eman erorikoa eragin zuen arrazoiari buruz, hori ezin baita hotzean identifikatu proba-prozedura kontraesankorrik gabe, eta hori ez dagokio Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulego honi.

### *Ebazpena*

Igorritako informazioa ikusita eta arestian adierazitakoaren arabera, **EZIN DUGU** eskaria **KONTUAN HARTU**, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 31. artikulua arabera, bertan dioenez “*Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen jarduketek ezin izango dituzte gertaturiko Administrazio Egintzak deuseztatu edo aldatu*”. Hori guztia dela-eta, amaitutzat eman dugu kasua.

- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk.: 124-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erakundera jo du kexa bat egiteko Vitoria-Gasteizko kale baten egoera txarrarengatik, horren ondorioz eroriko bat izan baitzuen, horrek eragindako ondorioekin.

Zoladura hondatuak eragindako kalte-galerak ordaintzea eskatu dio Udalari.

### *Azterketa*

Elkarrizketa bat izan dugu eskatzailearekin, eta horri buruzko dokumentazioa aurkeztu digu. Dokumentazio horretan erorikoa izan ondoren egin zuten txosten medikoa erantsi du; erorikoaren ondorioz ezkerreko orkatilaren haustura izan zuen, eta horrek ebakuntza, ospitaleratzea eta oraindik irauten duen errehabilitazioa eskatu du. Horretan oinarrituta, eskaera egin du Udalak kalte-ordaina eman diezaion. Adierazi digunez, badira zenbait lekuko datu gehiago eskuratuko dizkigutenak kasua hobeto aztertu ahal izateko.

Behin kexa aztertuta eta eskatzailearen beraren aitopenen arabera, froga bidez ezin da egiaztatu labaindu zen bide publikoan inolako anomalia berezirik zegoenik, lurzoruan izotza zegoela besterik ez.

Konstituzioaren 25. artikulua arabera, Ondare Erantzukizunaren Erregimena haietan oinarrituta Administrazioak beti erantzun behar duen helburu horietakoa da, kalte bat Zerbitzu Publikoaren funtzionamendu normal edo anormalari lotzerik badago, nahiz eta erregimen hori salbuetsita dagoen "ezinbesteko arrazoiren bat" badago. Ezinbestea ezin saihestu daitekeen edozein zirkunstantzia aurreikusi ezin daitekeena edo aurreikusi daitekeena da; hortaz, elurra eta izotza bezalako fenomeno atmosferikoak ezinbesteko zirkunstantziak dira, eta horien aurka Administrazioak egin dezakeen gauza bakarra zenbait aurreikuspen arrunt eta arrazoizko hartzea besterik ez da, kaltea ahal den neurrian saihesteko.



### *Ebazpena*

Hori dela-eta, kexa **EZIN DUGU KONTUAN HARTU**, Orientazio Juridikoaren Zerbitzuak, hala badagokio, adierazten dizkion legezko egintzen kalterik gabe, kasua hartara **BIDERATU** baitugu.

(**Ikus Eranskina, Ezezpeneak**: Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea)

- Zaborrik eragiten ez duten lonjengatik zaborren zergak ordaintzeak eragindako nahigabea (Erreg. zk.: 36-02)

### *Gomendioa*

Kontsulta-egileak zaborrik eragiten ez duen lonjarengatik zaborren zerga ordaintzea bidezkoa den galdetu du.

### *Ebazpena*

Zergen ordenantza aztertu ondoren, haren **eskaria ez dela egokia** erabaki dugu, "Zaborrak Bildu eta Suntsitzeagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantza" (ALHAO, 150 zk., 2001/12/31koa, 6.3. idatz-zatian ezarritakoa). Zergak zerbitzuaren prestasuna du ardatz eta Udalak zerbitzua ematea, bizilagun bakoitzak zerbitzua zein intentsitatearekin erabiltzen den alde batera utzita. Kexa **EZ DUGU KONTUAN HARTU**.

#### **2.3.2.1.3 Orientazioak**

- Zoladuraren egoera txarrak eraginda kalean erortzea (Erreg. zk: 78-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko eta Herritarren Defendatzailearengana jo du kalean izandako eroriko dela-eta, bide publikoan egoera txarrean zeuden zenbait baldosak eraginda.

Kalte-ordaina eskatu du bide publikoan izandako erorikoak eragindako zauriak eta arazoak direla-eta.

### *Azterketa*

Erabiltzailea Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin biltzeko elkarrizketara bertaratu da erorikoan izandako ondorioei buruzko dokumentazioarekin.

Behin kasua aztertu ondoren, Sindikatura honek kexa aurkeztu arte egin dezakeen ekarpena bere arazoarekiko har zitzakeen jarduketei buruzko gomendio edo aholkuan oinarritu zen.

Horretarako, Ondare Erantzukizunaren Atalari Erreklamazio bat egitea iradoki diogu, eta gure babesa eskaini diogu erreklamazioa egiteko.

Behin erabiltzaileak Erreklamazioa Ogasun Sailean egin duenean, Ondare Erantzukizunaren Atalean zehazki, erabiltzaileak adierazi digunez, sailak haren eskaria onartu du.

### *Ebazpena*

Erabiltzailea Ondare Erantzukizunaren Atalera **BIDERATU DUGU** erreklamazio bat egin dezan, eta erabiltzailearen alde EBATZI dute.

- Egoera txarrean zegoen zaborren seinaleztapen-barrak haren autoari emandako kolpe bat konpontzeko gastuak ordaintzeko eskaera (Erreg. zk.: 149-03)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko hiriko herritar batek kexa bat aurkeztu du bere autoa zaborrak uzteko gune batean aparkatzean izan zuen kolpea dela-eta. Zaborren bilgunea mugatzen zuen barretako bat kanporantz okertuta zegoen, eta ibilgailuko gidariak ez zuen ikusi. Hori dela-eta eragindako konponketaren gastuak ordaintzea eskatu du.

### *Azterketa*

Kexa onartu ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa izan du salatzailearekin eta honek gaiari buruzko dokumentazioa ekarri du. Eskatzailearen dokumentazioa aztertu ondoren, Ondare Erantzukizunaren Atalean aurkeztu beharreko berraztertze errekurtso bat egitera bideratu dugu eskatzailea, ondare erantzukizunaren espedienteari hasiera emateari buruzko gaia dela-eta

### *Ebazpena*

Eskatzailea Ondare Erantzukizunaren Atalera kalteak erreklamatzeko berraztertze-ko errekurtsio bat egitera **BIDERATU DUGU**.

- Lokal pribatu batean azalduriko arrailak bide publikoan eginiko obren ondoren (Erreg. zk.: 43-02)

### *Erreklamazioa*

Lokal bateko jabeak planteatu duenez, Vitoria-Gasteizko Udalak bide publikoan eginiko obra batzuen ondorioz arrailak agertu dira bere lokalaren fatxadan.

### *Azterketa*

Eskatzaileak agertze bat egin du, eta bertan zehatzago azaldu digu bide publikoan obra batzuk egiteagatik eragin dioten arazoa. Horretarako Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregimen Juridikoaren Zerbitzuak eginiko txosten teknikoa ekarri du, eta bertan adierazten denez, lokaleko arrailak lokalaren itxitura-tabikeetan eusten den oinarriaren akatsaren eraginez gertatu dira, ez baitira berriak eta ezin da identifikatu noizkoak diren.

### *Ebazpena*

Erabiltzailea Udalaren Ogasun Sailera zuzendutako Ondare Erantzukizuneko erreklamazio bat egitera **BIDERATU DUGU**, eta bertan egiazta dezala, nahiz eta denbora igaro den kalteak eragin zituzten obrak egin zituztenetik, geroago arte ez direla nabarmen agertu kalte horiek, eta baita ere lehendik ere erreklamazioak egin dizkiola Vitoria-Gasteizko Udalari.

- Judizmendiko Aparkalekuaren plazen giltzen entregan izandako atzerapena (Erreg. zk.: 151-03; 155-03; 162-03; 174-03; 179-03; 180-03)

### *Ebazpena*

Gasteizko Judizmendi eta Santa Luzia auzoko zenbait herritarrek Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo dute Judizmendiko aparkalekuko obrek duten atzerapena salatuz,

2002ko urrirako aurreikusita baitzegoen obraren amaiera. Eskatzaileek salatu dutenez, plaza baten alogera ordaindu behar dute beste aparkaleku batean euren plaza ematen ez dieten bitartean, eta horrek hainbat eragozpen eragin dizkie, garaje-plazak aurreikusitako epea baino hiru hilabete geroago esleitu baitizkiete.

### *Azterketa*

Salatzaileek elkarrizketa izan dute Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta Vitoria-Gasteizko Udala Judizmendiko aparkalekuko garaje-plazaren esleipena atzerapenez egiten ari dela jakinarazi diote.

Babesa eskaini diegu Udaletxean aurkeztu beharreko idazki bat egiteko, aparkalekuaren obren atzerapenaren ondorioz eragindako kalteak erreklamatu.

### *Ebazpena*

**AHOLKUA** eman diegu Udalari zuzendutako erreklamazioaren idazkuntzari dagokionez, garaje-plazaren esleipenean izandako atzerapena dela-eta, horrek kalte ekonomiko bat eragin baitu.

## **2.3.2.2 Diruzaintza/Diru-bilketarako Zerbitzua**

### **2.3.2.2.1 Gomendioak**

- Okerreko premiamendu-jakinarazpena, ez baitzuen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainketari buruzko alde zuzeneko jakinarazpenik jaso (Erreg. zk.: 52-02)

### *Erreklamazioa*

Eskatzailea kexatu egin da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainketari buruzko alde zuzeneko jakinarazpenik jaso ez duelako. Premiamendu-jakinarazpena ere gurasoen etxean jaso zuen, eta jada ez da bertan bizi.

### *Azterketa*

Eskatzaileak aurretik zerga honen ordainketa helbideratua izanak eta premiamendu-errekerimenduaren alde zuzeneko inolako oharrik jaso ez izanak nolabaiteko babesgabetasuna eragin dio eta bidegabeta iruditzen zaio zerga igorri dioteneko %20ko gainkargua.

Sindikatura honen ustez, zerga-Administrazioak zergaren likidazioaren jakinarazpen-betebehar orokorra ez du bete, ZFAOk ordainagiri bidezko aldizkako kobrantzako zergei dagokienez bata bestearen segidako likidazioak hori adierazten duten ediktuen bidez taldeka jakinaraztea ahalbidetzen duen arren, behin dagokion erregistroan, erroldan edo matrikulan altari

dagokion likidazioa jakinarazi ondoren; jakinarazpenik eza arauzko bidetik antolatuta egotea eskatzen da, eta gutxienez interesatuari idatziz jakinaraztea aitorpena, dokumentua edo alta-partea, hura bertan dagoela, berez edo baimenduriko pertsonaren bidez,. Kasu honetan ez dago jasota jakinarazpen hori arauan aurreikusitako baldintzetan egin denik, eta hortaz, eskatzaileak ustekabean hartu du premiamendu-errekerimendua.

Aurretik xedaturikoaz gain, kexa egin duen urtean ez da argitaratu zergen muga-egunen egutegia, eta horrek nolabait informazioko eta alde zuzeneko ohartarazteko lanak bete zitezkeen.

### *Ebazpena*

Arestian azaldutako guztia dela-eta, Ogasun Sailari, Zerga Bilketarako Zerbitzuari zehazki, **GOMENDATU** diogu eskatzailearen eskaria bete dezala, hau da, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren %20ko gaitzargua baliogabetzea eta kontzeptu horren pean ordainduriko diru-kopurua hari itzultzea.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Okerreko premiamendu jakinarazpena, ez baitzuen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainketari buruzko alde zuzeneko jakinarazpenik jaso)

- Jakinarazi beharreko pertsonaren familiarterko bati oker eginiko tasa-ordainketaren jakinarazpena. (Erreg. zk.: 111-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek kexa-idazki bat aurkeztu du erakunde honetan, etxebizitza bateko tasen ordainketari buruz Vitoria-Gasteizko Udalak eginiko okerreko jakinarazpenaren ondorioz; etxebizitza jada hirian bizi ez den alabarena da, eta ordainketa-jakinazpena interesatuaren amonaren bizilekura igorri zuten, harekin harremanik ez duen adineko pertsonari. Jakinarazpen hori baliogabetzea eskatu du, oker eginikoa dela uste baitu.

### *Azterketa*

Jakinazpen irregularra dela uste dugu, Araubide Juridikoaren Legearen 59. artikuluan ezarritakoaren arabera:

**59.1 art.**: “*Jakinazpenak interesatuak edo bere ordezkariak hura jaso duela egiztatzeko moduan egingo dira, baita jakinarazteko egintzaren eguna, nortasuna eta edukia ere*”.

**59.4 art.**: “*Prozedura batean interesatuak ezagutzen ez badira, jakinarazpenaren lekua edo artikulua honetako 1. puntuak aipatzen duen bitartekoa zein den jakiten ez bada, edo bestela, jakinarazpena egiten saiatu arren, ezin izan bada egin, jakinarazpena haren*

*azken bizilekuko Udaletxeko ediktu-taulako iragarkien bidez egingo da, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Autonomia Erkidegoaren aldizkarian edo Probintziaren aldizkarian, jakinarazi beharreko egintza zein Administrazioari dagokion arabera, eta hura eman zuen organoaren lurralde-esparruaren arabera”.*

Erabiltzaileak bere kexan agertu duenez, eraginpekoaren familia tasak ordaintzeko prest dago, baina premiamendu-gainkargurik gabe, aldezturik ez baitzuen zor horren likidazioaren berri izan. Premiamendu-jakinarazpen hori berraztertzeko aldian dago.

**ALDEKO GOMENDIOA** eman diogu Zerga Bilketa Betearazleko buruzagitzari, eta bertan eskatzen denez, interesatuak dagozkion tasak ordaindu behar ditu, ez ordea premiamendu-gainkargua, ez baitzitzaien behar bezala jakinarazi legezko izapideen arabera.

#### *Ebazpena*

Sindikatura honetan eginiko **GOMENDIOAREN** ondoren, interesatuari tasen premiamendu-gainkargua libratzea eskatuz, Vitoria-Gasteizko Udaleko eraginpeko Zerbitzuak, kasu honetan Zerga Bilketa Betearazleak, **ONARTU EGIN DU** eta hortaz, interesatuak etxebizitzaren tasei dagokien ordainketa egingo du soilik, ez ordea ez-ordaintzeak eragindako gainkargua.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Jakinarazi beharreko pertsonaren familiarteko bati oker eginiko tasa-ordainketaren jakinarazpena)

Zonalde debekatuan ibilgailu bat aparkatzeagatik isuna, baina zonaldea ez zegoen seinaleztatua zigorra jarri ziotenean.(Erreg. zk.: 117-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen iritzia eskatu du, zonalde debekatuan bere ibilgailua aparkatzeagatik arau-hausteagatik Vitoria-Gasteizko Udalak jarri dion zigorra dela-eta. Kexan zehazki adierazi duenez, zigorra jarri zioten egunean ez zegoen isuna jarri zioten lekuan aparkatzea debekatzen zuen inolako seinalerik.

Eraginpekoak erregistro bidez aurkeztu ditu alegazioak, nahiz eta ez dituzten kontuan hartu espediente zigortzaileari hasiera emateko orduan, antza garaia baino lehen eginagatik.

### *Azterketa*

Antza denez, salaketa gelditzea debekatuta dagoen seinaleztaturiko lekuan aparkatzeagatik jarri zioten, eta, egia da bai, inguru horretan "pasatzeko debekua " seinale bat egon behar zuela, baina zenbait egun lehenago kendu zuten, egintza bandalikoren baten ondorioz.

Bide Publikoen Sailak salatzaileari adierazi dionez, egia da *gelditzeko debekua* seinale bat falta zela, eta salaketaren hurrengo egunean jarri zuten berriz, hain zuzen ere

Egoera hori zela-eta, aparkatzeko debekuko seinale bertikalik ez zegoelako aparkatu zuen leku horretan herritarrak, baina halere garabiak haren ibilgailua kendu zuen, antza trafikoa oztopatzen zuelako.

Dagokion seinaleztapen bertikala salaketaren egunean bertan ez bazegoen, **eta Administrazioak ondoren egiaztatu du datu hori koordinazio-betebeharraren jardunean**, kasu horretan ezin zaio salaturiko herritarrari inolako administrazio arau-hausterik jarri.

Hori dela-eta, **ALDEKO GOMENDIOA** eman dugu, eta Bide Publikoen Sailari zein Udaltzaingoari igorri diegu, salatzaileari ezin baitzaio zigorrik jarri, isuna jarri zioten egunean seinalerik ez dagoela onartu baita.

Ondoren, herritarra gure bulegora bertaratu da deskargu-idazkiaren ezezpenerekin, eta bertan adierazitako txostena aurkeztuko dio Bide Publikoen Sailari, berriz azter dezan.

### *Ebazpena*

**ALDEKO GOMENDIOA** egin diogu Isunen Kudeaketarako Zerbitzuari, behin multa ezartzeko justifikaziorik ez zegoela egiaztatu ondoren, salaketa baliogabetu dezan eta eraginpekoak bere ibilgailua udal-dependenzietara eraman izanagatik ordaindu behar izan zituen garabi-tasak hari itzultzeko

Ondoren, Bide Publikoen Saitetik jakinarazi dutenez, trafiko-seinalea isuna jarri eta hurrengo egunean ipini zuten berriz, baina ez dute justifikatzen seinalerik ez egotea. **GOMENDIOA ONARTU DUTE.**

**(Ikus Eranskina:** Gomendioak: Seinaleztatu gabeko debeku-zonaldean aparkatzeagatik isuna)

### **2.3.2.2.2 Baztertzea/Ez-onartzea**

- Isunak ez ordaintzeari buruzko bahitura-jakinarezpen bat bitan kobratzea (Erreg. zk.: 18-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar bat bertaratu da Sindiko edo Herritarren Defendatzailearenean, eta isun bat kobratzea eskatu du, bitan ordaindu baitu.

#### *Azterketa*

Zerga-bilketarako zerbitzuaren bere ekimenezko okerreko jarduketa izan da, eta denbora laburrean zuzendu du bitan kobratzearen akats hori.

#### *Ebazpena*

Eskatzaileari kexa espresuki idatzita egin behar dela jakinarazi ondoren, **EZETSI EGIN DUGU**, ez baitago sinatuta, ez eta identifikatuta ere. Hortaz, **KASUA ITXI DUGU IRAUNGITZEA DELA-ETA**.

### **2.3.2.3 Zerga Kudeaketarako Zerbitzua**

#### **2.3.2.3.1 GOMENDIOAK**

- Bide Publikoa okupatzea dela-eta tasa kobratzeko sistema okerra (Erreg. zk.: 137-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek gure bulegora jo du, eta adierazi duenez, alde zurretik obren hondakinak hartara botatzeko Bide Publikoan edukiontzi bat jartzeko Udalari lizentzia eskatuta, Udalak bi hilabeteko erabileragatik kobratu dio Bide Publikoaren Okupazio Tasa hori, eta astebetetz baino ez du okupatu.



### *Azterketa*

Eskatzaileak elkarrizketa bat izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin Bulegoan, eta adierazi digunez, edukiontziak 10/28 eta 11/4 bitartean okupatu zuen Bide Publikoa.

Udalaren arabera 7.5.10 Tasak Arautzen dituen Ordenantzaren interpretazioak absurdura darama, Ordenantzaren arabera tasa desberdina baita okupazioa hilabete natural bateko zenbait egunetan egin edo hilabete baten eta bestearen arteko mugan egitea, eta hori ezin liteke onartu, arbitrarioa baita.

Laguntza eman diogu eskatzaileari berraztertzeke errekurtsio bat egiteko, denboraz larri baitabil.

Arrazoizko denboraldiaren ondoren, **ALDEKO GOMENDIOA** egin diogu Zergen Kudeaketarako Zerbitzuari, eta Udalbatzaren Kabineteari ere bidali diogu, eta bertan adierazten denez edukiontzien Bide Publikoa okupatzeari dagokion 7.5.10 Tasak Arautzen dituen Ordenantza **metro koadroko** igortzen da (**edo zatikia bider hilabetea**), baina ez da hilabetearen denboraldi erreala zehazten.

*Kasu jakin honetan, Bide Publikoa 10/28 eta 11/4 bitartean okupatu zen, eta bi hilabeteren artean okupatu bazen ere, arrazoizko interpretazioak hilabete bakarrez kalkulatu behar zuen tasa, okupazioak ez baitu barne hartu 10/28 eta 11/28 bitarteko denboraldi osoa.*

### *Ebazpena*

**ALDEKO GOMENDIOA** egin dugu, eta tasa Bide Publikoaren okupazio-hilabetearekiko egunen proportzioan kobratzea eskatu dugu, 7.5.10. Tasak Arautzen dituen Ordenantzaren irakurketaren arabera.

Ondoren, eraginpeko Sailak adierazi digunez, **GOMENDIOA ONARTU DUTE**, eta hortaz, erabiltzaileari bide publikoan ezarritako egunen proportzioaren arabera soilik kobratuko zaio tasa.

**(Ikus Eranskina:** Bide Publikoa okupatzea dela-eta tasa kobratzeko sistema okerrari buruzko gomendioa)

### **2.3.3 INGURUMEN-SAILA**

#### ***2.3.3.1 Ingurumen Kudeaketarako Zerbitzua***

#### ***2.3.3.2 Ingurumen Zerbitzua-Kontrol Jarduerak***

##### **2.3.3.2.1 Gomendioak**

- Zarata gehiegi izanagatik lehendik ere salaturiko lokala, gaur egun alokatzeko dagoena  
(Erreg. zk.: 129-02)

##### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko udalerriko herritar batek kexa aurkeztu dio Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari erabiltzaile horrek eginiko hainbat salaketa dela-eta udalbatzak agertu duen pisibotasunagatik, eta baita ere lokaleko geroko jabe edo maizterrei gaur egun Udalak eman diezaiekeen Lizentziari buruzko informazio-eskariak direla-eta.

##### *Azterketa*

Salaketa egin zen unean, lokalak itxita jarraitu zuen, baina hura itxi aurretik lokalaren gaineko pisuetako bizilagunei eragindako gehiegizko zarata eta eragozpenengatiko salaketak ere izan ziren.

Ondoren lokala itxi egin zuten, eta hainbat baldintza eskatu zaizkie maizter berriei lokala egokitu eta martxan jartzeko.

Aurkezturiko gaietan sakonegi sartu gabe, Sindikatura honetan planteaturiko kexari ERANTZUN EGIN BEHAR ZAIO, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 3.1 eta 3, eta 42. aurreikusitakoaren ondorioz.

Administrazioaren eta Administratuen arteko harremanen fede on eta gardentasunaren eskakizunetako bat Administrazioak herritarrek planteaturiko eskaerei erantzutea da, planteatzen zaionari buruz erabakiz. Hori guztia administrazioaren isiltasunaren kalterik gabe.

#### *Ebazpena*

2001eko irailaren 28ko Herritarren Defendatzailearen Araudiak azaltzen duenaren arabera, **GOGORARAZPEN** bat egin dugu, eta bertan adierazten zaio udal-administrazioari erantzun egin behar dizkiola erabiltzaileari hark planteatuta dituen eskaerak, 2002ko apirilaren 17koa, 2002ko ekainaren 24koa eta 2002ko irailaren 4koa, eta kexa egin den egunean oraindik ez dituzte erantzun.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Zarata gehiegi izanagatik lehendik ere salaturiko lokala, gaur egun alokatzeko dagoena)

#### **2.3.3.2.2 Ezezpenak**

- Haren etxeko etxabeetan dagoen taberna bateko Jabeen Komunitate bateko bizilagunei eragindako usainak (Erreg. zk.: 60-02)

#### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek aurkeztu du kexa, bere etxeko etxabeetan dagoen taberna batek eragindako usainak bere etxean pairatzeagatik kexu baita, hark bere erauzgailua etxebizitzaren tximinetara konektatu duenez, horrek usainak eragiten baititu haien sukaldeetan. Ingurumen Sailak esku hartu eta arazoa konpondu du, baina orain tabernako jabeek tabernako sukaldearen leihoak zabaltzen dituzte, eta usainak geletara igotzen dira, tabernako atea ere zabaltzen dute eta usainak arropa zabaltzeko lekura igotzen dira, eta hortaz, ezin da aireztatu.

#### *Azterketa*

Eskatzaileak Ingurumen Sailari eskari bat egin ondoren, Vitoria-Gasteizko Udaleko sailak establezimenduko sukaldeko leihoa etengabe itxita edukitzea eskatu dio, eta ez-betetzeagatik espediente zigortzaileari ere hasiera eman dio, 2002ko martxoaren 22ko Dekretuaren arabera, eta lehendik ere eskatu zitzaion erauzgailu bat jartzea tabernak eraikineko bizilagunei eragiten dien usainaren arazoa konpontzeko.

Ingurumen Sailaren jarduketa gorabehera, Sindikatura honek elkarrizketa izan du Ingurumen Sailarekin, eta bertan adierazi digutenez, zuzen jokatu dute; demandatuari ke-erazgailu bat jartzera behartu zaio legez eta leihoak eta ateak ixtea iradoki zaio usainek bizilagunengan eraginik izan ez dezaten.

#### *Ebazpena*

Hortaz, kexa **EZETSI EGIN DUGU**, administrazioak zuzen jokatu duela uste baitugu, eta **AHOLKUA** eman diogu eskatzaileari lokalaren jabeen aurkako auzi-prozesu batean hasteko aukera kontuan har dezan, hori nahi izanez gero.

(**Ikus Eranskina, Ezeztapenak:** Haren etxeko etxabeetan dagoen taberna bateko Jabeen Komunitate bateko bizilagunei eragindako usainak)

#### **2.3.3.2.3 Baztertzea/Ez-onartzeak**

- Ostalaritza-lokalek gaueko orduetan eragindako zaratak  
(Erreg. zk.: 57-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko hainbat herritarrek aurkeztu dituzte kexak, protesta eginez ordu txikietan taberna eta lokalek eragiten dituzten zaratak direla-eta. Kexa horien aurretik, udaltzaingoak bitartekotza-lanak egin zituen lehen ere zenbait kasutan.

#### *Azterketa*

Kexak tabernek eta aisia-lokalek eragiten dituzten gaueko zaratak ditu ardatz, eta ostalaritzako gaueko ordutegien gaia gogorarazten digu.

Azken bolada honetan gure artean zenbait hiritan (Caceres, Sevilla, Zaragoza...) gertatu izan diren gatazkak aisia-lokalen erabiltzaileen eta bertako bizilagunen arteko arazoak direla-eta, gure boterea arduragabe erabiltzeak eragin ditzakeen ondorioen isla dira.

Auzitegi Konstituzionalak berak herritar bat babestu du, gaueko lasaitasunerako gabetze sistematiko eta etengabea bizitzarako, osasunerako, intimitaterako eta bizilekuaren bortxaezintasunerako funtsezko eskubideen bortxatzea direla onartuz. Zarataren muga jakin batzuk gainditzeari buruz ondoko iritzia du Auzitegi Konstituzionalak:

Espazio publiko baten erabilerari dagokionez bizilagun-taldeen arteko interes-gatazka planteatzen den egoera baten aurrean gaude, baina ez dira nondik norako bereko interes-gatazkak; alde batetik, gaueko ordutegiko atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidea dago, gizaki guztiek gutxieneko isiltasun eta pribatutasun giroa behar baitute loa bezalako bizi-funtzioa egin ahal izateko, eta bestetik, espazio jakin bateko aisia eta dibertimendu nahia dago, eta nahiz eta nahi legitimoa izan, ez da maila bereko premia, eta ez dago espazio jakin bati lotuta. Hiriko Giza Eskubideak Zaintzeko Gutunak (Saint Denis 2000) XX.2 artikuluan ezartzen du hiriko lasaitasunerako eskubidea.

Neguko ordutegia iristearekin batera, egunak laburtzea, eguzki-argia murriztea eta tenperaturak jaitea, une egokian gaude ordutegi-erregimenaren betetze zorrotza ezartzeko, eta baita ere gaueko aisiaren zale diren herritarren ohiturei buruzko gainerako aurreikuspenak ere, eta kafetegi, taberna eta disko-tabernako lokalen erabilerari buruzkoa, ordutegien legezko erregimena arian-arian eta lasai-lasai onartzeko moduan, betiere ezinbestekoa baita hura nahitaez betetzea.

#### *Ebazpena*

GOGORARAZPEN bat egin dugu ordutegien erregimenaren betetze zorrotzari eta gaueko aisiaren zale diren herritarren ohiturei buruzko aurreikuspenei buruz, eta kexa **BAZTERTUTZAT** jo dugu, ez baita modu formalean egin, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikuluan ezartzen denez.

#### **2.3.3.2.4 Orientazioak**

- Gasteizko plaza batean monopatinekin eragindako zaratak  
(Erreg. zk.: 84-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek Vitoria-Gasteizko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo du, hiriko plaza batean izaten diren zaraten berri emanez, monopatina praktikatzen duten zaletuekin eragindakoak.

### *Azterketa*

Kexa ikusita, bilkura bat izan dugu eskatzailearekin, eta adierazi digunez, etengabe egin ditu hartarako eskariak herritarrentzako arreta-Zerbitzura edo 010 zenbakira eginiko deien bidez, arazoa konpontzeko.

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak idazki-eredu bat eman dio kexa-egileari eskari hau egiten duen eskatzailearen egoera berean dauden herritar guztiek sina dezaten, Vitoria-Gasteizko Udaleko Erregistroan aurkeztu beharreko kexa-kopuru handia lortzeko

### *Ebazpena*

Aurreko kontsiderazioak oinarritzat hartuta eta interesatuari azaldu ondoren, hasiera batean **amaitutzat** eman dugu esku-hartzea, non eta herritarrak berriz bertaratzen ez badira, Vitoria-Gasteizko Udalak harturiko neurriekin pozik ez daudelako, herritarrei hartarako idazki bat egiteko **LAGUNDU** baitiegu.

#### **2.3.3.2.5 Bitartekotzak**

- Jarduera-lizentzia egokia ez duen lantegiak zarata ozen eta gogaikarriak eragiten dizkie bizilagunei (Erreg. zk.: 136-02)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar bat kexatu egin da bere etxe azpiko garajeak zarata ozen eta gogaikarriak ateratzen dituelako eta eraikineko bizilagunak molestetzen dituelako. Garajea hasiera batean automobilaren ordezkoko piezen denda zen, baina gaur egun konponketa-lanak era egiten dira bertan. Neurri zuzentzaileak hartzeko behartzea eta jarduera-lizentzia berraztertzea eskatu du.

### *Azterketa*

Gaia aztertu ondoren eta kexaren eskatzaileak eskaturiko datuak ikusita, Ingurumen Sailera jo dugu, ustez jarduera ez-legitimoan ari den garajeari buruzko informazioa eskatuz.

Ingurumen Sailak txosten bat igorri digu, eta bertan adierazten denez, salaketaren xede den garajeen helbide soziala duen enpresari Mekanika Bizkorreko Lantegiko jarduerarako lizentzia eman zitzaion, eta isun batekin ere zigortu zuten 2002ko otsailaren 11ko Dekretua ez

betetzeagatik, zegozkion neurri zuzentzaileak IATko makinan, jasogailuan eta lan-bankuan sartzea eskatu baitziztaion, bizilagunei zaratak eragiten baitzizkieten.

Udal Zerbitzu Teknikoen Txostena ikusita Sindikatura honek txostena eskatu ondoren, adierazi digutenez, lantegian ez dituzte beharrezko neurri zuzentzaileak sartu IATko makinaren zarata-mailak murrizteko, eta hortaz, hasiera eman diote dagokion prozedura zigortzaileari.

### *Ebazpena*

Sindikatura honek Ingurumen Sailari eskatu dion txosten-eskaria ikusita, Sailak espedientea ireki dio garajeari aurreko dekretu zigortzailea ez betetzeagatik. Hortaz, **KASUA ITXI DUGU**, Udalak esku hartu baitu arazoa konpontzeko Sindikatura honek eginiko **BITARTEKOTZA**-lana dela medio.

### **2.3.3.3 Cespa**

#### **2.3.3.3.1 Gomendioak**

- AMAYA Udal Zentroaren ondoan kontserbazio-egoera txarra eta zikinkeria aisia-zonalde batean, AMAYA Udal Zentroaren alboan (Erreg. zk.: 109-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar bat Ballester Apezpikuaren kalearen eta Fernan Gonzalez kalearen artean dagoen espazio publikoaren kontserbazio-egoera txarraz kexatu da. Inguru hori AMAYA Udal Zentroaren alboan kokatuta dagoen aisia-zonalde batean dago.

### *Azterketa*

Salaketa jarri duenarekin hitz egin dugu eta esan digunez bada teilape bat leku horretan, non zikinkeria-mota oro pilatzen baita. Ondoren, Sindikoak eta bere laguntzaileak bisita bat egin dute ingurua ikusteko eta herritarrek azladutako kexa egiaztatzeko. Bisitaldi horretan, eta ingurua aztertu ondoren, hainbat urritasun ikusten ditugu; ez dago zuhaitzik, tailategala zaborrez josita dago, lurtean ez dago baldosarik, hormigoiez estalita besterik ez dago, aulkiak hondatuta daude, eta pintadak ere badira “AMAIA” Udal Zentroan. Orokorrean, zikin dago ingurua.

“AMAIA” Udal Zentroaren mende dagoen Iparralde Zentro Zibikoko Zuzendariarekin harremanetan jarri ondoren, inguruan zikikeria asko dagoela adierazi diogu. Berak esan digunez, Mantentze zerbitzura deituko du lekua garbi dezaten.

Nahiz eta ingurua garbitzeko adierazpena egin, **GOMENDIO** bat egin dugu dauden garbitasun-premiak adierazteko eta ahal bezain bizkor behar bezala egokitzeko.

Gomendioaren ondoren, Lehendakaritza Sailarekin elkarrizketa bat izan genuen –Zentro Zibikoen Zerbitzua- eta esan zigutenez eurak arduratuko dira pintaden garbiketaren auziaz,... baina hala ere Gomendioa Bide Publikoen Zerbitzura bildatzeko eskatu dute, horren berri izan dezan.

#### *Ebazpena*

**GOMENDIOA** egin dugu da inguruan dauden urritasunak eta Ballester Apezpikuaren eta Fernan Gonzalez kaleen artean kokatutako espazio publikoaren garbiketa-premia adieraziz. Gomendioa Gizarte Etxeen Zentro Zibikoetako Zerbitzura bidali da, Bide Publikora eta Ingurumen Sailera.

Ingurumen sailetik **GOMENDIOA ONARTU DUTELA** jakinarazi digute, eta garbiketa-talde berezi bat bidali dutela zona horretara.

**(Ikus Eranskina:** AMAIA Udal Zentroaren alboko aisia-zona baten kontsrebazio-egoera txarrari eta zikinkeriarri buruzko gomendioa).

- Zuhaitzen inguruko belar-moztea ez da behar bezalakoa (Erreg. zk. 19-02)

#### *Erreklamazioa*

*Vitoria-Gasteizko herritar batek kexa aiderazi du Vitoria-Gasteizko Udaleko langileek egin duten zuhaitzen inguruko belar-moztea gaizki egin dutela eta. Herritarraren arabera zuhaitzen %80 gutxienez kaltetuta geratzen dira, eta horrek galera handiak dakartza, zuhaitzetako asko idortu egiten baitira.*

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin hitz egin ondoren eta ingurua bisitatu ondoren, zuhaitzak kaltetuta daudela ikusi dugu, eta horregatik Vitoria-Gasteizko lorategien mantentzea behar bezalako



arretaz egitea eskatu dugu, mantentze-lanak egiten dituen enpresak zerbitzua ahal bezain ondo gauzatu dezan, izadia kaltetu gabe.

#### *Eraitza*

Bidezko eginbideak egin ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erregelamenduaren 20 eta 44 artikuluen arabera, **hitzez GOMENDATZEN ZAIO** eskumeneko udal sailari, Parke eta Lorategien Zerbitzuari, bidezko eginbideak egin ditzan Vitoria-Gasteizko berdeguneak behar bezala zaintzeko. **GOMENDIOAREN ONESPENA.**

**(Ikus Eranskina, Gomendioak: Zuhaitzen inguruko belar-moztea ez da behar bezalakoa)**

- Zuhaitz-mozketa posiblea auto-aparkaleku bat egiteko  
(Erreg. zk.: 63-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko udalerriko herri bateko bizilagun bat kexu da agian lur publikoan kokatutako bi zuhaitz moztu direla eta –zume negartia hain zuzen ere- kotxeentzako aparkaleku bat egiteko.

#### *Azterketa*

Egindako azterketaren ondoren eta eskatzaileak ekarritako dokumentazioa ikusi eta gero, zuhaitzen mozketa arrazoia ibilgailuentzako parking bat kokatzea izan dela ikusi dugu, bai eta zuhaitzetako baten zainek ondoko eraikin batzuetan kalteak eragin zitzaizkion ere. Zatziko Aldeko Gomendio bat egin dugu –zuhaitz bakar bat mozte-, ondoko argudioarekin:

Eskatzaileak egindako kexa entzutea merezi du eta gure ustez, jaramon egin behar zaio, zatiz behintzat, ondoko arrazoiengatik:

Vitoria-Gasteizko hiri antolakuntzarako plan orokorrak (ALHAO 2001.02.19) ezartzen du: *Lurzatiaren ertzetan eta barrualdean zuhaitzak eta zuhaixkak landatzeari dagokionez, hiri-inguru horretarako oinarrizko elementuak izango dira eta hauen funtzioa baztertzen edo nabarmen aldatzen duten ekintzak ezin izango dira egin edo, horrelako ondorioak izan daitezkeenean, ez dira ezer egin gabe geratuko.*

Hau da, gure Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorraren arabera hiri-eremuan zuhaitzen eta zuhaisken presentziak berezko balioa du. Bertan izate huts hori ondasun juridikotzat hartzen

dugu, babestu beharreko ondasunatzat. Apaingarri izateko funtzio estetikoaz gain, kontuan hartu beharreko birika berde eta itzalgile naturalak ere badira.

Ikuspegi honetan oinarrituz bistakoa da Sindikaturaren esku-hartzea: ahalegin berezia egin behar da interes ezberdinak lotzeko, guztiak orokorrak eta ez bakarrik partikularrak izanik, eta berdintasun irizpideetan oinarrituz guztiak harmoniaz bateratuz.

Sindikaturak egiten duen **GOMENDIOA** ez da zuzenketa soilekoa, udal instantzia guztien jarduketak zuzendu behar dituen kalitate eta bikaintasun irizpidearena baizik, eta zuhaitz bakarra moztean gauzatzen da. Fatxadaren ezker aldeko zuhaitza da moztu beharrekoa, ondoko garajearen sartzeko atearekiko duen hurbiltasunagatik eraikineko zartaduren eragilea izan baitaiteke. Beste zuhaitza ez da moztuko, behar bezala zaindu eta kimatuz gero ez baita aparkalekurako oztopo izango, haren babesean aparkatutako ibilgaluentzako babes natural gisa jardungo baitu.

Modu honetan bi zuhaitzetako bat behintzat salbatzen da, eta ez da alferrik murizten ondare biologikoa. Ondare biologiko honen aberastasuna kontuan hartu beharreko ondasuna da eta sustapen eta garapen kolektiboko gainerako helburuekin bateratu behar da.

### *Ebazpena*

Udal Administrazioari **ZATIZKO ALDEKO GOMENDIOA** egin ondoren, non zuhaitzetako bat moztea iradokitzen baita, Vitoria-Gasteizko Udaleko dagokion saileko erantzuna jaso dugu, non esaten baitigute obra-mota hau, lur publiko horretan parking bat egitea, alegia, beharrezkoa izateaz gain, hodi berrietarako kanalizazioak irekitzea dakarrela, bai eta etxebitzetarako hartuneak ere, eta horrekin sustrai-sistema larriki kaltetuko litzateke, zainak puskatu egingo bailirateke eta zuhaitzen bizitza nabarmen laburtuko bailitzateke. Hortaz, **GOMENDIOA BIDERAEZINA DA TEKNIKOKI.**

**(Ikus Eranskina, Gomendioak: Zuhaitz-mozketa posiblea auto-aparkaleku bat egiteko)**

- Lokal bat normalean urez betetzen da CESPAn langileek kalea ureztatu ondoren (Erreg. zk.: 108-02)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat, Gasteizko Alde Zaharreko lonja baten jabe dena, kexu da bere lokala kokatuta dagoen kalea ureztatzen dutenean lokala ere urez batetzen zaiola eta, garbiketako langileek kalea zabarkeriaz ureztatzen omen dutelako.

### *Azterketa*

Erreklamaziogileak Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan du eta bere lokala beti urez betetzen dela adierazi dio, CESPako langileek zabakarkeriaz botatzen baitute ura kalera.

Sindikatura honetatik GOMENDIO bat egin diogu dagokion Zerbitzuari, kasu honetan Ingurumen Sailari –CESPA- zerbitzu-ohar baten bidez zera adierazteko: urez betetzen den lokalaren ingurua ureztatzerakoan kontuz urezta dezaten.

Udalari egindako gomendioaren ondoren, erreklamazioa egin duen emakumea berriz ere itzuli da gure bulegora, langileek kalea garbitzen duten bakoitzean berriz ere lokala ureztatzen zaiola adieraziz.

Gauzak horrela, lokalera joatea erabaki dugu eta lokalaren ureztatzea Udaleko garbitzaileek eragindakoa dela ziurtatzeko.

Azken azterketa bat eginez kalea ureztatu dela eta lokalean urik ez dela sartu ikusten dugu. Hori dela eta bizilagunari denbora bat itxarotea eta berriz gertatzen bada gure bulegora etortzea gomendatu diogu.

*Ondoren Ingurumen sailarekin hitz egin dugu egindako Gomendioa kontuan har dezaten kalea ureztatzen duten bakoitzean.*

### *Ebazpena*

**GOMENDIO** bat egin dugu non eskatzen baitugu kaleak garbitzerakoan kontu handiz ureztatzea. Ondoren, **GOMENDIOA ONARTU EGIN DU** Vitoria-Gasteizko dagokion Sailak –Ingurumenekoak-.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Lokal bat normalean urez betetzen da CESPako langileek kalea ureztatu ondoren)

#### ***2.3.3.4 Parke eta lorategien zerbitzua***

- Zuhaitzen inguruko belar-moztea ez da behar bezalakoa (Erreg. zk.: 19-02)

(Ikus Ingurumen Saileko atala -Cespa- Gomendioak)

- Zuhaitz-mozketa posiblea auto-aparkaleku bat egiteko (Erreg. zk.: 63-02)

(Ikus Ingurumen Saileko atala -Cespa- Gomendioak)

## 2.3.4 UDALTZAINGOA

### 2.3.4.1 Gomendioak

- Kalean aske dabilzan txakurrei buruzko problematika, eta baita ere gorotzak ez biltzeari buruzkoa (Erreg. zk: 32-02, 39-02, 69-02, 167-03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hainbat bizilagun, bakoitza bere aldetik kexu dira animaliak edukitzeko Udal Ordenantza ez dela betetzen esanez, eta ordenantza badagoen arren, parke eta lorategietan txakurrak aske ibiltzen direla eta.

Herritar batek txakur baten eraso jasan duela salatu du, bai eta txakurraren jabeak erasoaren unean azaldu duen hezkuntza urritasuna ere.

#### *Azterketa*

Eskatzaileak gure Bulegora agertu dira Animaliak Edukitzeko eta Babesteko Udal Ordenantza bete behar dela eskatuz.

Parke publikoetan txakurrak daudela eta jaso ditugun kexu ugarien aurrean, txakurren jabeek lasaikeriaz jokatzeko dutelarik eta Udaltzaingoak ere Udal Ordenantzak txakurren jabeei ezartzen dizkien obligazioak ez dituztelarik exijitzen, hainbat kontsulta egin dizkiegu –bilerak eginez, idazkiak bidaliz...- txakur-elkarteei, Aratz Txakur Elkarteei adibidez, bai eta dagokien sailei ere, hala nola Udaltzaingoari, Ingurumenari, Cespari eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Osasun eta Kontsumo Zerbitzuari (Demsac), arazoa aztertzeko.

Etxeko abereen erabilera eta edukitzea Animaliak Edukitzeko eta Babesteko udal Ordenantzaren barne hartuta dago oso-osorik. Ordenantzaren konpainiako animalien aldeko xedapenak ezartzen dira, izan ere sufritzeko gai diren izaki bizidunak baitira, eta izaki horiek edukitzea erabaki dutenentzako obligazioak ezarrita daude.

Ordenantzak ez ditu animalien aldeko auziak bakarrik arautzen, baizik eta eskubideak eta betebeharrak ere ezartzen dizkie herritar guztiei txakurrek sor ditzaketen arazoei dagokionez: arazo sanitarioak, identifikaziokoak eta erroldakoak, segurtasunekoak, zaratenak, higienikoak eta garbitasunekoak. Hala eta guztiz ere, Ordenantzak eskatzen duen erantzukizun eta zaintza estandarra, zoritxarrez gure ohiturak baino askoz ere aurrerago doa.

Txakurrak edukitzea arautzen duen Udal ordenantza, bai eta 1999ko Ekaineko txakurren araudiarekiko hausteetarako Jarduketa Plana ere, txakurrak edukitzearen inguruko betebeharrak eta obligazio guztiak bete behar direla gogorarazteko legezko tresna dira. Udal agintariak ordenantzen betetzea exijitzen hasi behar dute modu arrazoizkoan eta era berean eraginkortasunez.

Gai berari buruz Sindikatura honetatik egindako Gomendioan jasoarazi denez, Ordenantzak ez ditu animalien aldeko gaiak bakarrik arautzen, baizik eta txakurrek sor ditzaketen arazoekiko herritar guztien eskubideak eta betebeharrak ere ezartzen ditu: arazo sanitarioak, identifikazio eta erroldakoak, segurtasunekoak, zaratenak, higienikoak eta garbitasunekoak. Hala eta guztiz ere, ordenantzak eskatzen duen erantzukizun eta zaintza estandarra, zoritxarrez, gure ohiturak baino askoz ere aurrerago doa.

Ondoren, Udaltzaingoari Txosten eskaera bat egin genion hiru hilabeteetan animaliak edukitzearen inguruan izan ziren salaketen berri edukitzeko. Txosten horretan azaltzen denez kontrolak egin dira eta atzeman da txakurrik uhalik gabe, batzuk muturrekorik gabe, mikrotxipik gabeak, animalien gorozkiak ez jaso izana... Labur esanda, Udal Ordenantza bete gabe.

### *Ebazpena*

Emandako informazioa arretaz aztertu ondoren, Udal Ordenantza aplikatzea **GOMENDATZEN DUGU**, eta ohar zehatz batzuk ere egiten dira “1999ko Ekaineko txakurren araudiaren urratzeetarako jarduketa planaren” inguruan.

**GOMENDIO** bat egin da animaliak edukitzeari dagokionez Udal Ordenantza bete behar dela gogoraraziz, bai eta animaliak edukitzeak espazio publikoen erabilerari dagokionez sor ditzakeen arazoak eta gainerako herrikideekin dituzten harremanetan izan ditzaketen gatazkak kontuan hartzea behartuta daudela. **GOMENDIOA ONARTUTA GERATU DA.**

Berehalako konponketa ez duen kasutzat hartzen dugunez, aurkeztutako salaketan jarraipena egiten ari gara Udaltzaingoari Txostenak eskatuz.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Kanean aske dabiltzan txakurrei buruzko problematika, eta baita ere gorotzak ez biltzeari buruzkoa)

- Ibilgailu batek izandako kolpea, udal-garabiak hura jaso ondoren  
(Erreg. zk.: 81-02)

#### *Erreklamazioa*

Auzi-jartzaileak adierazi duenez bere ibilgailuak kolpe bat du txapan udal-garabiak hura jaso eta Udaltzaingoaren deposituan utzi ondoren. Erreklamaziogilea guregana etorri aurretik Udaleko Ondare Erantzukinaren Unitatera joan zen baina ez zioten inolako erantzunik eman.

#### *Azterketa*

Administrazioaren ondare-erantzukizuna gure ordenamenduan honakoetan dago ezarria: Konstituzioaren 1.06 2 artikuluan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Ondare Erantzukizunaren Arloan Herri Administrazioen Prozeduretarako Araudian eta Derrigorrezko Desjabetzapen Legean.

Araudi honen arabera, partikularrek euren ondasun eta eskubideetan jasan dezaketen lesio antijuridiko orok kalte-ordaina jasotzeko eskubidea sortuko du, baldin eta zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondoriozkoa baldin bada, salbu ezinbesteko kasuetan edo Legearen arabera partikularrak juridikoki jasan behar dituen kalteen kasuetan.

Ez da beraz erru subjektiboari loturiko erantzukizun bat, baizik eta zerbitzu publiko baten funtzionamendu normal edo anormalari lotzen zaio. Zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik norbanako bati sortutako kaltea nahitaezko desjabetzapenaren filosofiara parekatzen da eta beraz Administrazioaren aurka zuzenduriko ondare-erreklamazio ororen ardatza zeran datza: zerbitzu publiko baten eta administratuak jasandako kaltearen artean kausa-ondorio harremanik ba ote den erabakitzea.

Horregatik, bere ibilgailuaren txapan kalte bat badela egiaztatu du eta arrazoia udal-garabiak jaso izana eta Udaltzaingoaren deposituan utzi izana dela ondorioztatu du.

Interesatuak erreklamazioa jarri zuen horregatik Hirugarren Alkateordearen aurrean, ondare-erantzukizun espedienteari hasiera emanaz.

Interesatuak, eragindako kalteei dagokien fakturaren kopia ekarri ondoren, kaltea benetakoa dela frogatzen du eta hark izan duen kostua azaltzen. Jasota dago beraz garabiak autoa jaso zuela.

Kaltea Udaltzaingoaren Ibilgailuen Deposituan gertatu izanaren kreditazioa ez da administratuak ekar dezakeen froga –ezinezko froga baita hori- eta udal zerbitzuan zaintzapean zegoenean gertatu ez zirela frogatu beharko litzateke.

#### *Ebazpena*

**ALDEKO GOMENDIOA** egin dugu eta eragindako kalteengatiko faktura ordaintzea eskatzen da, Vitoria-Gasteizko udalak daukan ondare-erantzukizunagatik, eta Udalaren eta eragindako kalteen arteko kausalitate-erlazioaren arabera.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Ibilgailu batek izandako kolpea, udal-garabiak hura jaso ondoren)

- Bilurrak erabiltzeari buruzko azalpen zehatzak eta bereziak (Erreg. zk.: 53-02)

#### *Erreklamazioa*

Eskatzaileari epaiketa bat egingo diotela jakinarazi diote eta gu behatzaile bezala bertaratzea eskatu digu. Udaltzaingoaren sektore bat bilurren erabilerari dagokionez, jarduera iraingarriez eta aginte-abusuaz baliatzen dela adierazten baitu. Hori dela eta, ikerketa egitea agindu dugu.

#### *Azterketa*

Eskatzailearekin epaitegiaren aurrean agertzeko eskaeraren ondoren, eta epaimahaiak erabakita bertan agertu ezin garenez, udaltzaingoaren zuzendariarekin bilera bat egin dugu, gaia aztertzeko.

Adierazi beharra dago atxiloketaren polizi-jarduketan herritarren hainbat eskubide pertsonal garrantzitsu konprometituta geratzen direla, Konstituzioaren mailako eskubideak, 17. Artikuluko kalean ibiltzeko askatasuna, bai eta 15. artikuluan onartuta dagoen integritate fisikorako eskubidea ere, biak Espainiako Konstituziokoak. Eskubide hauen garrantziak, beraz, agintearen agente bezala legeak ematen dizkien ahalmenez baliatzerakoan udaltzainek jarduera zuhurra eta neurritusa edukitzea exijitzen du.

Bilurrek bilurritutakoa mendekotasun egoeran uzten dute, atxilotutakoarentzako moralki eta fisikoki umiliagarria den egoeran, hori dela eta neurri hori zuhurtziaz erabili behar da eta kasu bakoitzaren arabera, ez bereizi gabe.

Hirian **Giza Eskubideak Babesteko Gutunak** (Saint Denis 2000), Vitoria-Gasteizko udalak bere egin zuelarik, Udaltzaingoa aipatzen du eta adierazten du herrizaingo honen zeregin bezala ezartzen du delituei aurrea hartzea eta herri-hezkuntza.

Ikuspegi honetatik oso garrantzitsuak dira bilurrien erabilerarekin zerikusia duten polizi-erabilerak, kontrol eta segurtasun tresna bat baitira eta bereizi gabe erabiltzen bada estalitako agresibitate-modu bihurtzen da, udaltzainek berez daukaten prebentzio eta hezkuntza irudiaren zeharo aurkakoa.

Legeak berez konfiantza-marjina bat ematen die udaltzainei eta marjina hori beharrezkoa dute beren funtzioa betetzeko. Ez dugu ahaztu behar, une jakin batzuetan arrisku fisiko nabarmenak jasan ditzaketela. Horregatik ez da jarraibide edota debeku sistema itxi bat ezarri, atxiloketa egiten duen polizia bera izan dadin kasuan kasuko baldintzak ebaluatu ditzakeena.

Gure artean **Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legeak, uztailaren 17koak**, Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoari aplikagarria denak, polizien KODE DEONTOLOGIKOA ezartzerakoan adierazten du poliziak duen eskumeneko botereak ez diola uzten bilurriak arrazoirik gabe erabiltzen, ohitura-kontuagatik bakarrik.

Orokorrean, ez da gomendatzen bilurriak erabiltzea Herri Segurtasuneko legean aurreikusitakoaren arabera pertsona bat identifikatzeko polizia administratiboko jarduketa soiletan, arrisku fisikoko edo ihesaldi-susmoa dagoen kasuetan salbu. Horrela beraz, bilurrien erabilera justifikatuta egongo da poliziak horretarako arrazoirik ikusten baldin badu atxilotutakoan lege-haustearen froga bat bilatzeko eta aurkitzeko garaian, atxilotua edo gainerakoak edozein erasotik babesteko edota atxiloketari aurre egiten dioena atxilotzeko.

*Hori guztia atxiloketaren unera eta atxilotzea bete beharreko lekurainoko bidera mugatuta dago.Ebazpena*

**GOMENDIO OROKORRA** egin diogu Udaltzaingoari bilurren erabilerari dagokionez. Gomendio horretan adierazten dugunez bilurren erabilera bortxazko eta indarrezko egintza da, eta ondorioz udaltzainek premiaren arabera eta neurrian erabili behar dute. Era berean, agenteak premiaren eta neurrikotasunaren printzipioen aplikazioa arrazoizko moduan ebaluatzeko eskubidea du. Udaltzaingoa **ONARTU DU GOMENDIOA**.



(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Bilurrak erabiltzeari buruzko azalpen zehatzak eta bereziak)

- Gauetz ibilgailu eta ziklomotorrekin lasterketak egitea  
(Erreg. zk.: 118-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar bat gure Bulegoan agertu da bera bizi den auzoan gaueko ordu txikitzen egiten diren auto eta moto lasterketak direla eta bere kexa agertzeko. Lasteketa horiek zaratak eta arriskuak eragiten dizkiete auzokideei.

Erabiltzaileak publikoki salatzen beldur dela ere adierazi du, errepresaliak direla eta, borroka izaten baitira, droga-trafikoa,... eta parte hartzen duten gazteetako batzuk bizilagunak direlako.

#### *Azterketa*

Herritarrak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin hitz egin du eta arazoa azaldu dio, baina kexa ez da formalizatuta geratu, nahiz eta Sindikaturak kasua aztertu eta Ofiziozkotzat hartu.

Aztertzen ari garen inguruan egin diren esku-hartzei buruzko eskaera bat egiten diogu Udaltzaingoari.

Udaltzaingoari informazio-eskaera bat egin diogu, lasterketak egiten diren kaleetan espresuki esku hartzeko eskatuz; Loreto Arriola, Jacinto Arregi eta Martin Sarazibar kaleetan, Sansomendi Auzoan.

Udaltzaingoari eskatutako eskaera jaso ondoren, Sindikaturak **GOMENDIO** bat egin du non espresuki eskatzen baita inguru horretan zaintza trinkoa egin dadin.

#### *Ebazpena*

**GOMENDIO** bat egiten dugu, non inguru horri Udaltzaingoak gauez egiten duen zainketa-lanean arreta berezia ematea eskatzen baita, arau-haustaleei euren asmoak kentzeko edo, hala badagokio, bake publikoa hausten duten jarrerak salatzen.

Memoria honen amaieran, Udaltzaingo Sailaren txosten bat egiteke geratzen da. Txosten horretan adieraziko digute gai honen inguruan oraindik ere arazorik ba ote dagoen, eta salaketa jarri zuenak arazoa amaitu ote den esango digu halaber.

**(Ikus Eranskina:** Gauez ibilgailu eta ziklomotorrekin lasterketak egiteari buruzko gomendioa)

- Prostituzioaren jarduera sistematikoak eragindako eragozpenak Betoñoko zonaldean  
(Erreg. zk.: 22-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek erakunde honen aurrean kexu-idazki bat aurkezten zuen, Betoño inguruan izan den prostituzio-hazkundera dela eta, bai eta prostituzioaren jarduera sistematikoak sortzen dituen arazoak salatzeke ere; zaratak, higienerik eza, liskarrak, segurtasunik eza,...

#### *Azterketa*

Udaltzaingoko Zuzendariarekin hitz egiterakoan gai honen berririk ez duela esan digu, baina inguru horretan zaintza gehitzeko eta gaia arretaz aztertzeke konpromisoa hartzen du.

#### *Ebazpena*

Kasua itxitat eman da, udaltzaingoan zaintza handiagoa egin dezan **HITZEZKO GOMENDIOA** eginez. Eskalestriaren obrekin arazoa desagertuko dela espero da.

- Bizilagunei eragozpenak eragiten dizkien etxebizitza batetik datozen zaratak  
(Erreg. zk.: 130-02)

#### *Erreklamazioa*

Etxe bateko bizilagunak gure bulegora etorri dira bizi diren eraikineko pisu batetik datozen zaratekin aspertuta.

Zaratak sortzen diren etxean etxe horretako jabea bizi da, eta hainbat pertsonari alokatu dizkio gelak. Pertsona hauek batzuek gizarte-laguntzak jasotzen dituzte alokairua ordaindu ahal izateke. Gizalegezko jokabideak ez direnak sortzen ditu eta arazoak Komunitatean, etxera eramaten duen jende-motarengatik.

### *Azterketa*

Bizilagunak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana etorri dira etxeko emakume batek sortzen dituen arazoak direla eta beren kexa agertzeko.

Gizartegintza Saileko Zuzendariarekin koordinazioan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei etxean bizi den pertsonari buruzko informazioa eskatu zaie.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara itzulitako informaziotik ondorioztatzen denez, dagoeneko ari dira lanean kasu horretantxe. Aldi berean, Udaltzaingoari etxe honetan konponbide bat aurkitu nahirik egin diren esku-hartzei buruzko Txosten bat eskatu zaio.

Bulegora agertu dira berriz ere etxe horretako hainbat bizilagun eta Jabetzaren Ganberarako egin dituzten idazkiak ekarri dituzte. Azken egunetan gertatu direnen berri ematen digute, zaratak sortzen dituen etxebizitzatik datozenak. Idazki berri bat egiteko laguntza eman diegu. Bizilagunek idazki hori sinatu ondoren Udaltzaingoan aurkez dezaten, hark parte hartu baitzuen azken gertakarietan, eta hori atestatuan erantsi ahal izan dezaten, Instrukzioko Epailea izan dadin baloratuko duena eta Ebazpen bat erabakiko duena.

Fiskal Buruarekin bilera bat egin ondoren gaiaren berri eman zaio bidezko neurriak har ditzan.

Ondoren, Udaltzaingoarekin elkarrizketa bat izan dugu eta **HITZEZ GOMENDATU ZAIE** bizilagunek bidalita iritsiko zaien dokumentua auzi honetako etxebizitzan agenteek egindako esku-hartzean ireki zen atestatuari eransteko, izan ere Fiskal Burua jakinaren gainean dago eta arazoak ematen dituzten pertsonak etxebizitza horretatik bidaltzea erabaki dezake.

### *Ebazpena*

**HITZEZKO GOMENDIOA EGITEN DIO** Udaltzaingoari bizilagunek emandako dokumentua kontuan har dadin atestatuan eta horrela Epaitegira iritsi dadin.

#### **2.3.4.2 Ezespenak**

- Ibilgailuaren zamalanak oinezkoentzako zonaldean egiteko zailtasuna (Erreg. zk.: 90-02 – azalpena honako idatz-zatian: Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua-Ezespenak)

#### **2.3.4.2 Baztertzea/Ez-onartzeak**

- Prostituzioaren jarduna eraikin batean, zaratak eta bizilagunei segurtasunik eza eraginez (Erreg. zk.: 58-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar bat agertu da gure bulegoan bera bizi den jabeen Komunitateko administratzaile bezala, eta eraikineko etxebizitza batean prostituzioan dihardutela azadu digu. Etxe horretan zaratak izaten dira gaueko ordu txikitan, eta sotoan segurtasun eza ere eragiten du, etxebizitza horretan bizi direnen jarduna dela eta (gaueko ordu txikitan atezain automatikoko txirrinak jotzea...).

#### *Azterketa*

Salaketa egin duenaren azalpena entzun ondoren, salaketagilearen alboko Jabeen Komunitateko beste ordezkari bat etortzeko gomendioa egin zaio, han ere arazo bera baitaude.

Interesatuak hitzordua bertan behera uztea eskatu du, eta ez da kasu honen beste berririk izan.

#### *Ebazpena*

Kexa **BAZTERTU** egin da sinatu gabe eta identifikatu gabe dagoelako, eta kontsultatzat hartzen dugu. Horrez gain, **kasua itxita geratu da iraugita dagoelako**.

Bulegoak jakin du arazoa etxebizitza horretako maizterrak kaleratzeko agindu baten bidez konpondu zela.

### **2.3.4.3 Bitartekotzak**

- Arazoak Udaltzaingoaren jarduketarekin, zamalanan ordutegiari dagokionez (Erreg. zk.: 55-02)

#### *Erreklamazioa*

Hau da kexaren oinarria: zamalanan ordutegiari dagokionez Udaltzaingoaren jarduketari buruzko ikerketa eta bitartekotza eskatu du.

#### *Azterketa*

Erakunde honek Udaltzaingoaren Zuzendariari eta Vitoria-Gasteizko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Arduradunari bidali die herritarraren kexa. Udal bandoak zamalanetarako ordutegiak finkatuta dauzkan arren, zamalan horiek sortzen dituzten eragozpenei eta egoera hauetan udaltzaingoak duen jarrerari buruzko kexa azaldu du.

Udaltzaingoaren Zuzendariarekin izandako elkarrizketan kargarako eta deskargarako ordutegi-aldaketa prestatzen ari direla ziurtatu digu. Ordutegi berri honek herritarrei ez dizkie hainbeste eragozpen sortuko eta adierazitako ordutegiak errespetatuko ditu:

*“1993ko otsailaren 8ko Udal Bandoaren arabera, kargarako eta deskargarako ordutegia 9etatik 12etara eta 15etatik 18etara izango da, ordu bete gehiago zabalduz, hau da, 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara erdigunean, Jesusen Zerbitzariak, Aldundia, Andre Maria Zuria, Mateo Moraza, San Frantzisko Aldapa, Kanpokale Berria, San Bizente Paulekoa, Bueno Monreal eta Antepara kaleen artean”.*

Bulego honi jakinarazi zaionez, Udaltzaingoak egokiro betetzen ditu bere funtzioak, bidezko bada dagokion isuna ezarriz, inguru honetako zamalanetarako araudia betetzen ez dela ikusten badu.

*Ebazpena*

**HITZEZKO BITARTEKOTZA** egin du Sindikatura honek, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 18. Artikuluan ezarritakoaren arabera. Dagokion Zerbitzuak zamalanetarako ordutegia aldatuko duela ziurtatzen du.

#### **2.3.4.4 Orientazioak**

- Isuna bide publikoan pixa egiteagatik (Erreg. zk.: 172-03)

*Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo du Udaltzaingoak nahastuta jarri baitio isuna, “bide publikoan pixa egiten ari zelako”.

Karguak kentzeko idazkia prestatzeko laguntza eske etorri da.

### *Azterketa*

Eskatzailearekin elkarrizketa izan dugu eta berak dioenez Udaltzaingoak isuna ezarri dio, “bide publikoan pixa egiteagatik”. Esan duenez, isunean idatzita dagoena ez da egia, eta Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen laguntza behar du karguak kentzeko orria prestatzeko.

Eskaera horren aurrean laguntzea erabaki dugu. Eskatzaileak idazkia Udaltzaingoaren aurrean aurkeztuko du.

### *Ebazpena*

Idazkia egiteko **ORIENTABIDEAK** eman zaizkio eta kasua itxita geratu da agindu berririk izan artean.

## **2.3.5 GIZARTEGINTZA SAILA**

### ***2.3.5.1 Komunitate Jarduerarako Zerbitzua***

#### **2.3.5.1.1 Gomendioak**

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Informazioa eskatzea (Erreg. zk.: 141-02)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko Herritar bat gure bulegora bertaratu da, Udaleko Erregistroaren bidez aurkeztu dituen eskaera idatziei Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek zein berandu erantzun dioten kexu delako. Herritarrak bost bider egin zituen hainbat informazio-eskaera, eta oraindik erantzun gabe daude. Guk parte hartzea eskatu digu bere galderei erantzun diezaieten.

### *Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan dugu eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei egin dizkion hainbat informazio-eskaerarekin lotutako dokumentazioa ekarri du.

Gaien mamian sartu gabe, Sindikatura honen aurrean azaldutako kexa honetan datza: ERANTZUTEKO BEHARRA Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 3.1 eta 3, bai eta 42. Artikuluetan aurreikusitakotik eratorria.

Administrazioaren eta Administratuen arteko harremanen fede onerako eta gardentasunerako zuzeneko eskaera zera da: Administrazioak herritarrek egindako eskaerei erantzutea, azaltzen zaionari buruzko ebazpena emanaz. Hori guztia isiltasun administratiboaren kaltetan izan gabe.

#### *Ebazpena*

Sindikatura honek **GOGORARAZPEN** bat egin dio Gizartegintza Sailari, herritarrari egin zituen informazio-eskaerei buruzko erantzuna emateko.

Gogorazpena **ONARTU** egin du Gizartegintza Sailak. (**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei informazioa eskatzea)

#### **2.3.5.2 Ezespenak**

- Etxebizitzatik botatzea eta larrialdiko pisua eskatzea Gizartegintza Sailari, eta honen ukapena. (Erreg. zk.: 01-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar bikote batek, Sindiko-Herritarraren Defendatzailearengana jo du etxebizitzatik kaleratzeko jakinarazpena jaso ondoren. Idazkian kontratua iraungi dela eta etxetik joan behar dutela adierazi zaie.

Horregatik, Gizartegintza Sailera jo dute larrialdiko pisu bat eskatzeko, euren diru-sarreraren araberrako etxebizitza bat aurkitu artean bertan bizi ahal izan daitezen, eskatzaileetako bat langabezian baitago, noizbehinkako lanak eginez eta beste eskatzailea Lanerako Ezintasun Iragakorreko prestazio bat jasotzen ari da, eta berriki izan duen ebakuntza batetik zuzperten.

#### *Azterketa*

Eskatzaileekin elkarrizketa bat izan dugu eta euren arazoa azaldu digute. Konponbidea aurkitzeko asmoz hainbat kudeaketa egiten hasi gara.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri gara, Gizartegintza Saileko Zuzendariarekin, hain zuzen ere, eta datu interesgarriak eman dizkigu. Eskatzaileek 2001eko amaieran Oinarrizko Gizartegintza Zerbitzuetara jo zuten, eta arazo bera azaldu zuten. Zerbitzu horretatik, diru-laguntzak eskaini zizkieten beste etxe baten alokairua ordaintzeko gastuari aurre egiteko, baina ez zuten onartu. Kaleratzea nahikoa aldeaurrez jakinarazita dago aterarazteko

beharririk izan ez dadin, eta horregatik ulertzen da erabiltzaile honek ezin duela larrialdiko pisurik eduki.

### *Ebazpena*

Herritar hauen kexa **BAZTERTU DA**, Gizartegintza Sailaren jarduketara egokia izan dela pentsatzen dugulako.

(**Ikus Eranskina, Ezespenak:** Etxebizitzatik botatzea eta larrialdiko pisua eskatzea Gizartegintza Sailari, eta honen ukapena)

- Larrialdiko pisu bat eskatzea, bizi zeneko alogera-etxebizitzatik botatzeko jakinarazpena jaso ondoren. (Erreg. zk.: 07-02)

### *Erreklamazioa*

Alogera-erregimenean bizi den herritar batek egin du kexa, eta kaleratzea gertatzeko dauden aukerak galdetu digu. Kaleratzea 02-7-1erako aurreikusita dago kontratua amaitzen dela eta, bera bizi den etxebizitzaren jabeak egindako komunikaizoaren ondoren. Aldi berean, larrialdiko etxebizitza bat eskatzen dio Gizartegintza Sailari.

### *Azterketa*

Azaldutako auziak Gizartegintzako kasua dirudi hasiera batean behintzat. Hori dela eta, larrialdiko pisu batean sartzeko baldintzei buruzko kontsultak egin dizkiogu Udaleko Gizartegintza Sailari berari eta Maiztertza Bulegoari ere.

Behin Gizartegintza Sailak eta Maiztertza Bulegoak emandako datuak jaso ondoren, datu horien balorazio-azterlan bat egin dugu gure eskatzailearen kasurako, bere baliabide ekonomikoen arabera eta etxebizitzaren kontratuaren amaieraren arrazoia kontuan hartuz.

Baliabide ekonomikoei eta kontratuaren amaieraren arrazoiei erreparatuz, eskatzailea ez da sartzen larrialdiko pisuetarako Gizartegintza Zerbitzuek aurreikusitako kasuetan.

Eskatzaileak bazekien bizi zen etxebizitzaren kontratua amaitzear zegoela bai eta etxebizitza berri bat bilatzeko bezainbesteko nahikoa denbora izan zuela ere.

### *Ebazpena*



Eskaera **EZETSI DUGU** larrialdiko zerbitzuetarako Gizartegintza Zerbitzuek aurreikusten dituzten parametroetan sartzen ez delako. Era berean, kexatu den eskatzaileari bere inguruko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joateko **AHOLKATU ZAIO**, han tratu pertsonalizatuagoa emango baitiote larrialdiko pisu bat lortzeari dagokionez, nahiz eta hasiera batean behintzat ez dituen larrialdiko pisuetako erabiltzaile-baldintzak betetzen.

(**Ikus Eranskina, Ezespak**: Larrialdiko pisu bat eskatzea, bizi zeneko alogera-etxebizitzatik botatzeko jakinarazpena jaso ondoren)

### **2.3.5.1.3 Deribazioak**

- Oinarrizko errenta eta AES etetea Gizarteratze-hitzarmena ez betetzeagatik  
(Erreg. zk.: 126-02)

#### *Erreklamazioa*

Gizartegintza Sailaren menpeko gizarte-prestazioen –Oinarrizko Errenta eta AES-erabiltzaile batek, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo du prestazio horiek ukatu dizkiotelako. Onuradunak jakinarazi du prestazioen etendura Gizarteratze hitzarmena ez betetzearen ondoriozkoa izan dela. Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak bitarteko lana egitea eskatu du prestazio horien beste eskaera bat egin ahal izan dezan.

Bestalde, eskatzaileak Gizarte Zerbitzuetatik Haurtzaroaren Balorazio Prozesua egiteko konpromisoa betetzeko eskatu du, Gizarteratze Hitzarmenean barne hartua baitago. Orain artean ez omen du eskatu, adingabeko zaintza galtzeko beldurrez.

#### *Azterketa*

Eskatzaileak erantsitako datuen arabera, prestazioak ukatu zaizkio Gizarteratze Hitzarmena bete ez duelako. Datu hauek eskuan ditugula bilera bat egin dugu Gizartegintza Saileko Zuzendariarekin eta Teknikariarekin, non adierazten baitiote Gizarteratze Hitzarmen horretan ezarri zenaren arabera, hitzarmenak zera eskatzen duela: berak eta bere bikotekideak Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak Balorazio Prozesu batean parte hartzea.

Balorazio Prozesu hori Gizartegintza Sailaren jarduketa-protokoloek ezarrita dago –Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua- adingabekoaren hezkuntza eta zaintza onena lortzeko bermeak zeharo ziurtatzeko.

Aurrez azaldutakoaren ondoren, eskatzaileari eskatu zaio berriz ere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joan dadila, han kasua berriz hartu eta dagozkion izapideak egingo baitituzte.

#### *Ebazpena*

Kasua Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara **BIDERATU DA**, gure eskatzaileak eskatu digun kasuaren gainean lan egin dezaten berriz ere.

### **2.3.5.4 Orientazioak**

- Egoera psikiko larrian dagoen pertsona batek auzoan eragindako zaratak  
(Erreg. zk.: 105-02)

#### *Ebazpena*

Eraikin bateko bizilagun bat agertu da Sindikatura honetara Komunitate bereko bizilagun batek egiten dituen zarata nekagarriak direla eta. Beste bizilagun bat ere agertu zen gurean arazo beragatik kontsulta bat egitera.

Zaratak eragiten dituen bizilagunaren ezgaitasun judiziala eskatzeko aholku bila etorri dira, bizilaguna psikikoki oso ondo ez dagoela ikusi ondoren.

#### *Azterketa*

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak kexatu den emakumearekin elkarrizketa bat izan du eta Ministerio Fiskalari arazoak sortzen dituen bizilagunaren ezgaitasuna eskatzeko dokumentua egiten lagunduko diola adierazi dio.

Eskaera egin duen herritarrarekin hitz egin ondoren eta dagokion Herritar Zentroko gizarte-langilearekin hitz egin eta gero, zaratak eragiten dituen herritarrari buruzko Txosten bat eskatu zaio hari.

Dagokion Herritar Zentroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Txostena jaso dugu Sindikaturan. Txostenean zaratei dagokienez Udalak egindako izapideei buruzko agiriak biltzen dira.

Hartutako txostenen artean, badira Zigor Espediente Larriak, izan ere zaratagileak Udal Ordenazioko Plan Orokorraren 5.02.07 artikuluan eta Zaraten ordenantzaren 14an aurreikusitako

mailak (40 dB-Atan finkatuak 8etatik 22etara eta 28 dB-Atan 22etatik 8etara) betetzen ez dituelako.

Dokumentazioa aztertu ondoren zaratak jasaten dituzten bizilagunei idazki bat egiten lagundu diegu Ministerio Fiskalaren aurrean azal dezaten. Sindikoarekin izandako elkarriketa batean Fiskaltzan aurkeztu beharreko Dokumentua berak sinatzeko eskatu diote, baina adierazi zaie eurek –herritarrek- sinatu behar dutela, eurek ezagutzen baitute zaratak eragiten dituenak. Ondoren, bizilagunak berak dira idazkia Fiskalaren aurrean aurkezten dutenak.

Bilera bat egin ondoren Fiskal Buruari herritar hauen arazoa jakinarazi diogu, jakinaren gainean esku har dezan.

#### *Ebazpena*

Ministerio Fiskalari zuzendutako idazki bat egiterakoan **ORIENTATU** eta lagundu egin diegu, herritarrak izan daitezen Fiskaltzaren aurrean bizilagunaren zaratak salatuko dituztenak. Gaia Ministerio Fiskalera **BIDERATU DA**.

#### **2.3.5.2 Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua**

- Adingabeko bat abandonatzeko arriskua eta gizartegintzako eskaria  
(Erreg. zk.: 49-02)

#### *Erreklamazioa*

Udaleko herritar batek jakinarazi digunez bere semea bere bikotekideak abandonatuta uzteko arrikusan dago. Lehenago izana da Arartekoarenean, baina garai hartan zaintza epaitegiaren eskuetan zegoenez, Arartekoak ez zuen parte hartu. Gizarte-langilearekin harremanetan jartzen saiatu da, baina urruntzeko agindua duenez eta bisita-erregimena bertan behera utzia, ezin du informaziorik lortu. Horregatik, arazo honetan laguntzeko eskatu du.

#### *Ebazpena*

Gai hau dela eta, Gizartegintza sailari informazio-eskaera bat egin ondoren, eta kasua aztertu ondoren, kontsulta **BAZTERTU DUGU KASUA PROZESU JUDIZIAL BATEAN ZABALIK DAGOELAKO**, RSDV/SHDAko 26 e) artikulua araberera.

#### **2.3.5.3 Gizarteratze Zerbitzua**

Sindikoak Udalaren aurrean bitartekotza-lana egiteko eskaria Vitoria-Gasteizko presoen problematikari dagokionez (Erreg. zk.: 23-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar-talde batek Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari udalaren aurrean bitartekotza-lanak egitea eskatu dio zigorra betetzen ari diren Vitoria-Gasteizko preso guztien egoera dela eta. Vitoria-Gasteizko udalak hiri honetako preso guztiei buruzko Espetxe Erakundeetako informazioa lor eta eman dezan, nahiz zigorra betetzen ari direnei buruz nahiz prebentzioko espetxeratzean daudenei buruz, askatasun-gabetze horren arrazoia edozein delarik ere, eta aldi berean Vitoria-Gasteizko herritar presoek egoeraren inguruko sentsibilizazio-jarduketara sustatzen den aldi berean.

### *Azterketa*

Zigorra betetzen ari diren Vitoria-Gasteizko preso guztien problematikaren inguruan egin den eskaeraren ondoren, Vitoria-Gasteizko Gizartegintza Sailari gizarteratzeko programei buruzko eskaera bat egin zaio, zeinak guri bidali baitigu kasua azter dezagun.

### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI** egin dugu arrazoi juridikoengatik; datu pertsonalik ezin eman daitekeenez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaen arabera. Lege honek 6. Artikuluan honakoa ezartzen du: *“Izaera pertsonaleko datuen trataerak dagokionaren zalantzarik gabeko onespena eskatuko du, baldin eta legeak besterik xedatzen ez badu”*. Beste jarduera batzuk garatzeari dagokionez ez gaude legeak Udalari berezko gaitzat ezartzen dizkion gaietako baten aurrean (gizarteratzea) baizik eta Udalak berak parte har dezakeen gai eta premia guztien artetik, askatasun eta gaitasun politikoa du aukera batzuei besteen aurretik lehentasuna emateko, bere erabakiak legitimoki kritika politikoa jasan dezakelarik, ordea.

## **2.3.6 ETXEBIZITZARAKO ETA HIRI-BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA**

### **2.3.6.1 Gomendioak**

- Etxebizitza-promesa, Alde Zaharrea dagoen etxebizitza bat eraistearen ondorioz (Erreg. zk.: 96-02)

### *Erreklamazioa*

Emakume adindun batek Andre Mariaren Katedraleko fundazioaren etxebizitza bat du errentan, Udaleko Hiri-berrikuntzarako Eragintegitik beste etxe bat emango diotela agindu diote bizi den etxea eraitsi egin behar baitute. Berri hauek orain hiru urteko kontua dira, eta bizilagunak bere alabaren etxera joan behar izan du, etxea oso hondatuta dagoelako eta egoera arriskugarrian dagoelako.

Hiri-berrikuntzarako Eragintegitik bere arazoari erantzun bat eman diezaioten eskatu du, eta dagoeneko eskatu dio Arartekoari, baina hark ezetsi egin dio eskaera erakunde pribatu batez ari garelako eta harengan eskumenik ez duelako.

### *Azterketa*

Eskatzailea gure Bulegora etorri da Udalari eskaera bat idazteko moduari buruzko informazioa eskatzera. Udal administrazioaren aurrean kexa bat egiteko moduari buruzko orientabidea nahi du. Kexa horretan beste etxebizitza bat eskatzen du lehen bizi zen etxea eraitsi egin baitute.

Eskatzaileak gure bulegoetan egin duen eskaeraren ondoren, bilera bat egin dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin, Andra Mariaren Katedrala Fundazioa izanik Andre Mariaren Katedralaren zaharberritzerako Plan Zuzentzailearen kudeaketaz eta garapenez arduratzen dena. Hainbat erakundez osatua dago, eta horien artean Vitoria-Gasteizko Udala dago, beste etxebizitza bat emateko arduradun subsidiarioa, eskatzaileari aurrez horixe egingo zuela agindu baitzion.

Bilera horretan bizilagunaren eskaera adierazten da, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 18. Artikuluak ezartzen duenez:

**18. artikulua:** *“Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren betebeharra da hiritarrei aholkularitza, bitartekaritza, informazio eta partehartze zerbitzua eskaintzea, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Udaleko Elkarte Anonimoekin, udaleko Autonomiadun Elkartekin, patronatuekin, fundazioekin eta Udal Administrazioa osatzen duten bestelako izakiekin dituzten harremanetan.*

Aldi berean **ALDEKO GOMENDIO BAT** idatzi dugu eta Andra Mariaren Katedrala Fundaziora bidali da, hura baita maizterrari beste etxe bat emateko ardura duena.

Andra Mariaren Katedrala Fundazioak ERRENTATZAILA bezala dauzkan betebeharrak bete ditzala, bere jabegoko etxea zer egoeratan dagoen aztertzea, eta kexa hau egin duen maizterrak alogera-etxebizitza bezala erabiltzeko beharrezko konponketak egitea.

Maizterrari errenta-baldintza antzekoetan beste etxe bat eman behar dio.

Dena den, Vitoria-Gasteizko Udala, Andra Maria Katedralako Fundazioko partaide denez beharrezko jarduketa guztiak egin behar ditu horretarako.

#### *Ebazpena*

Sindikatura honek **ALDEKO GOMENDIOA** egin dio, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari, eta Andra Maria Katedralako Fundazioari ere, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian ezarritakoaren arabera:

**GOMENDIOA ONARTU DA** eta eskatzaileari beste etxebizitza bat eman diote.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Etxebizitza-promesa, Alde Zaharrean dagoen etxebizitza bat eraistearen ondorioz)

- Bizilagunei arazoak eragin dizkien bizilagun batek eginiko obrak  
(Erreg. zk.: 56-02)

#### *Erreklamazioa*

*Vitoria-Gasteizko herritar bat kexu da bere komunitate bereko bizilagun batek egin dituen obra batzuegatik bere etxea egoera gizazpiko edo infrahumanoan dagoelako. Etengabeko hezetasunak eta ur-ihesak direla eta, eskatzailearen eta bere familiaren osasuna arriskuan dago horma-jausia gerta baitaiteke. Horren ondorioz, tratamendu psikiatrikoan dagoela adierazi du.*

#### *Azterketa*

Udalak bi modutan parte hartu du:

- 1.- Obra-lizentziak baimentzen dituen administratzaile bezala. Obra horien ondorioz eskatzailea kalteak jasaten ari da.
- 2.- Jabeen Komunitateko Administratzaile bezala, elementu komunetan kalteak izan direla eta.

Udalak administrazio baimen-emaile bezala izan duen jarduketari dagokionez ez dago zer esanik dagoeneko epai zibil irmoa bai baitago, bai eta Arartekoaren ebazpena ere, eta horregatik Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren arabera ez dagokio berari kasu hauetan parte hartzea.

Aldiz, Udalak bitartekotza-lana egin dezake finkaren administratzaile-zereginari dagokionez, hori dela eta Hiri Jabegoaren Ganberak eskatutakoaren berri eman behar baitu.

Kalteak dituen etxebizitza ikustera joan eta kexa arrazoizkoa dela ikusi dugu. Ondoren, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari gai honi buruzko informazio-eskaera bat egin diogu.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiatik igorritako dokumentazioaren arabera, adiskidetze-egintza bat lortu da, eta beraz bi alderdiak, kalteak jasan dituen bizilagunak eta obrak egin dituenak dokumentu bat sinatu dute, azken honek konpromiso bat hartu du kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obrak egiteko.

Horrela beraz, kexa ezetsita geratu da, bi alderdien arteko akordioa lortu delako.

Denbora batez itxaron ondoren, kalteak jasan dituen bizilagunak berriz ere kexa bat aurkeztu du ez baita inolako konponketarik egin, obra-egileak adiskidetze-egintzan konponketak egingo zituela adierazi zuen arren.

Horrela beraz, Sindikoak parte hartu eta **GOMENDIOA** egin du, eta bertan adierazi du Adiskidetze-Egintzan erabakitako guztia egin behar dela.

Gomendioaren ondoren eta bizilaguna berriz ere Bulegora agertu denez, oraindik ezertxo ere ez dela egin esanez, Hiri Berrikuntzarako Bulegoarekin elkarrizketa bat egin dugu eta kasua konpontzea zaila dela adierazi digute. Hori dela eta, **BITARTEKOTZA** egin dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiako teknikariak goiko bizilagunaren etxean sartu ahal izan daitezen eta obrek eragindako ihesa non dagoen ikus dezaten. Arazoa zertan geratu den adieraziko digute.

### *Ebazpena*

**GOMENDIOA** egin dugu eskatzailearen etxeko kalteen konponketa betearazteko, Adiskidetze-Egintzan hala formalizatuta geratu baitzen.

Ondoren, **BITARTEKOTZA** egin dugu bizilagunen eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren artean, bion artean arazoa konpon dezaten.

(Ikus Eranskina, Gomendioak: Bizilagunei arazoak eragin dizkien bizilagun batek eginiko obrak)

- Erabilera publikoko tutuaz baliatzea partikular bati gasa jartzeko  
(Erreg. zk.: 165-03)

#### *Aurrekariak*

Vitoria-Gasteizko herritar bat gure bulegoan agertu da kexa bat egiteko. Kexa horretan adierazi duenez bere etxean ezin du gas-instalaziorik egin bere jabeen komunitateko beste bizilagun batek erabilera publikoko kanto baterako sarbidea ukatzen diolako.

#### *Azterketa*

Espedientearen azterketari berehala ekin diogu eta, hala, erabiltzailearekin bilera bat egin genuen gaia zehazki zein zen azal ziezagun. Bere etxean gas-instalazioa egiteko dauzkan zailtasunei buruz eskatzaileak egindako eskaerari erantzunez, **Aldeko Gomendio** bat egin genion Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari eta eskatu genion dagokion bizilagunak Erabilera Publikoko Espazioan sartu ahal izan dadin beharrezko neurriak hartzea. Aldi berean, bilera bat egin dugu Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin arazoa azaltzeko.

Ondasunen Araudiaren arabera, 70.1 artikuluan adierazten du: “*Udal Korporazioek edozein unetan hartu ahal izango dutela jabego publikoko ondasunen edukitzea*”, udal-administrazioaren partaidetza beharrezkoa da beraz, bizilagunak ukatu zaion udal tuturainoko sarbidea izan dezan.

#### *Ebazpena*

**ALDEKO GOMENDIOA** egin dugu udal-administrazioari eskatuz eskatzaileak erabilera publikoko tuturako sarbide librea izan dezan beharrezko neurriak har ditzan. Gomendioa Hiri Berrikuntzarako Eragintegiara eta Ogasun Saileko zuzendaritzara bidali dugu – azken hau iradokizun bat izanik Hiri Berrikuntzarako Eragintegiako teknikariekin izandako elkarrizketaren ondoren-.

**GOMENDIOA PARTZIALKI ONARTU DA;** Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak onartu du arazoa konpontzeko egin zuen ordezkari jarduketara ez zela egokiena izan, obren kostua oso handia zela eta.



Ikusirik bizilagunak oztopoak jarri dituela eskatzailea Erabilera Publikoko Espazioan sar dadin, atea kentzeko eskatu zaio.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Erabilera publikoko tutuaz baliatzea partikular bati gasa jartzeko)

### 2.3.6.2 Ezespenak

- Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako eragintegiarekin sinaturiko salmenta-kontratua baliorik gabe uztea (Erreg. zk.: 13-02)

#### *Erreklamazioa*

Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia, SArekin sinatutako salerosketa-kontratu bat bertan behera uztea eskatu du, Eragintegiak asmo txarrez jokatu duela eta. Salmenta baimentzen zuen kontratua garai hartan pisuaren jabearen bikotekidea zenak eta harremanak sinatu zuten, eskaera egin duen herritarra ez baitzegoen sinatu ahal izateko bezain egoera fisiko eta psikiko onean. Gaur bananduta daude.

#### *Azterketa*

Maila zibileko auzia da, salmenta-promesa barne hartuta duen salmenta-negozio juridiko baten balioan eragina duena. Jurisdikzio arrunteko eskumeneko epaitegiek epai eztabaidea ezina eman dute jada auzi honen gainean.

Bestalde, Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia, SAK prozesu osoan asmo onez jokatu du eta sinatutako kontratuei balioa eman besterik ez du egin, gainera kontratu horiek ezin dira baztertu baliozkoak direlako. Hortaz, ezinezkoa da juridikoki erabaki judizialak aldaraztea, behar bezala emandako erabakiak direlako.

#### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DA** Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia, SAren jarduketan inolako irregulartasunik atzeman ez delako.

(Ikus Eranskina, Ezespesak: Etxebizitarako eta Hiri Berrikuntzarako eragintegiarekin sinaturiko salmenta-kontratua baliorik gabe uztea)

### 2.3.6.3 Orientazioak

- Etxebizitza zaharberritzeko premia, izan duen narriadura dela-eta (Erreg. zk.: 166-03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar bat kexu da Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak ez diolako espresuki adierazten zer jarduketa egin behar dituen bere etxea jasaten ari den narriaduraren aurrean.

Hasiera batean, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak idazki bat bidali dio erabiltzaileari adieraziz bera bizi den eraikina birgaitu egin behar dela. Ondoren, etxebizitza-truke bat egiteko aukera dagoela, baina ez dio zehaztasun handiagorik eman.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, hainbat dokumentu ekartzen digularik, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin harremanetan jarri gara, gaiaren inguruan egiten ari diren jarduketan berri eman diezagun.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin izandako bileran zera jakinarazi digute: erabiltzaileak birgaikuntza egiteko obra-lizentzia baduen arren, eraikineko jabe bat ez dago ados. Hiri Berrikuntzarako Eragintegiko teknikari baten arabera beharrezkoa da bizilagunak ados jartzea eraikina birgaitu ahal izateko bizilagunen komunitatea baita birgaikuntzak eragindako kalteak konpondu behar dituen.

Hiri Berrikuntzarako Eragintegitik etxebizitzaren zozketetan lehentasuna emateko aukera aztertzen ari direla jakinarazi digute edo Udalak gordetzen dituen etxeetako bat ematekoa, baina horren eragozpena erabiltzaileak bi hipoteka egin behar izatea da.

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan dugu berriz ere eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin izandako bileraren berri eman diogu. Orientabide bezala esan zaio eraikineko bizilagunekin bilera bat egiteko esan zaio eta birgaikuntza egiten ote den erabaki dezatela.

#### *Ebazpena*

Erabiltzaileari planteatu digun gaia bideratzeko moduari buruzko **AHOLKUA EMAN DIOGU**, eta jakinarazi diogu Birgiakuntza gauzatu dezakeela baldin eta eraikineko jabeen hiru bostenek onartzen badute, Jabego Horizontaleko Legeak adierazten duenez.

Memoria hau amaitzen ari garenean, hartutako erabakiaren zain gaude, bitartean gaia itxita geratzen da.

## **2.3.7 MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA**

### **2.7.1 Ezespenak**

- Ibilgailuaren zamalanak oinezkoentzako zonaldean egiteko zailtasuna  
(Erreg. zk.: 90-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko oinezkoentzako zonalde bateko bizilagun bat Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen aurrean kexatu egin da zera adieraziz: bere ibilgailutik zerbait deskargatu edo kargatu behar duen guztietan isuna jartzen diotela. Hainbat isun ditu jada eta Udaleko erregistroan karguak kentzeko orria aurkeztu du.

Interesatuak indarreko legeriaren berri eskatu du, eta araudi horretan horri buruzko zerbait arautzen ote den galdetu, eta karga eta deskarga bezala hartzen ote diren berak bere etxerako bere ibilgailuarekin astean behin edo bi astean behin egiten dituen erosketen karga eta deskarga.

#### *Azterketa*

Eskaera onartu ondoren Udaltzaingoaren Zuzendariarekin eta Mugikortasun eta Garraioko arduradunarekin bilera bat izan dugu. Bileran karga eta deskargarako ordutegiak adierazi dizkigute eta herritarrak ibilgailu partikular batetik egiteak dauzkan ezohizkotasunak.

Gure udalean gai hau honako ordenantzan dago arautua: *Hiri Izaerako Bide Publikoetan Erabileren, Trafikoaren, Zirkulazioaren eta Segurtasunaren Ordenantza*:

### 13. ARTIKULUA: *Karga eta deskarga*

*13.1- Karga eta Deskargako lanak merkantziak garraiatzeko ibilgailuetan egingo dira, eta ez dira ezein kasutan turismoak izango, horretarako erresebatutako zonetan egingo da eta ezarritako eta dagokion seinalean adierazitako ordutegiaren barruan.*

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Arduradunak jakinarazi digunez, ordenantzak kargatzeko eta deskargatzeko espresuki turismoak baztertzea ez da zeraren ondorioa: ezin dela

Kontzeptuatu posible bezala turismo ibilgailu betetik karga eta deskarga egiteko aukera.

Turismo batetik egindako karga eta deskargako jarduera zona horien erabileratik baztertuta egoteak honetan du funtsa: lehenik, mota horretako zereginak noizean behin egiten direla edo garrantzi gutxikoak direla eta ez profesionalak.

Bestalde, karga eta deskargarako bitarteko normal bezala hartuko balira jarduera horren kontrola asko zailduko lukete eta abusua erraztuko.

Hala eta guztiz ere, Ordenantzak ezartzen duen baztertzea argia den arren eta Zirkulazio Kodeak seinale bertikal eta horizontalekiko Agintaritzaren agenteei, eta haien seinaleei eta adierazpenei, ematen dizkien eskumen orokorren arabera, agintaritzaren agente batek une jakin batean ikusten badu turismo batean karga eta deskarga egiten ari dela ezohiko izaeraz onar dezake jarduketa hori bere erantzukizunpean, eta kasu jakin horretarako bakarrik balio du. Partikularrak beraz mota honetako kasu batean Agentearen baimena eskatu behar du, eta hark baloratuko ditu kasuaren zirkunstantziak.

Bestalde, partikularrak karga eta deskargako jarduera nahiko aurrerapenez presta badezake, Udaltzaingoari eska diezaioke une jakin baterako baimen jakin bat: etxe-aldaketa, altzariren baten lekualdaketa...

Aukera jakin hau da gure ustez Ordenantzak ahalbidetzen duen egokitzapen bakarra.

Arrazoizkoa da karga eta deskargako zonen erabileratik baztertzea turismoak, xedapenaren zabaltasunagatik eta kontrakoa egiteak ekarriko lukeen abusuaren ondorioz, hala eta guztiz ere aukera horrek ez du ezinezko bihurtzen Udaltzain baten salbuespena edo alde zuzenetik Udaltzaingoaren baimena lortzea.

### *Ebazpena*

Kargari eta deskargari buruzko **TXOSTENA** egin da, bai eta salbuespenaren aukerari buruzkoa ere, eta ezohiko tasun horretara iristeko moduari buruzkoa, eta erabiltzailearen kexa **EZETSI EGIN DUGU**.

(**Ikus Eranskina, Ezespak:** Ibilgailuaren zamalanak oinezkoentzako zonaldean egiteko zailtasuna)

- Nahigabea Alava Jeneralaren kaleko mutiloiak direla-eta  
(Erreg. zk.: 95-02; 98-02)

### *Erreklamazioa*

Alava Jeneralaren Kaleko bizilagunek nahigabetuta daudela azaldu dute euren etxeetara joan nahi dutenean izaten dituzten arazoak direla eta. Arazo horiek kalearen peatonalizatorako sistema bezala mutiloi automatikoak ipini direlako sortu dira. Sarbide-txartel bat eskatu dute, kale bereko beste bizilagun batzuek badutenez, ez baitzaie nahikoa iruditzen euren etxera joateko aukera izateko Udaltzainei jakinarazi behar izatea, batez ere asteburuetan eta gauez udaltzainek euren deiei erantzuten ez dietelako.

### *Azterketa*

Erreklamaziogileek egin dituzten alegazioak Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Arduradunari jakinarazi zaizkio, eta berarekin bilera bat izan dugu. Bileran Alava Jeneralaren kaleko sarbiderako dagoen araudiaren berri eman digute.

Vitoria-Gasteizko udal Kontsortzioak egindako bandoaren arabera (2002ko urtarrilaren 12tik indarrean dagoena) zera azaltzen da: hiriguneko zenbait kaletako zirkulazioa ezarritako ordutegi batera mugatzen da autobusen, taxisen, zerbitzu publikoen, larrialdien, Alava Jeneral eta Prado kaleko garaje-plazen jabeen eta Araba Garajearen sarrera bermatuz.

**Asteburu eta jaiegunetan (urtarrilaren 12tik aurrera)** hiriguneko zenbait kaletan zirkulazioa mugatzen da. Hain zuzen ere trafikoari itxita daude honakoak:

- Becerro Bengoa kaleetatik **Prado** kalerako sarrera.
- Foru eta Independentzia kaleetatik **Alava Jeneralaren** kalerako sarrera.

LARUNBATETAN: 16:00etatik.

IGANDETAN: 21:00ak arte.

BESTE JAIEGUNETAN: 7:00etatik 21:00etara.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Arduradunarekin elkarrizketa eduki ondoren, espedienteari erantsitako dokumentazioarekin batera, Sindikatura honek TXOSTEN BAT egin du: “*Peatonalizatutako zonetako mugikortasunari eta garraioari buruz*” eta Alava Jeneralaren kalearen kasurako zehazki.

Alava Jeneralaren kasuan, trafikoari itxi izanak dakartzan mugez gain, itxiera-aldian sarrerek aurreikusita daude, premiazko arrazoiengatik eta aurreikusi ezin diren kasuetarako.

Erdipeatonalizatutako inguru bat denez jada badu lan-jardunaldietan ibilgailu-mota orotarako sarbide-ordutegi zabala, eta kalea itxita dagoenean mutiolo mugikorrez osatutako sistema bat geratzen da ezarrita. Udaltzaingoko zerbitzu zentralizatu batetik kontrolatzen dute pasaerako puntuetan ezarritako telefoniaren bidez, eta horrela kudeatzen da kasu berezietan pasatu behar dutenen joan-etorria.

### *Ebazpena*

Kexari dagokion **TXOSTEN** bat jaulki dugu. Txosten horretan **EZETSI EGIN DUGU** Alava Jeneralaren kalean bizi diren bizilagunen nahia (ezarritako karga eta deskargako ordutegietatik kanpo kalera euren ibilgailuekin satzeko aukera iraunkorra eta librea lortzeko eta mutiolo mugikorren bidez ezarritako sarbide-aukeraren kaltetan izan gabe), hori guztia gai honetan Vitoria-Gasteizko Udalak izan duen jarduera egokia eta ondo oinarritua iruditzen zaigulako.

(**Ikus Txostena:** Nahigabea Alaba Jeneralaren kaleko mutioloak direla-eta)

- Gasteizko kaleak gehiegi peatonalizatu izana, eta horren ondorioz ibilgailuentzako aparkaleku gutxiago daude (Erreg. zk.: 79-02)

### *Erreklamazioa*

Gasteizen bizi den herritar bat kexu da berari dagokion TAO zonako -3. ZONAN hain zuzen ere- peatonalizazioa gehiegizkoa dela eta, ibilgailuentzako aparkalekua zeharo murriztu baita. Horregatik, zona horiek berrantolatzea eskatzen du.

### *Azterketa*

Vitoria-Gasteizko erdiguneko kale askoren peatonalizazioa dela eta, TAOko zonakatzea dela eta, kaleen antolamendua eskatu du kexa azaldu duen herritarrak.

Gai honi buruz Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko Arduradunarekin bilera bat egin ondoren, TAO aparkalekuko zonen banaketa 1996an aldatu zela jakinaraiz digute eta mugatzeko orduan zona bakoitzean bizi diren biztanleen kopurua hartzen du kontuan. 3. Zonan ikusten denez, askoz ere plaza gehiago izaten dira gaueko orduetan egun arruntetan baino.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak jakinarazitako informazioaren arabera 3. ZONAREN mugaketaren inguruan honakoa jakin dugu: nahiz eta zona honetan oinezkoentzako inguru batzuk izan, TAO zona bizilagunen arabera da. Horrez gain Herriguneko erabiltzaile zirkunstantzialen presioa oso handia da zona guztietan eta horregatik puntako orduetan nahiko zaila izaten da aparkalekua aurkitzea.

Une honetan TAO sistemaren berrantolamendua aztertzen ari dira, baina zonen aldaketa ez da bideragarria.

#### *Ebazpena*

Vitoria-Gasteizko Udaleko Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak emandako erantzunaren aurrean, administrazioak zuzen jokatu duela ulertzen dugu, eta horregatik **EZETSI EGIN DUGU** kexa, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. Artikuluaren arabera:

Horrek guztiak ez du baztertzen Vitoria-Gasteizko Udalak TAO sistemaren berrantolaketa egitea ordu-tarte jakin batzuetan dagoen aparkaleku-arazoa konpontzeko.

#### **2.3.4.3 Baztertzea/Ez-onartzea**

- Prostituzioaren jarduna eraikin batean, zaratak eta bizilagunei segurtasunik eza eraginez (Erreg. zk.: 58-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko udaleko eraikin batean bizi den Jabekide Komunitate bat kexu da etengabeko zaratak eta sotoan sortu den segurtasunik eza dela eta, eraikineko etxebizita batean prostituta-etxe bat baitago.

#### *Ebazpena*

Kexa formalizatu ez denez, ez sinadurari ez eta identifikazioari dagokionez ere, kasua **itxi egin da** iraungita geratu delako. Kexa **BAZTERTU EGIN DA**

## 2.3.8 OSASUN ETA KONTSUMO-ZERBITZUA-DEMSAC

### 2.3.8.1 Gomendioak

- Udalaren jarduketa subsidiarioa auzo-patio bat garbitzeko eta utzarazteko arazoa dela-eta (Erreg. zk.: 24-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek, Jabeen Komunitate bateko lehendakari bezala, Erdi Aroko herriguneko auzo-patio bat garbi edukitzea eskatu du. Bizilagunetako batekin desakordioa dagoenez, Vitoria-Gasteizko Udalarari eskatzen dio subsidiarioki jardun dezala erabilera komuneko auzo-patioak garbitu eta utzarazteko.

#### *Azterketa*

Jabeen Komunitatearen adierazpenetatik ondorioztatzen denez, Jabeen Komunitatea bera da jabeetako batekin dituzten desdostasunen ondorioak jasaten dituen. Gainera onartu beharra dago aldi berean jabeetako baten desadostasun-jarrera dela eta, Komunitateak ez duela baliabide askorik eta ahalmenik gabe dagoela.

Komunitateak adierazi du ezinezko suertatu zaiela erantsitako patioak garbitzeko eta ordenatzeko edozein saio eta gainera patioak zikin egotearen errua duen bizilagunak indarkeriaz egin die aurre.

Horregatik, Udalak subsidiarioki patioak garbitu eta hustu egin beharko ditu, Udalak bakarrik baitauka hori bortxaz egiteko gaitasuna, gainera ezinezkoa da bizilagunentzat erabilera komuneko patioetako erabiltzailea garbiketara behartzea.



*Beharrezkoa da adieraztea Komunitateak espresuki adierazi duela Udalak egingo duen garbiketa-lanaren gastua ordaintzeko prest dagoela, baina ez zaio bidezkoa iruditzen isuna jar diezaiotela Komunitatearen eskaera guztiei jaramonik egiten ez dien bizilagun baten jokaerarengatik gertatutakoak zigortzeko.*

#### *Ebazpena*

Gizarte Gaien Arloari **ALDEKO GOMENDIOA** egin ondoren, honek adierazi digu ez dela bidezkoa betearazpen subsidiariorik egitea ez eta beste jarduketarik ere, patioko osasun egoerak ez baitu inolako arrisku higieniko-sanitariorik ekartzen eta ez dira gune osasungaitz bat ere. Horrela beraz, **EZ DA ONARTU GOMENDIOA**.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak:** Udalaren jarduketa subsidiarioa auzo-patio bat garbitzeko eta utzarazteko arazoa dela-eta)

- Animalien babesaren zirkulazioa (Erreg. zk.: 112-02)

#### *Erreklamazioa*

Animaliei Tratu Etikoa Emateko Elkarteak (ATEA) Herritarren Defendatzaile edo Sindikoari zirkulazioa animalien babesarekin zerikusia duen gai bat azaldu dio.

#### *Azterketa*

Kexa azaldu duen taldearekin hitz egin dugu eta kexaren arrazoi ezberdinak azaldu dizkigute. Kasua arretaz aztertu ondoren zenbait jarduketa egin dira taldeak azaldu dituen kexak direla eta.

Kasua aztertu ondoren, **animaliei eskubide subjektiboak onartu beharrik ez dagoela** erabaki dugu, horrela eurekiko betebeharrak ezarriz geure buruei, landareekiko, inguru naturalarekiko, edo ondare artistiko eta kulturalarekiko betebeharrak ditugun antzera, haien aldeko eskubide subjektiborik ezartzen ez delarik. Gure zuzenbide positiboan animaliekiko babes-betebeharrak ezartzen zaizkigu, gizaki bezala daukagun erantzukizunetik abiauta. Europar Batasunaren esparruan badira bi zuzentarau garrantzitsu, eta gai berari buruzko beste batzuk ere lantzen ari dira, alegia:

*86/609/CEE Zuzentaraua, esperimentaziorako eta beste helburu zientifikoetarako erabilitako animalien babesari buruzkoa.*

*90/628/CEE Zuzentaraua, garraioan zehar animaliak babesteari buruzkoa.*

*Euskal Autonomia Erkidegoaren arloan erabakigarria da 6/93 Legea, Animaliak Babestekoa, zeinak 4.1 artikuluan ezartzen baitu ondoko obligazio-markoa:*

*Animalia bat daukanak egoera higieniko-sanitario egokian eduki beharko du, babesteko instalazio egokiak emanez, janaria eta edaria emanez, albaitaritza-asistentzia emanez eta ariketa fisikoa egiteko aukera eskainiz, eta bere espeziearen eta arrazaren arabera premia fisiologiko eta etologikoen arabera arreta emanez.*

6/93 legeak animaliei euren izaeraren aurkako eta berezko ez dituzten edo tratu iraingarria dakarten jokaera eta jarrerak debekatzen ditu.

Bi termino hauek: (1) “euren izaeraren aurkako eta berezko ez dituzten” eta (2) “tratu iraingarria” zuzenbidean kontzeptu juridiko zehaztugabeak deitu ohi direnak dira, hau da, jokabide bat gutxi gorabehera bakarrik deskribatzen duten formulak dira, eta hurbilketa hori ez da zehazten esanahi jakin batean baizik eta prozesu hermeneutiko baten bidez gauzatzen da une bakoitzeko gizarte-kontzientziari jarraituz.

Aurrez azaldutako guztiagatik **ALDEKO GOMENDIOA EGIN DUGU** zirku-ikuskizunetan animaliak dauzkatenek eduki behar dituzten baldintzei dagokienez.

#### *Ebazpena*

**GOMENDIO BAT** egin da animaliak dauzkanak haiek higiene eta garbitasun baldintzetan edukitzeko eskubide eta obligazioei dagokienez.

Eskumeneko Zerbitzuak **ONARTU DU GOMENDIOA**, kasu honetan, DEMSAC-ek.

**(Ikus Eranskina, Gomendioak: Animalien babesaren zirkulu-ikuskizunetan)**

- Gasteizko kaleetako ikuskizun ibiltarrietan animaliak erabiltzeko debekua (Erreg. zk.: 112-02)

#### *Erreklamazioa*

*ATEA Animalien Babeserako Elkarteak gure bulegora agertu da kaleetan animaliekin egiten dituzten ikuskizunetan eta euren berezko ez dituzten jarduerak egitera behartzen dituztenetan kontrol handiagoa ezarzeko eskatuz.*

#### *Azterketa*

Elkarte horrekin elkarrizketa bat izan dugu eta kezkatuta daudela azaldu digute, izan ere Animalien Babeserako urriaren 29ko 6/1993 Legea betetzen ez dela ikusten dutelako. Lege hori

da Euskadin indarrean dagoen araudi orokor bakarra, eta beraz derrigorrezko lege-erreferentzia da.

ATEA taldeak adierazi digu askotan eskatu duela, Udaltzaingoari telefonoz deituta, udaltzainek legea betearaztea, baina gaur artean ez da neurririk hartu gertaera hauek gerta ez daitezen.

Etxe-abere bat, ahuntza adibidez, kaleetan ekilibrisimo eta otzantze ikusizunetan erakustea tratu laidogarria da, eta nahiz eta garai batean onargarria izan, gaur ezin dugu onartu; animaliekiko axolagabetasuna adierazten du, herritarren kontzientziaren aurka doa eta Legeak espresuki debekatzen du.

#### *Ebazpena*

Eta horregatik guztiagatik, **GOMENDIO** bat egin diogu Vitoria-Gasteizko Udalari, eta bereziki abusuzko praktikaren kontrola dagokion Zerbitzuari, Udaltzaingoari, etorkizunean kaleko animalia-ikuskizun informalik onar ez dadin, adibidez ahuntzarena, laidotu egiten baitzaie eta berezko ez dituzten jarrerak hartzen baitituzte.

**(Ikus Eranskina:** Gasteizko kaleetako ikuskizun ibiltarrietan animaliak erabiltzeko debekuari buruzko gomendioa)

### **2.3.8.2 Ezespenak**

- Animalien babesa (Erreg. zk.: 112-02)

#### *Erreklamazioa*

Animaliei Tratu Etikoa Emateko Taldeak (ATEA) Herritarren Defendatzaile edo Sindikoari hainbat gai azaldu dizkio animalien babesarekin zerikusia dutenak. Hauek dira gai horiek:

- 1.- Alde Zaharrea katuen murriztapena eta usoen hilketa Vitoria-Gasteizko hirian animalia-kopurua murrizteko.
- 2.- Herri-lasterketatan astoen edo bestelako animalien erabilera.
- 3.- Animalia bizien zozketari dagokionez Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Udalari ezar diezaiokeen diru-isunaren ordainketari buruzko informazioa.

### *Azterketa*

Kexa egin duen taldearekin elkarrizketa bat izan dugu eta kexatu izanaren arrazoiak azaldu dizkigute. Kasua arretaz aztertu ondoren hainbat jarduketa egin dira taldeak ekarritako hainbat kexari dagokionez.

Hiriko Alde Zaharrea izan den katu-populazioaren murriztapenari edo uso-hilketari dagokionez, gehiegi baitzegoen, gure ustez ez dago Udalarari aurpegiratu dakioken ezer, ez baitago Animaliak Babesteko Ordenantzaren 6/93 Legearen arabera animalia horien legezko babesaren aurkakorik.

Udalak onar ditzakeen Herriko lasterketatan edo desfileetan astoak edo bestelako animaliak erabiltzeari dagokionez, ez dugu aurkitzen halaber, ekitaldi horietan berez, animalien babeserako lege-eremuaren inolako hausterik.

### *Ebazpena*

**EZETSI EGIN DITUGU** kexak, animalien babesari dagokionez udal-administrazioaren aldetik jarduera zuzena izan dela ulertuz.

- Higiene-egoera txarra Jabeen Komunitate baten alboan dagoen lur-zati batean (Erreg. zk.: 82-02)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun bat kexu da bera bizi den etxebizitzatik hurbil lur-zati bat higiene-egoera txarrean dagoela eta. DEMSAC-en esku-hartzea eskatu ondoren, ez da inolako erantzunik izan gai horren inguruan.

### *Azterketa*

Sindikatura honek administrazio-espeditatea aztertu ondoren, DEMSAC-i eskatu zaio eskatzailea kexu den lur-zatiaren ikuskapen higieniko-sanitarioa egitea. Udal departamentu honek –DEMSAC- Osasun Ikuskaritza eta Kontsumo Zerbitzuak adierazitako lekura bisita bat egin duela esan digu –salaketa eragin duen lekura-, eta idatzi duen txostenean honakoa adierazi du: “... *eraiki gabeko lur-zati bat da 1100 metro koadro ingurukoa, irekia eta babesik gabea, sasitza eta belar luzez betea eta askotariko hondakinak dituena.*” DEMSAC-ek lur-zatiaren jabearen izena lortzeko hainbat miaketa egin ondoren, eta orubearen jabea aurkitu ondoren, Bide

Publikoen Sailari horren berri eman zaio lur-zatia ixteko eska diezaion, Sail horri baitagokio lur-zatia hesitzera behartzen duten Hirigintza Arauen betetzearen kontrola.

#### *Ebazpena*

Lur-zatiaren jabeak araudia betetzeko egin diren izapideei dagokienez hainbat udal sailen jarduketak aztertu ondoren, kexa **EZETSI EGIN DUGU** administrazioak zuzen jokatu duelako.

Ondoren, orubearen jabeak lur-zatian hesia jari duela jakin dugu, araudiak eskatzen duena betez.

**(Ikus Eranskina, Ezespak:** Higiene-egoera txarra Jabeen Komunitate baten alboan dagoen lur-zati batean)

- Bizilagun baten desadostasuna Kontsumitzailearen Bulegoaren erantzuna dela-eta (Erreg. zk.: 89-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek Kontsumitzailearen Bulegoaren aurkako kexa aurkeztu zuen, udal-erakunde horrek eskatzailearen bideo-kamera baten konponketarekin erlazionatuta egin zuen eskaera ezetsi zuelako, konponketan arazoak zirela-eta.

#### *Azterketa*

Interesatuak berak eman digun informazioa eta Arbitraje Batzordeak bideo-kameraren konponketari dagokionez egindako ezespina aztertu ondoren, Kontsumoko Arbitraje Batzorderen jarduketa egokia izan dela uste dugu, bideo-aparailuaren konponketaren gatazka berdintasunez ebatzi baita.

#### *Ebazpena*

Gasteizko Arbitraje Batzordearen jarduketan inolako irregulartasunik ikusi ez dugunez, espedientea beste izapiderik gabe **itxi da**, kasua **EZETSI EGIN DUGU** beraz.

### **2.3.8.3 Deribazioak**

- Salaketa bizilagunek eragindako zaratak direla-eta (Erreg. zk.: 143-03)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko auzo bateko bizilagun bat erakunde honetan agertu da bere azpian bizi diren pisuko bizilagunei salaketa jarriz egiten dituzten zaratak direla eta.

### *Azterketa*

Aurkeztu zaigun kexa aztertu ondoren, eskatzaileari Herritarren Bitartekotza Zerbitzura joateko (Demsac) adierazi diogu, alderdien arteko akordiorik lortzen ez badute.

### *Ebazpena*

Herritarren Bitartekotza Zerbitzura **BIDERATU DUGU**, eta kasua **itxiztat** eman dugu, udal-eskumenik ez dagoelako.

## **2.3.8.4 Orientazioak**

- Animalien babesa zirku-ikuskizunetan (Erreg. zk.: 112-02)

### *Erreklamazioa*

*Animaliei Tratu Etikoa emateko Elkarteak (ATEA), animalia bizien zozketarekin erlazionatuta, Herritarren Defendatzaile edo Sindikoari Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Udalarari ezar dakioken diru-isunaren ordainketari buruzko Informazioarekin erlazionatutako gai bat azaldu dio.*

### *Azterketa*

Eskaera egin duen taldearekin elkarrizketa izan dugu eta kexaren hainbat arrazoi azaldu dizkigute. Kasua arretaz aztertu ondoren hainbat jarduketa egin dira.

Animalia bizien zozketarekin lotuta, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Udalarari jar ziezaiokeen diru-isunaren ordainketari buruzko informazio-eskaerari dagokionez, zuzenean dagokion Udal Sailera edo udal osoko bilkurako alderdi politikoen ordezkariengana jo dezan gomendatu diogu.

### *Ebazpena*

Lehen instantzia batean Udalarari, dagokion sailari, informazio-eskaera bat egiteko **ORIENTATU ZAIO**, ondoren aztertu ahal izan dezan.

### 2.3.8.5 Bitartekotzak

- Garaje-plaza bat urez betetzen da hondakin-uren filtrazioak direla-eta  
(Erreg. zk.: 131-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo du hondakin-uren filtrazioak dituen garaje-plaza baten jabe bezala. Filtrazioen ondorioz, zenbait plaza, trasteleku eta korridoretan ura geratzen da. Badirudi Jabeen Komunitateko zorrotan batean gertatzen dela filtrazioa.

Demsac-ek ikuskapena egitea eskatu du, ur fekalak direlako eta osasunaren kalterako arriskua eta fokua egon daitezkeelako.

#### *Azterketa*

Ukitutakoarekin elkarrizketa izan dugu eta bere garaje-plazan kalteak eragiten dituzten filtrazioei buruzko kexa adierazi du. Elkarrizketaren ondoren, kalteak eragiten dituzten garajeen administrazioa daraman gestoriarekin harremanetan jarri gara, eta adierazi diogu filtrazioen arazoaren aurrean beharrezko neurriak ez badira hartzen DEMSAC-i bertan ikuskapen bat egitea eskatuko diogula.

Kexa-egileak adierazi digu guk Jabeen Komunitatearekin hitz egin ondoren arazoa konpontzeko neurriak hartzen hasi direla. Era berean, Jabeen Komunitatearen Administrazioak adierazi digu aurrekontua eskatu dutela garaje-plazan ur fekalen iragazkortasuna konpontzeko.

#### *Ebazpena*

**BITARTEKOTZA** egitea proposatu da, baina arazoa guk esku hartu baino lehen konpondu da.

## 2.3.9 AMVISA

### 2.3.9.1 Ezespenak

- Kanalizazio-obren ondorioz ur-kontagailua lekualdatzea, eta horrek ur-kontsumo handiagoa eragin du (Erreg. zk.: 25-02, 26-02, 48-02)

#### *Erreklamazioa*

Zenbait herritarrek kexa bat egin dute, hornikuntzen kanalizaziorako egin diren obren ondorioz ur-kontagailua lekualdatu dietela, aldameneko etxe batean ipiniz, edo beste kasu batean jabetzako izkina batean ipiniz, etxebizitzatik urrun. Gainera, aldaketa hauen ondoren, ur-kontsumoaren irakurketen emaitzak nabarmen handitu dira.

Amvisari eta obren esleipendunari gertakari horien berri eman zaie, baina ez dute inolako erantzunik eman.

#### *Azterketa*

Kexa aurkeztu ondoren, Amvisari txosten bat eskatu zaio gai horri buruzko kexaren berri ba ote dagoen, kontagailuak instalatzeko irizpide edo araudiren bat badagoen eta kontagailuak euren finketan ez al diren ipini behar adieraz dezan, eta azkenik, Amvisako zerbitzuek instalazioan jarioren bat ote dagoen egiaztatzeke ikuskapenen bat egin al zuten adieraz dezan.

#### *Ebazpena*

Amvisaren aldetik jasotako txostena ikusi ondoren, bertan argi geratzen baita kontagailuen kokalekuari dagokionez bidezko diren neurriak hartu direla 76-1-17ko BOEn, 75-12-9 Aginduan eta 2001eko urriaren 10eko 116 zk. ALHAOn argitaratu zen Vitoria-Gasteizko hirirako Ur Hornidura eta Arazketa Zerbitzuaren Ordenantzan barne hartzen diren “Barne Instalazioetako Oinarrizko Arauak” kontuan izanik. Eta Amvisak jarria dagoela onartu ondoren, erabiltzaileari jakinarazi zaio eta kexa bertan behera uztea erabaki du. Beraz, kexak **EZETSI EGIN DITUGU** Amvisaren jarduketara zuzena izan delako.

**(Ikus Eranskina, Ezespenak:** Kanalizazio-obren ondorioz ur-kontagailua lekualdatzea, eta horrek ur-kontsumo handiagoa eragin du)



- Lokal bateko sotoa urez betetzea, ur fekalen ondorioz  
(Erreg. zk.: 83-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko lokal baten jabea den herritar batek kexa bat egin du, bere lokaleko sotoa urez betetzen dela esanez, dirudienez ur fekalekin gainera. Lehendik kexa hori Arartekoaren aurrean egin zuen, baina eman zioten erantzunarekin ez dago ados.

#### *Azterketa*

Kexa-egileak kexa hori egin duenean dokumentazioa gaineratu du. Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak soto horretan ikuskapen bat egin du, eta Amvisari informazioa eskatu dio eta filtrazioko uren analisia egitea eskatu dio.

Amvisak ere ikuskapena egin zuen eta horri buruzko txostenean adierazi zuen filtrazio horiek ez zutela inolako zerikusirik Amvisaren menpe dagoen edateko uraren Banaketa Sarearekin.

Bestalde, Jabeen Komunitateak enpresa bat kontratatu zuen azterketa tekniko bat egiteko, eta adierazi zuen ur-isurketak ez duela inolako zerikusirik eraikineko zorrotenekin, gune horretan ez dagoelako ur fekalak edo ur edangarria bideratzeko inolako kanalizaziorik.

Kexa-egileak jakinarazi digu aurkitu diren filtrazioak dirudienez aldameneko saltoki batetik datozela, eta ondorioz filtrazio horiek ez dutela inolako zerikusirik udal estolderiarekin. Kexa-egileak berak konpondu du arazoa, sotoa iragazgaiztuz.

#### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI** egin dugu, udal administrazioak arazo horretan eskumenik ez duelako eta zuzen jardun duelako.

## 2.3.10 FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

### 2.3.10.1 Ezespenak

- LEPeko proba batzuetan antzinasun-egunak baloratzea (Erreg. zk.: 38-02)

#### *Erreklamazioa*

Udalaren 2000-2001eko LEPeko proba batzuetako oposiziogile batek, LEPeko hautespen-probetan puntuak ematerakoan herri-administrazioan lan egindako antzinasun-egunei buruz egin behar den balorazioa zalantzan jarri du erakunde honen aurrean.

#### *Azterketa*

Antzinasun-egunen zenbaketaren gaia ezin da banaka eta sistema orokorretik kanpo aztertu, izan ere, LEParen lehiakortasun-konkurrentziako sistema bat denez gero, eguna/hilabetea irizpidea guztioi berdin aplikatu baitzaie.

#### *Ebazpena*

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian emandako eskumenaren arabera, kexa **EZETSI EGIN DA**, udal administrazioaren jarduketa ona izan delako.

### 2.3.10.1.2 Baztertzea/Ez-onartzea

- Vitoria-Gasteizko Udalaren 2000-2001 LEParen Kontrol Ofizialentzako azterketak (Erreg. zk.: 14-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek egin duen kontsulta, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2000-2001 LEParen Kontrol Ofizialentzako azterketei loturik dago, hain zuzen ere elektrizitate probari loturik, eta adierazten du ez direla ongi zuzendu eta defentsa-gabezia sortzen dela, maketak suntsitu egiten direlako.

### *Azterketa*

Adierazitako Oposizioko azterketa teoriko-praktikoa zuzentzeko irizpideei buruzko deklarazioa da, Epaimahai Kalifikatzaileari alegazioak egin ondoren eta epearen barruan gora jotzeko errekurtoa jarri ondoren, eta kexa-egileari ez diote arrazoia eman. Deklarazio hori ez da udalaren eskumenekoa.

### *Ebazpena*

Kexa **BAZTERTU** egin dugu eskumenik ez dugulako, eta **adierazi** diogu administrazioarekiko auzibidera jo beharko duela. Era berean, Toki Administrazioari **iradokizun** bat egin diogu, mota horretako ariketa praktikoen probak ez botatzeko, etorkizunean horrelako akatsik ez egiteko.

- Funtzionarioen lan-kontua (Erreg. zk.: 62-02)

### *Erreklamazioa*

Udal Administrazioako langile-talde batek eskatu du Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Funtzio Publikoaren Arloko Zinegotzi-Delegatuaren aurrean esku hartzea, jarritako errekurtoa erabaki dezan.

### *Azterketa*

Sindikatura honek jarri duten errekurtoa ebazten duen Udalaren aurrean jardun dezan eskatzen duten Funtzionarioen lan-arloko gai baten aurrean gaude.

### *Ebazpena*

Planteaturiko kexa **BAZTERTU EGIN BEHAR DA**, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Erregelamenduaren 26. art. aplikatuz eta 23. art. kontuan izanik, bertan ondokoa baitio:

**23. art.-** Herritarren Defendatzailearengana edo Sindikoarengana zuzendu ahal izango dira, kexa aurkezteko interes legitimoa dutela usten duten hiritarrak edo hiritar taldeak, Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionario edo langile diren pertsonak izan ezik, lan edo zerbitzu harremanen alorrekin erlazionaturiko gaiei dagokienean.

## 2.3.11 KIROL-SAILA

### 2.3.11.2 *Kirol-ekintzen programazio eta antolakuntza zerbitzua*

#### 2.3.11.2.1 Gomendioak

- Tratu-berdintasuna gizon eta emakumeentzako 2001eko XIX. San Silvestre Herri Lasterketan (Erreg. zk.: 106-02)

#### *Erreklamazioa*

Emakume-talde batek gizon eta emakumeentzako tratu-berdintasuna eskatu du 2001eko XIX. San Silvestre Herri Lasterketako sari eta kategoriei dagokienez. Eskuera hori indartzeko, askotariko dokumentazioa aurkeztu du.

#### *Azterketa*

2001eko abenduaren 31n “San Silvestre” Herri Lasterketaren XIX. edizioa antolatu zen Vitoria-Gasteizen. Lasterketak ondoko sari metagarrien taula ezarrita zuen:

| SAILKAPENA  | OROKORRA    | EMAKUMEZKOENA |
|-------------|-------------|---------------|
| 1.          | 200.000 pta | 100.000 pta   |
| 2.          | 150.000 pta | 50.000 pta    |
| 3.          | 100.000 pta | 35.000 pta    |
| 4.          | 75.000 pta  | 20.000 pta    |
| 5.          | 40.000 pta  | 10.000 pta    |
| 1. ARABARRA | 40.000 pta  | 40.000 pta    |
| 2. ARABARRA | 30.000 pta  | 20.000 pta    |
| 3. ARABARRA | 25.000 pta  | 15.000 pta    |
| 4. ARABARRA | 15.000 pta  | 10.000 pta    |
| 5. ARABARRA | 10.000 pta  |               |

Lasterketa horretan ezarrita dagoen sarien sistema emakumezkoen kirolaren aurkako DISKRIMINAZIO NEGATIBOAREN adibide argia da.

Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Udalean *Emakumeentzako Ekintza Positiborako Udal Plan bat* egon badago, Plan hori Udalaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen, eta emakumearen arazoarekin konpromisoa hartuta duten gizarteko atal ezberdinek idazkuntzan parte hartu zuten, Berdintasunaren Kontseiluaren bitartez (1999-2003).

Plan honetan, Kirol Arloari (3. Arloa) zuzenean loturik, ondokoa adierazten da: *“kirol jarduera guztietan emakumeen parte-hartzea bultzatzea ezinbestekoa da”*.

2001eko San Silvestre Herri Lasterketa banatuta zegoeneko bi kategoria nagusiak Kategoria Orokorra eta Emakumezkoen Kategoria izatea, ezin da emakumeen kirola berdintasunean sustatzeko formula egokitzat hartu.

Aipatzen ari garen Herri Lasterketa ereduarekin ez da helburu hori lortzen, eta gainera beti egon den desberdintasuna sendotu eta normalizatu egiten da.

Kirolaren munduan egiten diren Herri Lasterketa ezberdinak aztertzea nahikoa da gai horren gaur egungo egoeraz jabetzeko.

Sindikaturak kontsultatu dituen erreferentzia denetan egiazta daiteke sarietan berdintasun-printzipioa errespetatu egiten dela.

Horregatik, Sindikaturak **ALDEKO GOMENDIOA** egin du, sarietan berdintasun-printzipioa errespetatzeko.

#### *Ebazpena*

2001eko San Silvestre Herri Lasterketan sari-kopuruaren banaketan berdintasunaren **ALDEKO GOMENDIOA** egin da, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. artikuluan aurreikusten diren ahalmenak erabiliz.

**GOMENDIOA** egin ondoren, Vitoria-Gasteizko udal administrazioak **ONARTU EGIN DU**, eta gizonezko eta emakumezko atletentzako sari-banaketa ekonomikoki parekatu egin da. Dirutan emandako sariak berdina dira bi kategorietan, eta honela banatuko dira:

| <b>SARIAK</b> | <b>GIZONEZKOEN KATEGORIA</b> | <b>EMAKUMEZKOEN KATEGORIA</b> |
|---------------|------------------------------|-------------------------------|
| 1. Saria      | 1.200 euro                   | 1.200 euro                    |
| 2. Saria      | 750 euro                     | 750 euro                      |
| 3. Saria      | 540 euro                     | 540 euro                      |
| 4. Saria      | 240 euro                     | 240 euro                      |
| 5. Saria      | 180 euro                     | -                             |

(Ikus Eranskina, Gomendioak: Tratu-berdintasuna gizon eta emakumeentzako 2001eko XIX. San Silvestre Herri Lasterketan)

### **2.3.11.1 Kirol Zerbitzua**

#### **2.3.11.1.1 Ezespenak**

- Vitoria-Gasteizko Udalak Betoño kirolgunea doan uztea Deportivo Alavés futbol-klubari (Erreg. zk.; 15-02)

#### *Erreklamazioa*

Betoño auzoan dauden udalaren kirol-instalazioak dirudienez doan laga zaizkio Deportivo Alavés futbol-klubari, eta herritarrak inolako kirol instalaziorik gabe geratu dira.

#### *Azterketa*

Gertakari hori Betoñoko herritarrentzat kaltegarria da, etxetik hurbil kirol instalazioak edukitzeagatik nolabaiteko abantailak zituztelako. Baina datu hori, soilik hartuta, ezin da nahitaez jarduketa irregularizat hartu.

Lagapena doan egin izanari dagokionez, lagapenaren baldintzak aztertu ondoren egiazta daiteke onura material handia lortuko dela, hain zuzen ere lagapena jaso duen Kirol Elkarrean instalazio horiek hobetzeko diru-inbertsio garrantzitsuak egiteko konpromisoa hartu duelako, eta instalazioak itzultzeko unean udal ondarean barne hartuko direlako.

#### *Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DA**, udalak lehentasunak baloratuz eta politikoki hatutako erabaki baten aurreko legitimazio ezagatik.

**(Ikus Eranskina:** Vitoria-Gasteizko Udalak Betoño kirolgunea doan uztea Deportivo Alavés futbol-klubari)

- Udal-zerbitzu publikoen kontratazio bat esleitzeko lehiaketa publikotik kanpo geratu da oinarrietan ezarritako irizpideak ez betetzeagatik (Erreg. zk.: 80-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko Udaleko herritar bat kexu da, behin-behineko langile gisa 17 urtez lan egin dueneko lanpostua ez diotelako esleitu udal administrazioak egindako azken deialdiaren ondoren.

### *Azterketa*

Gaia aztertu ondoren eta gaineratu diren dokumentuak ikusirik Sindikaturak esku hartzeko dituen aukerak aztertu ondoren, eskatzaileak kirolaren alorrean eta pedagogiaren alorrean esperientzia handia eta oso prestakuntza ona duela egiaztatu da. Hala ere, aurtengo 2002-2003 ikasturtean Udalak, zerbitzu edo hornidura bat kontratatu nahi duen beste edozein Administrazio bezala, kontratu horren lizitazioa interesatuta zeuden beste zenbait behin-behineko langileri zabaldu zien, beti ere jendaurrean jarri ziren eta zerbitzu horietako betebeharrak eta irizpideak barne hartzen zituzten Oinarrien arabera. Kontratazio horretan beste herritar bat aurkeztu zen, eta aurreikusitako epearen barruan bere programazioa aurkeztu zuen, beti ere Herri Administrazioak behartzen dituzten publikotasun eta gardentasun irizpideen arabera.

Udal administrazioaren jarduketa zuzenbidera eta administrazio-praktika onaren arauetara egokitzen da, izan ere, azken horiek munta txikiko kontratuetan lizitatzailen arteko lehiakortasuna bultzatzea eskatzen dute, alternatiba bat baino gehiago izateko, eta zenbait aurrekontu aurkeztea eskatuz.

Bi lizitatzailen arteko lehiakortasuna izan denez gero, Administrazioak Oinarrietan argitaratu ziren irizpideak kontuan izanik, eta kargua emateko beste inolako irizpiderik kontuan izan gabe, eta kasu honetan alderdien arteko lehiakortasuna ebazteko ezin da alegatu beste kontratazio batzuetako esperientzia handia berez nahikoa arrazoi denik, izan ere, hori horrela izanez gero, Administrazioa beti iraganaren menpe egongo litzateke eta bere lizitazioak interesatu berriei ezin izango lieke ireki.

Ebazpen honek ikasturte bakarrerako eragina du, eta beraz, egon daitezkeen deialditan errekurritu ahal izango du.



*Ebazpena*

Kexa **EZETSI EGIN DUGU**, Sindikatura honen gomendioa justifikatzen duen inolako aukerarik ez dugulako aurkitu, eta administrazioak behar bezala jardun duelako.

## 2.3.12 KULTURA-SAILA

### 2.3.12.1 *Udal Artxiboa*

#### 2.3.12.1.1 Gomendioak

- Hiriko herritar batek minbiziari buruz idatziriko liburu baten sustapena  
(Erreg. zk.: 31-02)

#### *Erreklamazioa*

Kexu hau, liburu bat argitaratu zuen eta Udalak liburu horren sustapen eta erosketaren aurrean arreta handirik jarri ez duelako bere atsekabea adierazten duen herritar batek egin du. Egileak, Vitoria-Gasteizko Udalarari laguntzaren bati buruzko aipamena egin zionean, ahozko erantzun negatiboa jaso zuen, liburuak udalaren edo herritarren alorrarekin erlazio handirik ez zuelako.

#### *Azterketa*

Liburuaren balio literarioa, beste edozein literatura-obrarena bezalaxe, eztabaidagarria da eta gustuen subjektibotasunaren menpe dago; hala ere, liburuaren giza interesa eztabaidaezina iruditzen zaigu, gure herritar batek, gure hiriaren bizitza-esparruan, oraindik ere fobiak eta beldurrak sortzen dituen eta bere trataera eta jasan behar duten pazientekin elkarbizitza zailtzen dituen gaixotasun bati aurre egiteko modua esperantzaren ikuspegitik kontatzen duelako.

Administrazio-ekintza arautuen eremuan ez gauden arren, administrazioaren aldeko zuhurtziarakotasun-marjina zabala onartu beharra dago, baina hala eta guztiz ere, beti badaude elementu arautuak eta kasu guztietan antzeko trataera eskaini behar da, modu horretan egin ez diren beste erreferentzia eta aurrekari batzuk egon badaudelako.

#### *Ebazpena*

Azaldutakoaren ondorioz, liburua Vitoria-Gasteizko Udalaren menpeko liburutegi-sarean sartzea **GOMENDATZEN DUGU**, dagozkion aleak erosiz, hau da, udal liburutegiak hornitzeko erosi ohi diren aleak erosiz. Vitoria-Gasteizko Udalaren aldetik, ondoren jakinarazi digute

udal liburutegiren batean liburu horren aleren bat badagoela. **GOMENDIOA ONARTU EGIN DA.**

(Ikus Eranskina, Gomendioak: Hiriko herritar batek minbiziari buruz idatziriko liburu baten sustapena)

### **2.3.12.2.2 Kultur jarduerak**

#### **2.3.12.2.2.1 Gomendioak**

- Udal-areto bat ukatzea, udal-administrazioak lehendik baimendu ondoren (Erreg. zk.: 147-03)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek areto baten erabilera eskatu zuen, bere plataformak deitzen zuen manifestazio baten aurretik prentsaurreko bat egiteko. Kultura Sailetik ez dute aretoa erabiltzeko eskariari buruzko inolako erantzunik jaso. Aretoa gaitzeko unean, jakinarazi diete ezin dutela erabili, une horretan bertan “arrazoi politikoengatik” ukatzen zaiela adieraziz.

Erabiltzaileak Sindiko edo Herritarren Defendatzaileari bitarteko izan dadin eskatu dio, udal administrazioak aretoa erabiltzeko ukoa idatziz erantzun dezan.

#### *Azterketa*

Berehala espedienteaz aztertzeari ekin diogu, eta kexa-egilearekin elkarrizketa bat izan dugu, aretoaren erabilerarako eskariari buruzko dokumentazioa eskuratuz. Era berean, Kultura Sailarekin harremanetan jarri gara, bilera bat egiteko.

Herri Administrazio guztiei aplikatzen zaien 30/92 Legearen 59. artikulua, galdatzen du jakinarazpenak ondoko eran egingo direla: “*interesatuak edo bere ordezkariak jakinarazpena eta jakinarazten den egintzaren data, izaera eta edukia jaso dutela egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz*”.

Ondorioz, ukoa zentsuratu egin da, eta beraz, bere garaian ukatutako eskariari loturik Udalaren idatzizko erantzunen bat badago nonbait.

### *Ebazpena*

Aretoa idatzizko erantzunik gabe ukatzen dela argi dagoenez gero, **GOMENDIO BAT EGIN DUGU**, aretoa erabiltzeko ukoa gutxienez ere idatziz eskatu zen modu berean jakinarazteko eskatuz.

Ondoren, jakinarazi digute Kultura Sailak Gomendioa **ONARTU** duela.

(**Ikus Eranskina, Gomendioak:** Udal-areto bat ukatzea, udal-administrazioak lehendik baimendu ondoren)

### **2.3.12.3 Biltzar eta Turismo Zerbitzua**

#### **2.3.12.3.1 Gomendioak**

- Akats tipografikoa Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren seinaleetan (Erreg. zk.: 145-03)

(azalpena Lehendakaritza Saila-Euskara Zerbitzua-Gomendioak atalean)

## **2.3.13 LEHENDAKARITZA-SAILA**

### ***2.3.13.1 Gizarte Etxeen Zerbitzua***

#### **2.3.13.1.1 Ezespenak**

- Udal-aretoak uzteko araudia eta dagozkien prezioak (Erreg. zk.: 156-03)

#### *Erreklamazioa*

Astialdiko Talde bateko kide diren Gasteizko herritar batzuek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo dute, Vitoria-Gasteizko Gizarte Etxeetako aretoen eta antzokien lagapenak arautzen dituen tasei buruzko egungo araudiari buruzko kexa egiteko.

#### *Azterketa*

Astialdiko Talde horrekin elkarrizketa bat izan dugu, eta Gizarte Etxeetan eskura dauden espazioak erabiltzeko Tasak arautzen dituen Ordenantzarekin ez daudela ados adierazi dute, dirubaliabide txikiak dituen talde bat dela kontuan izanik.

Araudi horretan erabilera-tasa bat eskatzen da elkarte-jarduerak eta jarduera pribatuak, gizarte-interesekoak edota interes publikokoak, egiteko, baita erakunde pribatuek antolatzen dituzten merkataritzaz kanpoko jarduerak egiteko ere.

Onura publikokotzat deklaratuak izan diren edo Udalaren erakunde laguntzaileak diren irabazteko asmorik gabeko fundazio, elkarte eta gainerako erakundeei erabilera-tasaren salbuespenak edo hobariak eman ahal izango zaizkie.

Gizarte Etxeetan eskura dauden espazioak erabiltzeko Tasak egokiak dira, kontuan izanik horiek erabil ditzaketen erakunde ezberdinak bereizten direla, eta zehazki irabazteko asmorik gabeko talde sozialei eskatzen zaien kopurua sinbolikoa dela.

Saileko zuzendariari kontsulta bat egin eta gero, adierazi digu eskatzaileak Gizarte Etxe horretako Koordinatzailearengana bideratu behar ditugula, berari dagokiolako lankidetzeta edota ohiz kanpoko izaera baloratzeko modua erabakitzea.

### *Ebazpena*

Gizarte Etxeetan eskura dauden espazioak erabiltzeko Tasak egokiak direla uste dugu, eta kexa EZETSI EGIN DUGU udalak behar bezala jardun duelako.

(**Ikus Eranskina, Ezespenak:** Udal-aretoak uzteko araudia eta dagozkien prezioak)

## **2.3.13.2 Euskara Zerbitzua**

### **2.3.13.2.1 Ezespenak**

- Akats tipografikoa Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren seinaleetan (Erreg. zk.: 145-03)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek kexa bat egin du Gasteizko zenbait kartel eta errotulutan euskaraz idatzitako testuetan akatsak daudelako.

### *Azterketa*

Herritarrak Gasteizko kaleetako errotulu eta karteiei buruzko kexa egin du, eta adierazi diogu Bulegora etor dadila kexa formalizatzeraz.

Kexa-egilearekin elkarrizketa bat egiteko zain, Kultura Saileko zuzendariarekin elkarrizketa bat izan dugu eta honek esan digu pertsona jakin batzuei toponimoei buruzko azterlan bat enkargatu zitzaiela. Era berean, Udal Kazetari Vitoria-Gasteizko kale-izendegari buruzko aipamen bat egiten duen 2000. urteko artikulua bati buruzko informazioa eskatu diogu.

Herritarrak kexa formalizatzeraz etorri gabe jarraitzen du, baina aldi berean prentsa-artikuluak bidaltzen ditu, gure bulegoan errotuluei buruz egindako kexa aipatuz.

Prentsan karteletako akatsei buruz agertu diren artikulua aztertuz, **Ofiziozko Gomendio** bat egin dugu “Campus Unibertsitate” adierazten duen kartel bati loturik, forma zuzena “Campus Unibertsitate” baita, hitzaren jatorria latina delako, eta zenbait iturri kontsultatu ondoren.

### *Ebazpena*

**OFIZIOZKO GOMENDIO** bat egin dugu, Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren adierazpenetan akats tipografiko bat dagoela adieraziz.

**(Ikus Eranskina:** Unibertsitateko Campuseko hiri-seinaleztapenaren seinaleetako akats tipografiko bati buruzko Gomendioa)

## **2.3.14 21 ZABALGUNEA**

### **2.3.14.1 Bitartekotzak**

- Lurra desjabetzea behar den baimenik gabe (Erreg. zk.: 70-02)

### *Erreklamazioa*

Desjabetze-prozedura bat negoziatzen ari dira, eta alderdiek akordio bat lortu aurretik Udalak lursail horietan hondeatzeko makinak sartu ditu eta lanean hasi dira.

### *Azterketa*

21 Zabalguneko arduradun batekin harremanetan jarri gara, eta lursailaren desjabetzearen kasua adierazi diogu, alderdien aldez aurreko akordiorik lortu ez delarik.

Legez kontrako desjabetze bat da, alderdien artean akordiorik ez delako lortu. Horretarako, bulego honek bitartekotza bat egin du Jabetzaren Ganbararen eta 21 Zabalgunea Agentziaren artean, eta bertan bi alderdien artean akordio-konpromiso bat lortu da, kexa formalizatzen hasi baino lehen.

### *Ebazpena*

**BITARTEKOTZA** modu egokian egin da, bitartekotzaren ondoren kexa ez baita formalizatu. Kasua **itxi** egin dugu, **BITARTEKOTZA LORTU DELAKO**.

## 2.3.15 TEKNOLOGIA BERRIEN SAILA

### 2.3.15.1 Gomendioak

- Foro bat sortzea herritarrek bertan aktiboki parte hartzeko espazio gisa (Erreg. zk.: 94-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek hausnarketa bat egin du, herritarrek aktiboki parte hartzeko espaziorik ezari buruz. Teknologia ezberdinen (inprenta, telefonoa, Internet) garapenak herritarrei euren hitza entzunarazteko aukera ematen die. Hala ere, teknologia eta azpiegituren garapenari ematen zaio garrantzi handiena, berriz ere giza faktorea, herritarrek sentitzen dutena edo herritarrek udal politiken kudeaketan benetan inplikatzeko benetako borondatea alde batera uzten dira.

#### *Azterketa*

Herritar horrekin elkarrizketa izan dugu, udal politikak herritarrengana parte hartzeko espazio gizatiarragoen bitartez hurbiltzeko proiektuak lantzeko aukera aztertuz, eta foro bat sortzeko aukera planteatu dugu, herritarren arteko komunikazio, parte-hartze eta harremanetarako espazio gisa erabiltzeko. Teknologia Berrien Sailari kontsulta bat egin diogu eta gure asmoaren berri eman diogu; Sail horretan adierazi digute proiektu hori gauzatu nahi dela, baina une honetan geldirik dagoela aurrekontu-arazoak direla-eta.

#### *Ebazpena*

Interesatuari Vitoria-Gasteizko Udaleko sail batek proiektu hori egiteko asmoa duela jakinarazi ondoren, kasua **itxi egin dugu**.

Ondoren, Teknologia Berrien Sailari Foro bat sortzeko eskatu diogu, eta eskaera **BAIETSI** egin du, eta era berean, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen web-orrian Foro bat ezarri da erabiltzaileentzat.



## 2.3.16 LEGE ZERBITZUAK

### 2.3.16.1 Deribazioak

- Zoladuraren egoera txarra dela-eta kalean erortzea (Erreg. zk.: 124-02) –( ikus azalpena Ogasun Saila-Ondare Erantzukizuneko Atala-Ezespena atalean)

### 2.3.16.2 Orientazioak

- Jabetza pribatuko lursail bateko bide publikoaren zati bat uztea beste jabe bati (Erreg. zk.: 87-02)

#### *Erreklamazioa*

Lursail baten jabeak, adierazi du bere garaian Vitoria-Gasteizko Udalari lursail horren metro batzuk laga egin behar izan zizkiola bide publiko bat egiteko. Dirudienez errealitatea oso bestelakoa da, administrazioari lagatako lursail hori beste bizilagun baten jabetzakoak izatera igaro baitira.

#### *Azterketa*

Datu horiek abiapuntutzat hartuz, espediente bat ireki da eskatzaileak bidaltzen duen informazio guztia barne hartzeko. Informazio horretan egiaztatu ahal izan da partikular batek dokumentu bat faltsutu duela, eta pertsona horrek bide publikoa partikular bati lagatzeko ahalmenik ez duela erakusten du.

Bidalitako informazioa aztertu ondoren, eta kasu hau aztertzeko beharrezkoak diren elkarrizketak egin ondoren, eskatzaileari laguntza eskaini diogu Ministerio Publikora eta Gipuzkoako Foru Aldundira bideratuko duen salaketa-dokumentua landuz.

#### *Ebazpena*

Eskatzaileari prozesu honi eta Ministerio Publikoan eta Gipuzkoako Foru Aldundian salaketa jartzeko aukerari buruzko **AHOLKULARITZA** egin ondoren, **interesatuak kasua itxi du**, salaketa auzibidez egingo baitu.

## 2.3.17 TUVISA

### 2.3.17.1 Ezespenak

- Txagorritxuko 13 linea berriko autobus-geltoki berri baten eskaria  
(Erreg. zk.: 59-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko hiri-autobusen ohiko erabiltzaile bat kexu da Txagorritxuko 13 lineako autobus-geltokiak nahikoak ez direlako, elkarren artean distantzia handia dagoelako, eta horrek ezintasunen bat duten pertsonen zerbitzua erabiltzeko aukerak murrizten dizkie. Horren aurrean, lehendik kexa bat aurkeztu zuen 010era deituz, eta jaso duen erantzuna ezezkoa izan da.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak jasotako dokumentazioa zehazki aztertu ondoren, adierazten da 13 lineak osasun-zentrotik hurbilen duen geltokia (izan ere, zentro horretan geltoki berria jartzea eskatu dute) lerro zuzenean 150 metroko baino distantzia txikiagora dagoela, eta distantzia hori geltokiak ezartzeko eragin-erradioaren irizpidearen barruan dago, hori 350 metrora artekoa baita. Eta beraz, ez da beharrezkotzat jotzen 13 linean beste geltoki bat ezartzea.

#### *Ebazpena*

Kasua aztertu ondoren eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua araberan, kexa hori **EZETSI EGIN DUGU** Udalaren dagokion zerbitzuak egokiro jardun duelako.

(Ikus Eranskina, **Ezespenak**: Txagorritxuko 13 linea berriko autobus-geltoki berri baten eskaria)

## 2.3.18 BESTE BATZUK: EZ DAGO DAGOKION ZERBITZURIK

### 2.3.18.1 Deribazioak

- Espetxe-politika berriz aztertzea ETako presoei dagokienez (Erreg. zk.: 09-02)

#### *Erreklamazioa*

Espetxe-politika berriz aztertzea ETako presoei dagokienez.

#### *Azterketa*

Egin den kexa ez da argi eta garbi udalaren eskumenekoa, ETako presoei loturiko espetxe-politika aztertzen baita, eta gai hori Estatuaren eskumen eskusibokoa da.

#### *Eraitza*

Eskaera **BAZTERTU EGIN DA** udalak eskumenik ez duelako, eta kasua Herriaren Defendatzaileari (Defensor del Pueblo) **bidali zaio** SHDAren 45. artikuluan ezarritakoaren arabera.

*45. art.- Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak, jaso duen kexa Vitoria-Gasteizko Udaleko organoen jardueratik kanpo geratzen dela, eta, ondorioz, bere eskumenen barruan ez dagoela uste baldin badu, **Herri Defendatzaileari edo Arartekoari** jakinarazi beharko dio. Horren berri eman beharko dio kexa aurkeztu duenari.*

Gaia eskumena duen erakundera (kasu honetan Herriaren Defendatzailea) bidali ondoren, erakunde horren erantzuna jaso dugu, eta adierazi digu eskaera hori dagoeneko aztertu dela eta interesatuei hartutako erabakiaren berri eman zaiela.

- Salaketa TBko iragarki bateko publizitate sexistak dela-eta (Erreg. zk.: 77-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek TBko auto-iragarki bateko publizitate sexistak dela-eta kexa egin du; hain zuzen ere, iragarki horretan ustez eraso bat jasaten ari den emakume baten

oihuak entzuten dira, baina amaieran ikusten da saldu beharreko produktua bera dela "erasokorra".

#### *Azterketa*

Emakumearen eskubideak urratzen dituen iragarki bat da, eta bertan sexu-diskriminazio nabarmena egiten da.

#### *Ebazpena*

Herritarren eskubideen defentsarako kasu bat den arren, pertsonaren duintasunari erasotzen diolako, ez dago Vitoria-Gasteizko Udalaren jarduketa-eremuan barne hartuta.

Horregatik, iragarki horri buruzko kexa Emakundera **BIDERATZEN DA**, jarduketa-mota hori izapidetzeaz arduratzen baita.

- Jabeen komunitate bateko bizilagunen erantzukizun ekonomikoari buruz, komunitateko kide batek ez baititu ordaindu nahi konponketa komunak (Erreg. zk.: 08-02)

#### *Erreklamazioa*

Kontsulta jabeen komunitate bateko presidenteak egin du, eta adierazi digu komunitate horretan 4 bizilagun daudela, bi lokalekin batera. Portala eta eskailera konpontzeko lanak egiten hasi dira –bizilagunek erabakitakoaren arabera– eta lokal baten jabeak ez du dagokion ehunekoaren arabera ekonomikoki parte hartu nahi, elementu komuna ez dela esaten duelako, berak ez baitauka portalerako sarbiderik.

#### *Azterketa*

Bizilagunen arteko tirabira-kasu baten aurrean gaude, izan ere, euren jabeen komunitateko elementu komunen definizioa alderdi bakoitzarentzat ezberdina delako.

#### *Ebazpena*

Kontsulta egin duenari ORIENTATU diogu, printzipioz bizilagun horrek dagokion ehunekoaren zatia ordaindu beharko zukeela adieraziz –kasu honetan portalaren konponketaren laurdena–, gai honi buruzko estatuturik ez dagoelako eta besterik adierazi ezean arau orokorra aplikatzen delako. Era berean, **gomendatu** diogu Jabetzaren Ganbarara joan dadila, bertan

arazoa konpontzeko arreta pertsonalizatuagoa eskainiko diotelako. Beraz, **DERIBAZIOTZAT** hartzen da.

- Auzo-konponketak Jabeen Komunitate batean eta auzo-arazoak kide batek ordaintzen ez duelako (Erreg. zk.. 27-02)

#### *Erreklamazioa*

Jabeen Komunitate batean auzo-konponketak egitea erabaki dute, eta aurrekontua onartu eta obra hasi ondoren bizilagun batek ez du ordaindu nahi.

#### *Ebazpena*

Bizilagunen arteko arazoa denez gero, ez da Sindikatura honen eskumenekoa, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua arabera, eta beraz Jabetzaren Ganberara **DERIBATU DUGU**, bertan lege-aholkularitza eskainiko baitiete.

### **2.3.18.2 Baztertzeak/ez-onartzeak**

- Gure hiriko banketxe batek langile bat lanetik bota izana (Erreg. zk.: 02-02)

#### *Erreklamazioa*

Banketxe batean administrari-laguntzaile lanpostu bat lortzeko hautespena gainditu ondoren, probaldian lanetik bota duten pertsona baten kexa aurkeztu da.

#### *Azterketa*

Egindako kexak ez du pretentsio zehatzik egiten, baina edonola ere ez da udalaren eskumeneko gaia, eta banketxe horretan Vitoria-Gasteizko Udalak partaidetzaren bat duen arren, banketxearen funtzionamendua ez da Udal Administrazioakoa, Espainiako Bankuaren esku-hartzeari loturik dagoen kreditu-entitate bat delako eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian 2097 kode-zenbakiarekin inskribituta dagoelako.

Gainera aipatu den arazoa lan-izaerakoa da, lan arloko jurisdikzioaren menpekoa, eta eskatzaileak bere garaian bertara joateko aukera izan zuen, baina enpresa-erabakiaren aurrean lasaitu egin zen. Une honetan, ordea, sei hilabete baino gehiago igaro direnez gero, ezin da erreklamaziorik egin.

#### *Ebazpena*

Eskaria **BAZTERTU EGIN DUGU** Sindikatura honek ez duelako eskumenik, SHDA<sup>2</sup>ren 26. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

- Arazoak Jabeen Komunitateko presidentearekin (Erreg. zk.: 21-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek galdetu digu zer ekintza egin ditzakeen jabeen komunitateko presidentearen aurka, partikularren arteko arazo bat dela-eta.

#### *Ebazpena*

Sindikatura honen eskumenekoa ez denez gero, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua araberan, kexa **BAZTERTU EGIN DUGU** partikularren arteko arazoa delako, eta beraz Jabetzaren Ganberara **deribatu dugu**.

- Motorraren piezak lapurtu izana (Erreg. zk.: 34-02)

#### *Erreklamazioa*

Kontsulta-egileak galdetu digu Sindikaturak dilijentziaren bat egin ote dezakeen motorraren piezen lapurretari dagokionez.

#### *Ebazpena*

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26. artikulua araberan, lapurreten gaia ez da Sindikatura honen eskumenekoa, eta eskaera **BAZTERTU EGIN DUGU**.

- Kalteak Jabeen Komunitateko eraikin baten fatxadan (Erreg. zk.: 46-02)

---

<sup>2</sup> **Oharra:** SHDA Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudia da.

### *Erreklamazioa*

Jabeen Komunitate batek informazioa eskatu digu fatxadan ikus daitezkeen akats batzuk direla-eta zer erantzukizun izan dezakeen jakiteko, izan ere, akatsak gero eta handiagoak dira, besteak beste euri-ura fatxadan behera doalako eta bizkorrago hondatzen joan dadin laguntzen duelako. Udalak segurtasun-neurriak jartzera behartu du komunitatea, fatxadako harriak eror daitezzen saihesteko.

### *Ebazpena*

Gai honek jadanik badauka eraikuntzen erregimen juridikoaren udal jarduketa bat, eta bertan agintzen da segurtasun-neurriak hartu behar direla (babes-pasabide bat ipintzea) bide publikorako lur-jauzirik ez izateko, eta euri uretarako zorrotena konpondu egin behar dela, agindutakoa betetzen ez badu zigorra jarriko zaiola adieraziz.

Kontsulta egin duen Jabeen Komunitateak eskatu du Jabeen Komunitatea ez dadila izan obra horien exekuzioaren erantzule. Horretarako, Jabetza Horizontaleko Legeari loturiko aholkularitza eskatu du.

Jabetza Horizontaleko Legeari buruz beharrezko azterketa egin ondoren, aholkularitza eman diogu eta kasua **itxi egin dugu**.

## **2.3.18.3 Bitartekotzak**

- Bere etxebizitzan eragindako kaltean Jabeen Komunitateari eginiko erreklamazioa  
(Erreg. zk.: 06-02)

### *Erreklamazioa*

Bizilagun batek aurkeztu du kexa, eta Jabeen Komunitateak egin duen teilatuko konponketa baten ondorioz bere etxebizitzan eragindako kalteen erreklamazioa da.

### *Azterketa*

Gai hau ez dagokio Udal Zerbitzu jakin bati, eta beraz, inplikatura dauden alderdiek, SHDAren 14. artikulua aurreikusten duenari jarraiki, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen **Bitartekotzako esku-hartzea** onartu behar dute.

**14. art.:** *Herritarren Defendatzaileak edo Sindikoak aldeen arteko bitartekari jardun ahal izango du, aldeek hala baimentzen badute.*

#### *Ebazpena*

Ez da **BITARTEKOTZA** gauzatu, aldeetako bat, Jabeen Komunitatea hain zuzen, ez dagoelako ados.

- Bizilagunen artean eragindako zaratengatiko eragozpenak direla-eta bitartekotza-eskaera (Erreg. zk.: 76-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek, bizi diren Jabeen Komunitatean beren aldameneko bizilagunak telebistaren bolumen altuarekin sortzen dituen eragozpenen kexu da, izan ere, bizilagun hori gorra baita.

#### *Azterketa*

Zarata sortzen duen andreak ondo entzuteko baliabide pertsonalak baditu (zehazki, audifonoak). Horretarako, alderdi kaltetuak Sindikaturari eskatu dio bitartekotza egitea, lehendik Jabegoaren Ganberak esku hartu arren ez zuelako akordiorik lortu. Bi alderdiei deialdia egin zaie. Bi alderdien artean jarrera ona eta adostasuna dago, Bitartekotzak arazoa konpondu ahal izango duela uste baitute.

#### *Ebazpena*

BITARTEKOTZA egin dugu, eta bi alderdiek arazoa konpontzeko borondate ona erakutsi dute, arazoa sortzen duen bizilaguna oso gorra dela dakiten arren, izan ere, elkarrizketan bi sonotone jarrita izan arren ozen hitz egin behar izan dugu zerbait entzun zezan.

- Arropa zabaltzeko lekua aldatu izanagatik irekitako hirigintza-defentsako espediente (Erreg. zk.: 29-02)



### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek jakinarazi digu kalteak izan dituela bere jabetzako esekitoki batean, eta dirudienez kalte horiek aldameneko bizilagunak eragin dizkio. Zer ekintza abiarazi ditzakeen kontsultatu digu.

### *Ebazpena*

Sindikatura hau, arazoa konpon dezan **BITARTEKOTZA** bat egiteko asmoarekin bidezko diren dilijentziak prestatzen hasi da. Formula hau ez bada egokia, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 14. artikulua araber, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak alderdien arteko Bitartekotzako esku-hartzea formalizatuko du. Ondorioz, kasua **itxi egin dugu** bulego honen esku-hartzearen ondoren kezarik ez delako jaso.

- Erabateko ezintasuna duen bizilagunak ez du Jabeen Komunitateko Presidente-kargua hartu nahi (Erreg. zk.: 37-02)

### *Erreklamazioa*

Buru-gaixotasunagatiko erabateko ezintasuna duela adierazi duen eta Jabeen Komunitateko Presidente-karguaz arduratu nahi ez duen eta ezin duen bizilagun bat da, eta Sindikoari arazo honetan bitartekotza egitea eskatu dio.

### *Ebazpena*

Jabeen Komunitateko egungo Presidenteari zuzendutako Idatzizko **BITARTEKOTZA** bat egin da, bizilagunek eskaera egin duen bizilagun hori Komunitateko Lehendakaritza-kargutik salbuestea erabaki dezaten, bere buru-osasunaren egoera kontuan izanik. Sindikatura honen eskumena ez den arren, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 26 artikulua araber, Sindikoak ukitutakoaren eta Jabeen Komunitatearen artean bitartekari gisa jarduteko eskaintza egin die, kasuaren orientazio bat emateko.

- Etxebizitza batean prostituzio-leku bat instalatzeak arazoak sortzen dizkio Jabeen Komunitateari (Erreg. zk.: 169-03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko zenbait herritarrek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo dute, Jabeen Komunitateko etxebizitza batean prostituzio-leku baten instalazioari buruzko kexa azalduz. Etxebizitza horretako errentariak elkarbizitza-arazoak sortzen dituzte (bizilagunen atezain automatikoan txirrina joaz gaueko edozein ordutan, zarata handia, zikinkeria,...). Jarduera hori saihesteko neurriak har daitezkeen eskatu dute, jarduera irregularra baita.

#### *Azterketa*

Eraikin horretako bizilagunekin elkarriketa bat izan dugu, eta kexa azaldu digute. Etxebizitzaren jabearekin harremanetan jarri gara, eta adierazi digu gai hori epaitegietan dagoela duela zortzi hilabetez geroztik.

Egun gutxi barru jabeak jakinarazi digu epaia atera dela, eta errentariak errenta ez ordaintzeagatik kaleratu egin dituztela.

#### *Ebazpena*

Kasua aztertzeko egindako jarduketa ezberdinen artean, partikularren arteko **BITARTEKOTZA** bat ere egin dela adierazi nahi dugu, eskatzaileen eta ukituriko etxebizitzaren jabearen arteko kasua izanik. Kasua **ITXI EGIN DUGU**.

## 2.4 ERABAKITZEKE DAUDEN EBAZPENAK

- Vitoria-Gasteizko diskoteka batek sortutako zarata eta bibrazioak (erreg.-zk.: 03-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek aurkeztu duen kexa, bere etxebizitzan etengabe jasaten dituen zarata eta bibrazio-arazoei buruzkoa da, eta hori guztia Vitoria-Gasteizko diskoteka batek sortzen du.

Herritarrak adierazi du azken bi urteotan behin eta berriz kexak jarri dituela eta Udaltzaingoak zenbait neurketa egin dituela, baina jarduera irregular bat denez gero ez dutela beti egoeraren errealitatea islatzen, eta igaro den denbora kontuan izanik eskatzailearentzat eta bere familiarentzat gero eta zailagoa dela.

### *Azterketa*

Eskatzaileak kexa formulatu ondoren, Ingurumen Sailari gai horri loturiko txosten bat eskatu diogu.

Ingurumen Saitetik Diskoteka horren egoerari buruzko informazioa jaso dugu.

Ondoren Udaltzaingoari kexarekin zerikusia duen Informazioa eskatu diogu. Zaratari buruzko Txostena bidali digute.

Era berean, Ingurumen Sailari informazioa eskatu diogu, zenbait aisialdi-lokalek zaratari buruzko araudia ez-betetzearen inguruan jarduketa-protokoloa nolakoa den jakiteko, beste zenbait gairen artean.

Kexa amaitzerakoan, herritarrak adierazi digu lehengo lekutik zetorren zarata nabarmen isildu dela, baina oraindik ere bibrazioak daudela eta ordutegiak ez dituztela betetzen, eta Memoria itxi denean aztertzen ari direla.

- Desjabetzeagatiko konpentsazioa (erreg.-zk.: 05-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du, Vitoria-Gasteizko Udaletik jaso duen desjabetzeagatiko konpentsazio bati buruz hitz egiteko.

Herritarrak adierazi digu finka bat oinordetzan hartu duela, baina administrazioak ez dio finka horren eskriturarik eman. Gainera, Udalak ordainketa batzuk oso berandu egin dizkiola kexu da.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearen kexa onartu ondoren, Ogasun Sailari gai horri buruzko Txosten bat eskatu diogu.

Eskatutako informazioa jaso ondoren, Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri gara.

Dekretua prest dagoela jakinarazi digute. Memoria hau itxi den unean, erabiltzaileari eskritura ematen dioten zain gaude.

- Argi-transformadoreak sortutako zarata (erreg.-zk.: 10-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek gure bulegora jo du, bera bizi den inguruan argi-transformadore bati dagokionez neurri egokiak har daitezen eskatuz, zarata eta osasunerako kaltegarriak diren uhin elektromagnetikoak sortzen dituelako.

#### *Azterketa*

Kexa formalki egin ondoren, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari eta Ingurumen Sailari aztergai dugun transformadorearen egoerari buruzko informazioa eskatu diegu.

Eskatutako informazioa jaso ondoren, Iberdrolari gai horri buruzko informazioa eskatu diogu.

Kasua aztertzeko behar den informazioa bildu ondoren, memoria hau itxi den unean, kexa ezetsi egin dugu administrazioak egoki jardun duela uste dugulako, izan ere, Iberdrolari transformadorea baliogabetzea eskatu zion. Espedientea irekita geratzen da transformadoreari buruzko azterketa bat egiteko.

- Ostalaritza-lokalek gaueko orduetan eragindako zaratak  
(Erreg.-zk.: 11-02)

#### *Erreklamazioa*

Gasteizko hainbat herritarrek aurkeztu dituzte kexak, protesta eginez ordu txikietan taberna eta lokalek eragiten dituzten zaratak direla-eta. Kexa horien aurretik, udaltzaingoak bitartekotza-lanak egin zituen lehen ere zenbait kasutan..

#### *Azterketa*

Bizilagunek kexa horiek euren etxeen aldamenean dauden tabernek eta aisia-lokalek eragiten dituzten gaueko zaratak ditu ardatz.

Ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokal edo instalazio iraunkorrek, ezarpenerako udal lizentzietan ezarritako jardueren arabera izango dute ixteko ordua, fiskalki deklaraturako jarduera edozein izanik ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Dekretu horretan, era berean, ireki eta ixteko gehienezko ordutegia gutxienez ere 25 x 14 cm-ko neurriak dituen plaka batean ikusteko moduan erakutsi beharra ezartzen da.

Lokal eta instalazioak ixteko eta dekretu honetan azaldutako beste ikuskizun edo jarduera batzuk amaitzeko ordutegia luzatu egingo da "ordu bete ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan, ordu erdia ekainaren 1etik irailaren 30era, eta bi ordu Udal bakoitzeko zaindariaren jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera, Inauterietako ostegunetik asteartera eta, Gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra, baita Azoka, sariketa, erakusketa edo antzekoak daudenean ere, baldin eta interes turistikodun gisa kalifikatu badira.

Horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu udal funtzionario guztiei, eta bereziki udaltzaingoaren agenteei **GOGORARAZTEA** jasotzen diren salaketak aztertzeko obligazioa

bete beharko dutela eta beren eskumenen esparruan 296/1997 Dekretua betetzen ez duten establezimendu eta lokalek sortzen duten zaratari dagokionez tinko jardun beharko dutela.

Sindikatura honek egindako Gogorazpenaren ondoren elkarrizketa bat izan dugu herritarren taldearekin, haren berri emateko, baina adierazi digute arazoak lehen bezala jarraitzen duela. Gaiari buruzko ikerketak egiten eta informazioa biltzen jarraitzen dugu.

#### *Ebazpena*

**GOGORARAZPEN** bat egin dugu ordutegien erregimenaren betetze zorrotzari eta gaueko aisiaren zale diren herritarren ohiturei buruzko aurreikuspenei buruz.

Memoria hau itxi den unean, kasuak irekita jarraitzen du, zeren eta Gogorazpena **ONARTU** den arren, gaiaren jarraipena egin behar da.

**(Ikus Eranskina: lokalen eta ikuskizunen itxiera-ordutegia betetzeari buruzko Gogorazpena)**

- Gasolindegi batetik egindako isurketak (erreg.-zk.: 41-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek bulegora jo du, gasolindegi batek Gasteizko udal mugartean egiten dituen isurketei buruzko kexa eginez.

#### *Azterketa*

Dagokion administrazio-batzarrari aztertu behar den gaiari buruzko informazioa eskatu diogu.

Memoria hau itxi den unean, informazioa jasotzeko zain gaude, kasua aztertu ahal izateko.

- Zikinkeria eta argi gutxi Renfeko Geltokiko plazan (erreg.-zk.: 71-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du, Renfeko Geltokiko plazan argi gutxi dagoela kexatuz.

### *Azterketa*

Plazara joan gara, bertako argiztapena ikusi eta kexaren egiazkotasuna ziurtatzeko.

Memoria hau itxi den unean, kasua aztertzeke dago.

- Zoladuraren egoera txarra Nieves Cano kalean (erreg.-zk.: 107-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek kexa bat egin du Nieves Cano kalearen tarte bat behintzat oso egoera txarrean dagoela adieraziz: zoladura, altzariak, asfaltoa, araudia betetzen ez duten haur-parkeak, lorategiak...

### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, kexan adierazten den lekura joan gara ikuskapena zuzenean egitera. Ikuskapen horretan ikusi da lekua ez dagoela hain hondatuta, atentzioa ematen duen gauza bakarra hormetako pintadak eta kolunpioetako lurra dira.

Bide Publikoen Zerbitzuari Txosten bat eskatu diogu gune hori jabetza publikokoa ala pribatukoa den jakiteko.

Ebazteke geratu da, memoria hau itxi den unean.

- Tximiniak kea botatzen dute auzoan (erreg.-zk.:110-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek bulegora jo du, bere auzoan dauden tximini batzuei buruzko kexa eginez, kea botatzen dutelako eta herritarrei kalte egiten dietelako.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan du, eta bere kexa adierazi du eta formalki formulatu du.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak txosten bat eskatu dio Hiri Berrikuntzarako Eragintegiari, kea sortzen duen tximinia ongi instalatuta dagoen ala ez jakiteko.

Memoria hau itxi den unean, Txostenaren zain gaude Ebazpena eman ahal izateko.

- Animalien babesari zirku-ikuskizunetan (erreg.-zk.: 112-02)

#### *Erreklamazioa*

Talde batek zirku-ikuskizunetan animalien babesari buruzko kexa azaldu du.

#### *Azterketa*

Sindikatura honek Gomendio bat egin du, jabeek animaliak babesteko duten obligazioari loturik.

Hirira zirku bat etorri denez, zirku horretan animalien egoera nolakoa den egiaztatzeko ikuskapena egin dugu han bertan: ikuskizunera eta zirkuaren zoorra bisita egin dugu.

Egiaztatu da animaliak jasaten ari diren baldintzak ez direla egokienak, eta Demsak bidali duen Txostenarekin batera, Memoria hau itxi den unean Gomendio bat egin da zirku baten programazioaren barruan Zoo baten instalazioa debekatzeko, beti ere ez badituzte Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen.

- Independentzia kaleko autobus-erria (erreg.-zk.: 116-02)

#### *Erreklamazioa*

Independentzia kaleko bizilagunen eta autobus-erriak ukitutakoen ordezkari batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulego, autobus-erri hori kentzeko bitartekotza egin dezan eskatuz.

#### *Azterketa*

Herritar horrekin elkarrizketa bat izan dugu, eta bertan bere eskaria azaldu du, autobus-erriaren ezarpenaren aurka dauden ukitutakoen sinadura-zerrenda bat eta beste zenbait agiri ekarriz.



Ondoren, bilera bat egin dugu Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuarekin, eta kexaren berri eman diegu. Aldi berean, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzu berari eskaera bat egin diogu idazki baten bidez, gai honi loturiko azterlan teknikoei buruz galdetuz. Zerbitzuak txostena bidali du azterlan teknikoekin.

Era berean, Bide Publikoen Zerbitzuari Txosten bat eskatu diogu, autobus-erreiaren instalazio eta diseinuari buruzkoa.

Memoria hau itxi den unean, Bide Publikoen Zerbitzutik Txostena bidali dute eta gaia aztertzeke geratu da.

- Buru-osasun arazoak dituen bizilagun batek sortzen duen zarata (erreg.-zk.: 119-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek kexa bat egin du, bere etxeko bizilagunek baita berak ere bertan bizi den bizilagun batengatik jasan behar dituzten arazoei loturik. Antza denez, emakume horrek buru-osasuneko arazoak ditu eta bizilagunei molestatu egiten die.

Bitartekotza egitea eskatu digu, Epaitegietara joan beharra saihesteko.

#### *Azterketa*

Eskatzaileak elkarrizketa bat izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta arazoa azaldu dio. Elkarrizketa horretan, Sindikaturak aztertu behar duen dokumentazioa ekarri du.

Ukitutako bizilagunen eta buru-osasun arazoak dituen pertsonaren familiaren artean Bitartekotza egitea proposatu dugu.

Memoria hau itxi den unean, emaitza baten zain gaude.

- Vitoria-Gasteizko parke baten zikintasun-egoera, segurtasunik eza eta mantentze-falta (erreg.-zk.: 120-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko auzo bateko bizilagunek bulegora jo dute kexa bat egiteko, beren auzoko parke baten zikintasun-egoera, segurtasunik eza eta mantentze-falta aipatuz.

### *Azterketa*

Idatzizko kexa formalizatu ondoren, inguruko jabeen komunitateetako presidenteeekin bilera bat egin dugu kexaren xede den lekuan.

Hirigintza Sailari balizko birmoldaketa-plan bati buruzko txosten bat egitea eta Udaltzaingoari auzoan udaltzain gehiago jartzeari buruzko beste txosten bat egitea eskatu diegu.

Bi txostenak jaso ditugu eta bizilagunei eman dizkiegu.

Memoria hau itxi den unean, ebazpen bat egin da bi zatitan; alde batetik, Udaltzaingoak, bizilagunek eta Sindikoak bilera bat egiteko Gomendioa; eta bestetik, kexa zati batean baiestea, auzoko Udaltzainak areagotzeko.

- Mahai hankabarrak bide publikoan (erreg.-zk.: 122-02)

### *Erreklamazioa*

Bizilagunen ordezkari batek kexa bat egin du, eta adierazi du taberna batek jartzen duen terrazak muga batzuk errespetatu behar dituela inguruko bizilagunei ez molestatzeko.

### *Azterketa*

Ukitutako bizilagunen ordezkariarekin izandako bilera baten ondoren, Ingurumen Sailari txosten bat egin dezan eskatu diogu.

Ingurumen Sailak txosten hori bidali digu, eta bertan adierazten du egia dela ukitutako kafetegiak lizentzia duela, baina ez dakitela mahai hankabakarrak jartzeko baimenik duen ala ez.

Hirigintza Sailari –Bide Publikoen Zerbitzuari, hain zuzen– mahai hankabakarrak baimentzeari buruzko txostena eskatu diogu.

Memoria hau itxi den unean, Hirigintza Saitetik Txosten-eskaera bidali da, eta aztertzeke geratu da.

- Garabiak auto bat eraman du seinalizaziorik gabeko leku batetik (erreg.-zk.: 125-02)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek bere kexa adierazi du udal garabiak bere autoa eraman duelako, eta autoa aparkatuta zegoen lekuan aparkatzeko debekurik ez dagoelako.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak elkarrizketa bat izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, bere kexa azaldu dio, eta Udalean berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu duela adierazi dio.

Memoria hau itxi den unean, Sindikaturak egin ditzakeen jarduketei buruzko azterlana lantzen ari gara.

- Arriskua Gizarte Etxeetan eta Gizarte Zerbitzuetako langileentzat (erreg.-zk.: 132-02)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek bere haserrea adierazi du Gizarte Zerbitzuetako eta Gizarte Etxeetako teknikariak eta langileak jasaten ari diren tentsio eta arrisku-egoeren aurrean. Pertsona problematiko horiei arreta eskaintzeko alternatibak eskatzen ditu eta berak ere proposamenen bat egin du.

### *Azterketa*

Kexa formalki formulatu ondoren, Gizartegintza Saileko zuzendariarekin bilera bat egin dugu, eta Vitoria-Gasteizko Gizarte Etxe baten kasuan hartu diren segurtasun-neurrien berri eman digu. Era berean, babes-neurriei buruzko informazio gehiago eskatu dugu.

Memoria hau itxi den unean, kasu hau aztertzeke dago.

- Ispilu obala ipintzea garaje baten irteeran (erreg.-zk.: 133-02)

### *Erreklamazioa*

Jabeen komunitate batek euren etxeko garajearen irteeraren aurrean ispilu obal bat ipintzea eskatu du, arrisku-zona dela uste dutelako, eta lehendik Udalak eskaera hori ukatu egin dielako.

### *Azterketa*

Kexa-egilearekin elkarrizketa bat izan dugu eta bertan bere kexa formulatu du. Ondoren, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuekin harremanetan jarri gara, eta aztertzen ari garen gaiari buruzko iradokizun egin digu.

Iradokizuna ondokoa da: ispiluaren ezarpena eta mantentzea Komunitatearen kargurakoa izatea, eta kalteen kasuetarako mantentze-kontratu bat ezartzea, berria ipintzeko eta konponketak egiteko epeak finkatuz, baita konponketa horiek ez badira egiten Udalaren aldetik ezar daitezkeen zehapenak finkatuz ere, fidantzen bitartez. Ispiluaren kokapena Udalak erabakiko du, baita materialak, tamaina eta abar.

Memoria hau itxi den unean, bizilagunek iradokizun horri buruz erantzun dezaten zain gaude.

- Erretenak butxatuta daude zuhaitzen gune bat ez delako garbitzen (erreg.-zk.: 134-02)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritarra eta denda baten jabea den emakume batek kexa bat aurkeztu du, inguruko zuhaitzetako hostoak gutxitan biltzen direnez euri-uretarako zorrotanak –erretenak– butxatu egiten direlako. Zuhaitzak kentzea edo Udala garbiketaz arduratzea eskatzen du, zorrotenetan duten eragina kontuan izanik.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan dugu, eta gaiari buruzko informazioa ekarri du.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak Ingurumen Saileko Parke eta Lorategien Atalari txosten bat egin dezan eskatu dio.

Txostena jaso ondoren, kexa ezetsi egin dugu ez delako udal administrazioaren erantzukizunik aurkitu.

Erabiltzailea bulegora itzuli da, eta ez dago konforme egin den jarduketarekin, dirudienez arazoa sortzen duten zuhaitzak ez direlako ongi identifikatu. Bertara joan gara eta ikuskapen bat egin dugu.

Zuhaitzak ikastetxe publiko batean kokatuta daude, eta bertako arduradunak esan digu arazoa sortzen zuten zuhaitzak inausi egin dituztela, eta azken hogeitun urteetan inausi gabe egon direla.

Memoria hau itxi den unean, kasua ebatzteke geratu da.

- Konpentsazioa eskatzea, lurrak desjabetu dizkiotelako (erreg.-zk.: 135-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek bere kexa adierazi du Vitoria-Gasteizko Udalak behin baino gehiagotan bere jabetzako lurrak desjabetu dizkiola, eta bere ondarea gutxitu egin dela. Konpentsazio gisa bere semeei etxebizitza tasatuen zozketetan sartzen uztea eskatu du.

#### *Azterketa*

Erabiltzaileak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, kexa hori Memoria itxi denean ezetsi egin dugu, jarduketa ongi egina dagoela uste dugulako.

- Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio bat zuzentzea (erreg.-zk.: 140-02)

#### *Erreklamazioa*

Herritar batek lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio bat zuzentzea eskatu du, udalaren ERANTZUNIK EZAREN aurrean.

#### *Azterketa*

Herritarrak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan du, dokumentazioa aurkeztuz eta bere kexa azalduz.

Memoria hau itxi den unean, kasua erabakitzeke geratu da.

- Leku publikotan eserleku moldagarriak ipintzea minusbalioak dituzten pertsonentzat (erreg.-zk.: 142-03)

#### *Erreklamazioa*

Minusbalioa duen Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du, eta iradokizun bat egin du: espazio publiko berrietan minusbaliatuentzat aulki moldagarriak ipintzea, eta adibide gisa musika-auditorio berria jarri du.

### *Azterketa*

Gaiari loturiko zenbait neurri kontuan izan diren jakiteko txosten bat eskatu dugu. Memoria hau itxi den unean, kasua aztertzeke geratu da.

- Aranbizkarra inguruan oinezkoen pasabide batean arriskua dago (erreg.-zk.: 146-03)

### *Erreklamazioa*

Gasteizko herritar batek kexa bat adierazi du, bizi den zonako oinezkoen pasabide batean arriskua dagoela adieraziz, eta bidezko diren neurriak har daitezen eskatu du.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak kexa formalki formalizatu du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan.

Sindikaturatik bertara joan gara lekuaren ikuskapena egitera, eta ikusi dugu kexaren xede den ibilbidean hiru zebra-pasagune daudela baina horien berri ematen duen seinale bertikalik ez dagoela.

Memoria hau itxi den unean, kasua erabakitzeke geratu da.

- Zikinkeria Handizkarien Azokan (erreg.-zk.: 148-03)

### *Erreklamazioa*

Herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du, eta kexa bat adierazi du: Vitoria-Gasteizko handizkarien Azoka egoera lotsagarrian dago, oso zikina eta.

### *Azterketa*

Herritarrak adierazi du askotan jakinarazi duela 010 zenbakian, eta erantzunik jaso ez duenez, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du egoera hori salatuz.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak Demsac-eri informazioa eskatu dio, zona honetan egin diren jarduketan berri izateko.

Era berean, Sindikaturak kexan adierazten den lekura bisita egin du, eta erabat utzita eta zikinkeriaz beteta dagoela ikusi ahal izan du.

Ogasun Sailari Fruta, Barazki eta Arrainen Handizkarien Azokaren ematea arautzen duen baldintzen plegua eskatu dugu.

Demsac-eri eta Ogasun Sailari eskatutako txostenak Sindikaturara iritsi zaizkigu.

Azokan bertan Handizkarien ordezkari batekin bilera bat egin dugu, eta arduradun horrek adierazi du azoka utzita eta zikina egotearen errua aldameneko eraikinean bizi den ijito-taldearena dela.

Dagokion gizarte etxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren arduradunak egoera ongi ezagutzen du, eta adierazi digu ijitoak bizi direneko eraikina ez dela Udalaren jabetzakoa.

Memoria hau itxi den unean, kasua erabakitzeke geratu da.

- Semaforoen elikadura-sistema (erreg.-zk.: 153-03)

#### *Erreklamazioa*

Itsua den Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora jo du, eta adierazi du itsuentzako semaforoen elikadura-sistema oso ahula dela, eta etengabe hondatzen direla, ikusmen-arazoak dituzten pertsonen joan-etorria oztopatuz.

Arazo hori saihestuko duen sistema hobea bilatzea eskatu du.

#### *Azterketa*

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak elkarrizketa bat izan du herritarrarekin, ondoren Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari informazioa eskatu diogu, eta kasua aztertzeke geratu da.

- Eraikin bateko etxabea dagoen taberna batetik datorren zarata (erreg.-zk.: 161-03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek bulegora jo du, bizi den eraikinaren etxabea kokatuta dagoen taberna batetik datorren zarataz kexatuz. Herritarrak esan digu taberna intsonorizatu

gabe dagoela. Indarrean dagoen araudia bete dadila eskatu du, eta arazoa konpontzeko laguntza eskatu du.

#### *Azterketa*

Herritarrak Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan du bere arazoa azaltzeko, eta salatzen ari den tabernan egindako zenbait zarata-neurketen emaitza aurkeztu du.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak Ingurumen Sailari txosten bat egitea eskatu dio, tabernaren jarduera-lizentziaren eta bere ezaugarrien berri izateko.

2002-2003 Memoria hau itxi den unean, Ingurumen Sailari eskatutako txostena jaso dugu, eta beraz, txosten hori aztertu egingo da.

- Eraikinean egindako obrak Udalarari ez ordaintzea (erreg.-zk.: 164-03)

#### *Erreklamazioa*

Jabeen Komunitate bateko bizilagun batek, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan azaldu duen kexan ondokoa dio: eraikina birgaitzeko diru-laguntza bat eskatu dutela, baina bi bizilagunek eraikinean egindako obren ordainketei ez dietela aurre egin, eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiaren bitartez bizilagun horiei obren ordainketa egin dezaten exijitzea eskatu du, bestela diru-laguntza ez baita gauzatuko.

#### *Azterketa*

Erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, Hiri Berrikuntzarako Eragintegiarekin bilera bat egin dugu, eta bertan adierazi dute azken erabakia Auzitegi Zibilaren esku dagoela. Udalak ondokoa erantzun du: partaidetza-kuota metro koadroka kalkulatuta zegoela eta orain eskatzaileak bere metro koadroak gehitu egin dituela eta, beraz, gehiago ordaindu behar duela.

Erabiltzailearekin harremanetan jarriko gara datu gehiago biltzeko.

Memoria hau itxi den unean, Gomendio bat egin da bi zentzutan; alde batetik, bizilagunek jaso dituzten laguntzak beren helbururako erabili dituztela egiaztatzea, eta bestetik, eskatzaileari eskatutako dokumentazioa ematea. Ondoren, jakinarazi digute bizilagunek ordainketa horiei aurre egin dietela, eta Hiri Berrikuntzarako Eragintegiak agiri bidez egiaztatuko digula. Bestalde, espedientea bidaliko digute, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegotik bizilagunek prestatu duten dokumentazioa helarazteko.



- Ez daude batere pozik Gamarrako frontoietako instalazioekin (erreg.-zk.: 171-03)

#### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batzuk, Gamarrako frontoietan pilotan maiz jolasten direnak, frontoi horietan jarri diren estalkietaz kexatzen dira, eta hankasartze handia iruditzen zaie eta ematen zaien erabilera kontuan izanik gaizki planteatuta daudela ere adierazi dute.

#### *Azterketa*

Kexa irakurri ondoren, bisita egin dugu frontoietara.

Kexa-egileetako batek Sindikoarekin elkarrizketa bat izan du, eta ondoren kexa idatziz egin du.

Ondoren, Kirol Sailarekin elkarrizketa bat izan dugu Bulegora iritsi den kexaren berri izan dezaten. Sail horretan adierazi digute kexa horien jakitun direla, baina ez datozela bat herritar horien arrazonamenduarekin.

Sindikaturak ondokoa eskatu du: obra hori egin zuen arkitektoaren Txostena, Lakuan antzeko ezaugarriak dituen frontoi baten eraikuntzari buruzko informazioa eta Gamarrako instalazioetan aurreikusita dauden hobekuntzei (pintura, pilotak sar daitezen saihestea, eta abar) buruzko informazioa.

Kirol Sailak eskatu den informazioa bidali du, aurreikusitako hobekuntzak izan ezik. Kasua erabakitzeke geratu da.

- Trenbidearen aldameneko lursail bateko lurrak kendu dizkiote (erreg.-zk.: 173-03)

#### *Erreklamazioa*

Herritar bat kexu da trenbidearen aldamenean dauden lurretan bere jabegoaren zati bat egitatezko bidean kendu diotela eta jabegoaren gainerakoa egoera txarrean utzi diotela. Ondokoa jakin nahi du: zein titulurekin eman den, eta kalte-ordainak erreklamatu ditzakeen.

#### *Azterketa*

Memoria hau itxi den unean, Sindikatura honek Baztertzea erabaki du, bere ustez Renferen eskumenekoa delako, eta ez udal administrazioarena.

- Taberna batek sortutako zaratak bizilagunak molestatzen ditu (erreg.-zk.: 175-03)

#### *Erreklamazioa*

Zenbait bizilagun kexu dira bizi diren eraikineko behe-oinean dagoen taberna bati kafetegi gisa jarduteko lizentzia eman diotelako baina errealitatean “after hours” bezala funtzionatzen duelako, eta noski, zarata handia sortzen duelako.

#### *Azterketa*

Ukitutako bizilagunarekin elkarrizketa izan ondoren, Ingurumen Sailari txosten bat eskatu diogu, taberna horrek duen lizentzia-mota ezagutzeko eta haren aurka salaketarik egin den jakiteko. 2002-03 Memoria itxi den unean, kasua aztertzeke dago.

- Kartel bertikalen eskaera, zikloturisten lehentasuna adierazteko (erreg.-zk.: 176-03)

#### *Erreklamazioa*

Bide-gorriak erabiltzen dituen herritar bat kexu da oinezkoak bide horietan sartzen direlako eta zikloturistei oztopo egiten dietelako.

Eskatu du kartel bertikalen bitartez bide horietan zikloturistek lehentasuna dutela adieraztea, udaltzaingoa erne egotea eta dagokion jarraipena egitea. Era berean, kartel horiek berrikustea eta mantentzea eskatu du.

#### *Azterketa*

Kasua, erabiltzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, aztertzeke geratu da.

- Taxi-lizentziaren ukoa eta fidantzaren atxikipena (erreg.-zk.: 178-03)

#### *Erreklamazioa*

Herritar bati taxi-lizentzia esleitu zioten, eta ezarritako epearen barruan lizentziari uko egin arren ez diote jarritako fidantza itzultzen.

### *Azterketa*

Erabiltzaileak elkarrizketa bat izan du Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin, eta hainbat agiri aurkeztu ditu.

Memoria hau itxi den unean, kasua aztertzeke eta erabakitzeke geratu da.

- Udaltzaingoaren bidegabeko eraso herritar bati (erreg.-zk.: 181-03)

### *Erreklamazioa*

Vitoria-Gasteizko herritar batek Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jo du, eta ondokoa adierazi du: udaltzaingoaren bidegabeko eraso jasan duela, dirudienez "udaltzainak zirikatzen" ari zen herritar bati "ahoz" tratu txarrak ematen ari zen udaltzainari ohartarazi zionean. Udaltzainek eskuburdinak jarri zizkioten eta lurrean porrarekin jipoitu zuten. Gertakariak ikertzea eskatu du.

### *Azterketa*

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearekin elkarrizketa bat izan ondoren, kasua aztertzeke geratu da.

### **3. AZTERLAN ESTATISTIKOAK**

#### 2002-2003 MEMORIAKO DATU ESTATISTIKOAK

Sindikato edo Herritarren Defendatzailearen Instituzioa sortu denez geroztiko hilabete hauetako ibilbidean, hura aurkezteko zenbait jarduketa egin dira.

Sindikatura honen helburua kalitatezko udal zerbitzu bat eskaintzea da, Vitoria-Gasteizko erabiltzaile eta herritarrek hala eskatu baitute.

Ondorengo informazioan, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoan hura sortu zenetik 2003ko otsailaren 28ra arte jasotako kexei buruzko datu estatistikoak erakutsiko ditugu.

Azpimarratu behar da **ondoren aurkezten ditugun datu guztiak multzoka banatuta daudela, nahiz eta zenbait kasutan gure esku-hartzea zabalagoa izan den**. Adibidez, zenbait kasutan, espediente bat Sindikatura honen eskumenekoa ez delako baztertu egin den arren edo onartu ez den arren, aldi berean erabiltzaileari egin behar duen jarduketari buruzko orientazioa eman diogu edo eskumena duen Zerbitzura bideratu dugu (adibidez; presoen gizarteratzea, baztertu egin da Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen eskumenekoa ez delako, eta Arartekora bideratu dugu,...).

Ondoko kasu hau ere aurkitu daiteke: ukituriko alderdien arteko Bitartekotza batean esku hartu dugu, eta ondoren dagokion Sailari Gomendio bat egin diogu, kexa bidali duen erabiltzaileak arrazoa duela uste dugulako (adibidez; herritar batek egindako obrek, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako baimena izan arren, etxe bereko beste herritarrei kalte egiten diete....)

Aurki daitekeen beste kasu bat: ukituriko alderdien arteko Bitartekotza batean esku hartu dugu, eta aldi berean ezespren bat egin dugu administrazioaren jarduketa zuzena izan dela uste dugulako (adibidea; eraikin publiko bateko antena batek inguruko herritar bati osasun-arazoak sortzen dizkio, erradiatzen dituen uhin elektromagnetikoengatik,...), eta sail edo zerbitzu bat baino gehiago ukitzen dituzten kasu ere badaude.

Instituzio hau ezarri denetik laguntza ezberdinak egin dira: guztizko **295 laguntzetatik, 101 telefono-deiak izan dira**, beste **182 laguntza bulegoan bertan egindakoak dira**; neurri

askoz txikiagoan **posta elektroniko**en bitartez egindakoak (**12**) eta **posta tradizional**aren bitartez egindakoak daude, mota askotako galderak eginez, kasu jakin bati buruz galdetuz edo zenbait arazoren berri emanez, eta egin behar dutenari buruzko aholkua eman zaie. Azken kasu horri **KONTSULTA** deritzogu.

*“ Zerbaiti buruz idatziz edo ahoz eskatzen edo ematen den iritzi edo irizpena ”.*

Kontsultatzen jotzen ditugu, erabiltzaileek arrazoi ezberdinengatik egiten dituztenak, baina kexa formalizatzeko behar adinako maila ez dutenak, hau da, azterketarik behar izan ez dutenak. Bulegoan kasu horiei behar bezala erantzuten saiatzen gara: kasua eskumena duen zerbitzu edo erakundera bideratuz, erabiltzaileari aurkeztu digun arazoaren aurrean egin behar dituen jarduketari buruz orientatuz, errekursoak, eta abar.

Kasuaren azterketa-prozesuan, **138 diligentzia** egin dira, hala nola: bilerak sail ezberdinekin, hitzaldiak, ekintzak, kexaren xede den lekua zuzenean ikuskatzea, ukituriko pertsonen arteko bitartekotzak,.....

Egindako laguntzen guztizkotik, hau da, **295 laguntzetatik, 70 kontsultari** arreta eskaini zaie, eta horietako bat edo beste kexa bihurtu da. Horietako batzuk telefonoz jasotzen dira, edo bestela zuzenean bulegora bertaratuz. Bat edo beste posta elektronikoko bidez eta posta tradizionalaren bidez jaso dugu ere.

Era berean, egindako laguntzen guztizkotik, 2003ko otsailaren 28ra arte, hots, 2002-2003 Memoria hau itxi den egunera arte, **181 espediente**<sup>3</sup> ireki dira, horietako bakoitza herritarrek sinatutako dagokion eskariarekin.

### **1) Kexa-kopurua hilabeteka banatuko dugu<sup>4</sup>:**


Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoak funtzionatzen daraman denboran zehar, guztira 181 espediente ireki dira, horietako bakoitza herritarrek sinatutako dagokion eskariarekin. Hilabetero jasotako kexen batez bestekoa 20koa da.

Ondoren, 2002ko maiatzatik 2003ko otsailera arte hilabete bakoitzean egindako kexa-kopurua azaltzen dugu, 2002-2003 Memoria hau 2003ko otsailean amaitu baitugu.

<sup>3</sup> **Oharra:** Espedienteaz ari garenean, behar bezala bete, sinatu eta identifikaturiko kexak hartzen ditugu kontuan

<sup>4</sup> **Oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.

| HILABETEA              | ESPEDIENTE KOP. |
|------------------------|-----------------|
| 02ko mai               | 10              |
| 02ko eka               | 28              |
| 02ko uzt               | 32              |
| 02ko abuz <sup>5</sup> | 1               |
| 02ko irai              | 22              |
| 02ko urri              | 23              |
| 02ko azar              | 16              |
| 02ko aben              | 10              |
| 03ko urta              | 20              |



|            |    |
|------------|----|
| 03ko otsai | 19 |
|------------|----|

## 2) *Guztira egindako kexak Vitoria-Gasteizko<sup>6</sup> auzoen arabera banatuko ditugu:*

Ondoren, Vitoria-Gasteizko auzo bakoitzean zenbat espediente erregistratu diren ikus daiteke, gure zerbitzuko erabiltzailearen bizilekua kontuan izanik.

Azpimarratu beharra dago, gure bulegoetara zerbitzu-eske gehienbat etorri diren herritarrek **Arriaga-Lakua** (kexen %12,15) eta **Alde Zaharra** (kexen %12,15) auzoetakoak izan direla

<sup>5</sup> **Oharra:** abuztua hilabete baliogabetzat hartzen da, eta Bulegoa itxita egon zen.

<sup>6</sup> **Oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.

Eta beste zenbait auzotan, berriz, adibidez **Abetxuko, Arana Betoño, Angloa eta Lakuabizkarran**, kexa-kopurua oso txikia izan da, gutxi gorabehera **%0,50ekoa**.

Ikus, ondorengo taula honetan, Vitoria-Gasteizko auzo bakoitzaren arabera egin dugun azterketa:


| <b>AUZOA</b>                     | <b>GUZTIRA</b> | <b>EHUNEKOA</b> |
|----------------------------------|----------------|-----------------|
| Abetxuko                         | 1              | %0,50           |
| Adurza                           | 2              | %1,10           |
| Ali-gobeo                        | 2              | %1,10           |
| Aranbizkarra                     | 7              | %3,80           |
| Arana                            | 1              | %0,50           |
| Ariznavarra                      | 4              | %2,20           |
| <b>Arriaga-Lakua</b>             | <b>22</b>      | <b>%12,15</b>   |
| Betoño                           | 1              | %0,50           |
| <b>Alde Zaharra</b>              | <b>22</b>      | <b>%12,15</b>   |
| Koroatzea                        | 10             | %5,50           |
| Desamparadas                     | 9              | %4,90           |
| El Pilar                         | 3              | %1,65           |
| Angloa                           | 1              | %0,50           |
| <b>Zabalgunea</b>                | <b>18</b>      | <b>%9,90</b>    |
| Gazalbide                        | 2              | %1,10           |
| Judizmendi                       | 7              | %3,80           |
| Lakuabizkarra                    | 1              | %1,10           |
| Lovaina                          | 6              | %3,30           |
| Mendizorroza                     | 5              | %2,76           |
| San Cristóbal                    | 5              | %2,76           |
| San Martín                       | 8              | %4,41           |
| Sansomendi                       | 6              | %3,30           |
| Santa Luzia                      | 7              | %3,86           |
| Santiago                         | 2              | %1,10           |
| Txagorritxu                      | 3              | %1,65           |
| Zaramaga                         | 9              | %4,90           |
| Ekialdeko landa-zonaldea         | 5              | %2,76           |
| Ipar Ekialdeko landa-zonaldea    | 2              | %1,10           |
| Hego Mendebaldeko landa-zonaldea | 3              | %1,65           |
| email                            | 4              | %2,20           |
| Beste batzuk                     | 3              | %1,65           |
| <b>GUZTIRA</b>                   | <b>181</b>     | <b>%100</b>     |

### 3) *Kexen guztizkoa Erabiltzaileen arabera banatuko dugu*<sup>7</sup>:

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegora udal administrazioak eskainitako zerbitzuarekin ez dagoela ados adieraztera etorri direnak, nagusiki, gizonetzkoak izan dira.

Azter itzazue erabiltzailearen araberrako ondoko datuak:

- **Gizonezkoak:** 107 espediente (kexen %59,11)
- **Emakumezkoak:** 54 espediente (kexen %29,83)
- **Taldeak:** 20 espediente (kexen %11,04)



<sup>7</sup> **Oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.



4) Guztizko keak Vitoria-Gasteizko Udalaren Sail eta Zerbitzu ezberdinen arabera banatuko ditugu<sup>4</sup>:

| Saila   | Espedienteak guztira | Espedienteen % |
|---|----------------------|----------------|
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>181</b>           | <b>%100</b>    |
| <b>HIRIGINTZA:</b><br>-Bide Publikoak:17<br>-Eraikuntzen Araubide Juridikoa:16<br>-Plangintza eta hirigintzaren kudeaketa:6<br>-Hilerriak: 1                  | 41                   | %22,65         |
| <b>OGASUNA:</b><br>-Ondare Erantzukizunaren Atala: 17<br>-Diruzaintza-Zerga Bilketa: 4<br>-Zerga Kudeaketa: 1<br>-Kontabilitatea, Aurrekontuak eta Kostuak: 1 | 23                   | %12,70         |
| <b>INGURUMENA:</b><br>-Ingurumen Kudeaketa: 4<br>-Atmosfera eta Zaraten Atala: 8<br>-Cespa: 4<br>-Parke eta Lorategiak: 2                                     | 21                   | %12,15         |
| <b>BESTE BATZUK</b>   | 14                   | %7,73          |
| <b>UDALTZAINGOA</b>   | 16                   | %8,83          |
| <b>EZ DAGO DAGOKION ZERBITZURIK</b>   | 14                   | %7,73          |
| <b>GIZARTEGINTZA</b><br>-Komunitate Jarduera: 8<br>-Hautzaroa eta Senitartea: 1<br>-Gizarteratzea: 1  | 10                   | %5,52          |
| <b>HIRI BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA</b>   | 8                    | %4,41          |
| <b>MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA</b>   | 7                    | %3,86          |
| <b>OSASUNA ETA KONTSUMOA-DEMSAC</b>   | 6                    | %3,31          |
| <b>AMVISA</b>   | 4                    | %2,20          |
| <b>FUNTZIÓ PÚBLIKOA</b>   | 4                    | %2,20          |
| <b>KIROLA</b><br>-Kirol Zerbitzua: 2<br>-Kirol Ekintzen Programazio eta Antolakuntza Zerbitzua: 1   | 3                    | %1,65          |

<sup>4</sup> **Oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.

|  |   |       |
|--|---|-------|
| <b>KULTURA</b><br>-Udal Artxiboa: 1<br>-Kultur Ekintzak: 1 | 2 | %1,10 |
| <b>LEHENDAKARITZA</b><br>-Gizarte Etxeak: 1<br>-Euskara: 1 | 2 | %1,10 |
| <b>21 ZABALGUNEA</b>                                       | 1 | %0,55 |
| <b>TEKNOLOGIA BERRIAK</b>                                  | 1 | %0,55 |
| <b>LEGE ZERBITZUAK</b>                                     | 1 | %0,55 |
| <b>TUVISA</b>  | 1 | %0,55 |

**5) Guztizko kexak Vitoria-Gasteizko Udalaren Sail eta Zerbitzu ezberdinen arabera banatuko ditugu, eta kasu bakoitzean egin diren jarduketak adieraziko ditugu<sup>8</sup>:**

| Saila  | Gomendioak                            | Ezespenak                              | Rechazo/Inadmision                    | Beste batzuk                            |
|--|---------------------------------------|--|---------------------------------------|---|
| <b>HIRIGINTZA: (41)</b><br>-Bide Publikoak:17<br>-Eraikuntzen Araubide Juridikoa:16<br>-Plangintza eta hirigintzaren kudeaketa:6<br>-Hilerriak: 1                  | <b>GUZTIRA: 9</b><br>2<br>5<br>1<br>1 | <b>GUZTIRA: 10</b><br>4<br>4<br>2<br>0 | <b>GUZTIRA: 2</b><br>1<br>0<br>1<br>0 | <b>GUZTIRA: 20</b><br>11<br>7<br>2<br>0 |
| <b>OGASUNA: (23)</b><br>-Ondare Erantzukizunaren Atala: 17<br>-Diruzaintza-Zerga Bilketa: 4<br>-Zerga Kudeaketa: 1<br>-Kontabilitatea, Aurrekontuak eta Kostuak: 1 | <b>GUZTIRA: 6</b><br>1<br>3<br>1<br>1 | <b>GUZTIRA: 5</b><br>5<br>0<br>0<br>0  | <b>GUZTIRA: 0</b><br>0<br>0<br>0<br>0 | <b>GUZTIRA: 12</b><br>1<br>1<br>0<br>0  |
| <b>INGURUMENA: (21)</b><br>-Ingurumen Kudeaketa: 4<br>-Atmosfera eta Zaraten Atala: 8<br>-Cespa: 4<br>-Parke eta Lorategiak: 2                                     | <b>GUZTIRA: 5</b><br>0<br>1<br>3<br>2 | <b>GUZTIRA: 2</b><br>1<br>1<br>0<br>0  | <b>GUZTIRA:1</b><br>0<br>1<br>0<br>0  | <b>GUZTIRA:12</b><br>3<br>8<br>1<br>0   |
| <b>UDALTZAINGOA (16)</b>   | <b>GUZTIRA: 9</b>                     | <b>GUZTIRA: 0</b>                      | <b>GUZTIRA: 1</b>                     | <b>GUZTIRA: 6</b>                       |
| <b>GIZARTEGINTZA</b><br>-Komunitate Jarduera: 8<br>-Hautzaroa eta Senitartea: 1<br>-Gizarteratzea: 1   | <b>GUZTIRA: 1</b><br>1<br>0<br>0      | <b>GUZTIRA: 3</b><br>2<br>0<br>1       | <b>GUZTIRA: 1</b><br>0<br>1<br>0      | <b>GUZTIRA:5</b><br>5<br>0<br>0         |
| <b>HIRI BERRIKUNTZARAKO ERAGINTEGIA (8)</b>  | <b>GUZTIRA: 3</b>                     | <b>GUZTIRA: 3</b>                      | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 2</b>                       |
| <b>MUGIKORTASUN ETA GARRAIO ZERBITZUA (7)</b>  | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 4</b>                      | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 3</b>                       |
| <b>OSASUNA ETA KONTSUMOA-DEMSAC (6)</b>  | <b>GUZTIRA: 1</b>                     | <b>GUZTIRA: 2</b>                      | <b>GUZTIRA:0</b>                      | <b>GUZTIRA: 3</b>                       |
| <b>AMVISA (4)</b>  | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 4</b>                      | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 0</b>                       |
| <b>FUNTZIÓ PÚBLIKOA (4)</b>  | <b>GUZTIRA: 0</b>                     | <b>GUZTIRA: 0</b>                      | <b>GUZTIRA: 4</b>                     | <b>GUZTIRA: 0</b>                       |
| <b>KIROLA (3)</b><br>-Kirol Zerbitzua: 2<br>-Kirol Ekintzen Programazio eta Antolakuntza Zerbitzua: 1  | <b>GUZTIRA: 1</b><br>0<br>1           | <b>GUZTIRA: 1</b><br>1<br>0            | <b>GUZTIRA: 1</b><br>1<br>0           | <b>GUZTIRA: 0</b><br>0<br>0             |

<sup>8</sup> **2. oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.

|  |                             |                             |                   |                    |
|--|-----------------------------|-----------------------------|-------------------|--------------------|
| <b>KULTURA (2)</b><br>-Udal Artxiboa: 1<br>-Kultur Ekintzak: 1 | <b>GUZTIRA: 2</b><br>1<br>1 |                             |                   |                    |
| <b>LEHENDAKARITZA (2)</b><br>-Gizarte Etxeak: 1<br>-Euskara: 1 | <b>GUZTIRA: 1</b><br>0<br>1 | <b>GUZTIRA: 1</b><br>1<br>0 |                   |                    |
| <b>21 ZABALGUNEA (1)</b>                                       | <b>GUZTIRA:0</b>            | <b>GUZTIRA: 0</b>           | <b>GUZTIRA: 0</b> | <b>GUZTIRA: 1</b>  |
| <b>TEKNOLOGÍA BERRIAK (1)</b>                                  | <b>GUZTIRA: 1</b>           | <b>GUZTIRA: 0</b>           | <b>GUZTIRA: 0</b> | <b>GUZTIRA:0</b>   |
| <b>LEGE ZERBITZUAK (1)</b>                                     | <b>GUZTIRA:0</b>            | <b>GUZTIRA:0</b>            | <b>GUZTIRA: 0</b> | <b>GUZTIRA: 1</b>  |
| <b>TUVISA (1)</b>  | <b>GUZTIRA:0</b>            | <b>GUZTIRA:1</b>            | <b>GUZTIRA:0</b>  | <b>GUZTIRA:0</b>   |
| <b>BESTE BATZUK (14)</b>                                       |                             |                             |                   | <b>GUZTIRA: 14</b> |

Taula honetan, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegotik Vitoria-Gasteizko Udalaren zerbitzuak hobetzeko egin diren jarduketak ikus daitezke.

Ikus daiteke "BESTE BATZUK" agertzen den lekuan Sindikatura honek kexak ebazterakoan egindako Deribazio, Orientazio eta Bitartekotzei dagozkien jarduketak barne hartuta daudela.

### **ESPEDIENTEAK GUZTIRA: 181 kexa<sup>9</sup>**

Ondoren, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoko kexa-espedienteetan egindako jarduketan zerrenda eskaintzen dugu:

- a) **Irekiak: 45 (espedienteen %24,86)**
- b) **Itxiak: 136** (horietatik; 9 mugaeguneratu direlako itxi dira, 5 erabiltzaileak itxi ditu; 122 gure esku-hartzearen ondoren itxi dira)


**Sindikatura honen esku-hartzearen ondorioz itxitako 122 espedienteak**, honela banatuta daude:

- **38 Gomendio** (herritarren kexak onartuz):
  1. **Onartuak: 26** (25 osorik onartu dira eta 1 partzialki onartu da; beraz, guztizko Gomendioen %68)
  2. **Onartu gabeak: 3** (guztizko Gomendioen %7,8)
  3. **Orain arte erantzun gabe daudenak: 9** (guztizko Gomendioen %23, onarpena epe ertain edo luzera dela kontuan izanik).
  
- **35 Ezespen** (Sindikaturak bere gain hartutako guztizko espedienteen %28,6)
  
- **16 Bazterte/Ez-onartze** (guztizko kexen %8,83)
  
- **2 Gogorazpen** (guztizko kexen %1,10)
  
- **6 Deribazio** (guztizko kexen %3,3)
  
- **12 Orientaciones** (guztizko kexen %6,62)
  
- **12 Bitartekotza** (guztizko kexen %6,62)
  
- **Akordio 1** (gure esku-hartzea baino lehenago lortu da)


---

<sup>9</sup> **1. oharra:** Grafiko honetan, 2002-2003 Memorian eskaintako datu guztietan bezalaxe, datuak ikuspegi finko batetik eskaintzen dira, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen jarduketa bat lehenetsiz, kexa batean jarduketa bat baino gehiago egin ahal izan den arren.

**2. oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.



Grafikoaren bitartez, jasotako kexen jarduketan<sup>10</sup> banaketa ikus daiteke



<sup>10</sup> **1. oharra:** Grafiko honetan, 2002-2003 Memorian eskainitako datu guztietan bezalaxe, datuak ikuspegi finko batetik eskaintzen dira, Sindiko-Herritarren Defendatzailearen jarduketa bat lehenetsiz, kexa batean jarduketa bat baino gehiago egin ahal izan den arren.

**2. oharra:** datu estatistikoak 2003ko otsailaren 28ra artekoak dira. Data horretatik aurrera sortutako espediente guztiak 2003-2004 Memorian barne hartuko dira.

## **4. AZTERTZEKO DAUDEN GAIAK**

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea abiarazi denetik Vitoria-Gasteizko herritarrek ukitzen dituzten zenbait gai orokor daude, iritzi publikotik, komunikabideetatik, herritarrek egindako kexa eta kontsultetatik jaso ditugunak, eta gai horiei dagokienez, uste dugu eskatzaile bakoitzari eman diogun erantzun zehatzaz gain, merezi duela epe ertain edo luzerako azterketa bat egitea Gomendio orokor bat lortzeko.

Gai horien artean, ondokoak adieraz ditzakegu:

**Poluzio akustikoaren eta gauetako ordutegiaren** problematikak herritar asko ukitzen ditu (bertan bizi direnak, ostalariak, gazteria) eta gaia araudien bidez konponduta egon arren, araudi horiek praktikan jartzeko eragozpen asko daude, eta horregatik, garrantzitsua izango da gai honi loturiko bilakaera legislatiboa eta jurisprudentziala.

Hirian bizikletaren erabilerak, **bidegorri-sareak** azterketa xehatua eskatzen du, are gehiago 2003. urtean, bizikletaren urtea baita.

Bilboko Udalak duela gutxi **prostituzio-lokalei** buruzko Ordenantza eman du, sektore interesatuekin eta Bilboko Gizarte Gaietako Zinegotzigoarekin harremanetan jarri gara neurri horrek hirian izan duen eragina eta Ordenantza hori zein neurritan izan de positiboa aztertzeko. Autonomia Erkidego mailan ere nolabaiteko erregulazioa badago, eta aztertzen ari gara.

Erdiguneen **peatonalizazioa**, kasu honetan Vitoria-Gasteizko erdigunearena, eta **\_TAO zonakatzea**, oso gai interesgarriak dira eta Vitoria-Gasteizko informazioa nahiz zuzenbide konparatuari buruzko informazioa biltzen ari gara.

**Irisgarritasuna**, udal politika guztietako zeharkako praktika gisa (hirigintza, berdintasuna, laguntzak, bide publikoa ...) interesatu zaigu, eta etorkizunean gaiari buruzko hausnarketa eskaini nahi dugu Irisgarritasun Kontseiluaren esparruan.